# goiena
DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2014-04-04
EGUBAKOITZA
592. ZENBAKIA
14. URTEA
DOAKOA
GOIENA.NET
TOKIKOM




## "Turista gehiago doaz barruko eskualdeetara"

**Itziar Epaltza**
Turismo sailburuordea | 7

## Errenta aitorpena, apirilaren 11n

Azken urtez, iazko arau bera izango da aitorpenerako | 2

Domekan hasiko da Eskoriatzako Udalak antolatutako Osasun Astea | 11



Uribetxeberria etxean preso sartzeko agindu du epaileak | 4



Oinezkoek bakarrik erabil dezakete Oñatiko Agirretar Lope kalea | 18

# TENTSIOA HANDITZEN

Cegasan hasi dira material falta igartzen; protestekin segitzen dute | 4




Eguaztenean egin dute elkarretaratzea Cegasa Taldeko hainbat langilek Oñatiko fabrikaren aurrean. | JAGOBA DOMINGO

**HARIRA** SAIOA | GOIENA TELEBISTA

## "Argiteria planari esker argi kontsumoa erdira jaitsi dugu"

**IMA BERISTAIN**
Antzuolako alkatea | 20



# Ikerketak finantzatu ahal izateko, jaialdia egingo dute

Bergarako Udal Pilotalekuan egingo dute gaitz mitokondrialen ikerketetarako dirua batzeko ekitaldia; Iker Galan ume bergararrak du gaitz hori gurean | 5



Iker Galan, urtebetetzean. | A.B. MARTINEZ

## SINADURAK



**Beldurra baino gogorragoa gosea** | 8
AMAGOIA LASAGABASTER

8 | **Gaixoen familiendako babesa**
UBANE MADERA





**Aurrera bolie** | 27
SEBAS ARANTZABAL

40 | **Donostia 2016 nora ezean**
AINTZANE OIARBIDE




ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4
ELKARRIZKETA 7 | IRITZIA 8 | HERRITARRAK 10
HERRIAK 11 | KIROLA 28 | KULTURA 31
ZURE IRAGARKIAK 35 | TELEBISTA-IRRATIA 36
EZKONTZAK 37 | ESKELAK 37 | NON-ZER 38





# Iazko arau bera izango da errenta aitorpenerako, azken urtez

- PFEZ aitortzeko kanpaina apirilaren 11n hasiko da
- Ogasunak 164 milioi euro batzea aurreikusten du
- Datorren urtean aldaketa handiak izango dira



Teknikariak hilaren 11n hasiko dira errenta mekanizatuak tramitatzen; irudian, aurreko kar

**LEIRE KORTABARRIA** | BERGARA

Iazko errenta aitorpena egiteko kanpainan etorri ziren berritasun guztiak ikasi bazituzten zergadun gipuzkoarrek, aurten ondo etorriko zaie hori, 2013ko errenta aitortzeko kanpaina iazkoaren oso antzekoa delako, errekargu eta desgrabazio aukerei dagokienez, behintzat. Ezer azpimarragarririk ez da aldatu etxebizitza erosi izanagatik –Espainian, desgrabazio-aukera hori, aspalditik indarrean zegoena, iaz kendu zuten, baina Gipuzkoan oraindik ez–, pentsio-planetan aportazioak egiteagatik edo sindikaturen bateko kuotak ordaintzeagatik, besteak beste. Bestalde, iaz asmo batzuk agertu ziren arren, indarrean jarraitzen du bikotekideek aitorpen bateratua egiteko aukerak.

Beraz, ohiko gauzak hartu beharko dituzte kontuan zergadunek, eta, probabilitateak alde dituzten arren –aitorpenen %76 baino gehiago negatiboak izango direla esan du Foru Ogasunak, hau da, dirua bueltan jasotzekoak–, itzultzeko emaitza baldin badute, batez bestekoa iazkoa baino txikiagoa dela ere gogoratu: iaz, 1.136 euro, eta aurten, 1.092.

Ogasunarekin kontuak argitzeko benetako unea datozen egunotan ailegatuko da gipuzkoarrondako. Autolikidazio proposamena jaso duten edo jasotzekoak diren 236.948 zergadunek *www2.gipuzkoa.net* webgunean ikus dezakete berau. Onartzeko edo ukatzeko, ordea, hilaren 7ra arte itxaron beharko dute.

> **ESANAK**
>
> **"Murrizpenetan, ohiko aukerak daude; ez dago aparteko berritasunik"**
>
> **"Aberastasun Zergaren alde nabarmen bat da babes fiskala kendu dutela"**
>
> JON LARRAÑAGA
> ZERGA-AHOLKULARIA

### %4 proposamen gehiago

Autolikidazio proposamenak errenta aitorpena egiteko modalitate garrantzitsuena bilakatzen dabiltza, aitorpen kopuru aldetik. Hala, iaz baino 9.906 proposamen gehiago (%4,4 gehiago) bidaliko ditu Ogasunak, aitorpen guztien %62. Titularrak 237.000 inguru diren arren, autolikidazio proposamen horiek beste 50.000 zergaduni eragiten diete.

Oso tentagarria da autolikidazioa dagoenetan onartzea, errenta mekanizatua aurkezteak dakartzan lanak kentzeko, baina kontuan hartu behar da hutsuneak edo akatsak egon daitezkeela; normalean, zergadunaren interesen kalterako, nahiz eta oharkabeko akatsak izan. Besteak beste, kenkarietan egoten dira kontuan hartu gabeko gauzak.

Aurten, 13.084 proposamenek daturen bat falta dezaketela ohartarazten du Ogasunak; bada, kasu batzuetan, aldaketak egin ondoren onartzeko aukera dago. Ogasunak dioenez, orokorrean, datu hauek falta dira: etxebizitza errentan emateagatik lortutako sarrerak edo errentan hartzeagatik dagokion kenkaria; eta dohaintza batzuk egin izanekoa. Kasu horietan, proposamenean hala adierazten da eta, berau onartzeko unean, aplikazioak ohartarazi egiten du.

### Mekanizatuak, 88.000

Errenta mekanizatua aukeratzen duenak edo autolikidazio proposamena onartzen ez duenak hitzordua eskatu behar du bulegora joateko. Hori apirilaren 10a ezkero egin daiteke, 902 100 040 telefonora deituta (deitzeagatik ordaindu egin behar dela gogoratu) edo *www2.gipuzkoa.net* webgunean.

Aurten, 88.000 aitorpen mekanizatu tramitatuko dira, iaz baino 2.000 gutxiago eta tramitatuko direnen %23 inguru. Internetez, 23.000 norbanakok aurkeztuko dute, eta 67.000 aholkularik; denetara, 390.000 aitorpen Gipuzkoan, iaz baino 4.000 gehiago, baina Ogasunak iaz baino bilketa aurreikuspen apalagoak ditu: 164 milioi euro, iaz baino 28 gutxiago.

> **DATUAK**
>
> **%76**
> AITORPEN
> Zergadunen %76,4ri dirua itzuliko dio Ogasunak; iaz, %77,7ri.
>
> **1.750**
> EURO
> Itzultzeko emaitza duten zergadunei, batez beste, 1.750 euro itzuliko diete.

### %25eko tramu berria

Iaz aplikatu zen araudi berbera aplikatuko da aurten ere, Bilduren zerga-erreformaren fruitu, berritasun gutxirekin. Aldaketa azpimarragarri bat dago kapitalaren errenten tarifetan, hiru tramu bereizten direlako eta gutxieneko tarifa handitu egin delako (%20tik %21era). Iaz, 4.000 eurora arteko irabaziek %20 ordaindu behar zuten, eta hortik gorakoek, %23; aurten, 1.500 eurora arteko etekinek %21 emango diote Ogasunari;

Arrasateko hipermerkatua
EROSKI
zurekin
Musakola 11 ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30

ELIKADURAREN GAINEKO BERBALDIA
Euskal Herriko Dietisten eta Nutrizionisten Elkargo Ofizialeko dietista batekin.
**NON:** Arrasateko Eroski hipermerkatuan.
**NOIZ:** Astelehenean, apirilaren 7an.
**ORDUA:** 18:00etan.

ez dugu esango "ez bota gatz gehiegi"
GUK EGIN EGITEN DUGU ETA HORREGATIK 16 TONA GATZ BAINO GEHIAGO KENDU DITUGU EROSKI MARKAKO PRODUKTUETATIK



EROSKI Sannia
Oliba beteak gatz gutxikoak, 150 g
1 erosita 0,84 € Kiloa: 5,60 €
2 erosita Ale bakoitza: 0,67 € Kiloa: 4,48 €

ez dugu esango "kontuz koipeekin"
GUK EGIN EGITEN DUGU ETA HORREGATIK 200 TONA KOIPE BAINO GEHIAGO KENDU DITUGU EROSKI MARKAKO PRODUKTUETATIK



EROSKI Sannia
Gazta anoatan, 250 g
1 erosita 1,25 € Kiloa: 5 €
3 eraman eta 2 ordaindu Ale bakoitza: 0,83 € Kiloa: 3,32 €

www.eroski.es/somosmasdehacer
Eskaintza baliagarria 2014ko apirilaren 9ra arte




...npaina bateko tramitazio bat. | GOIENA

## Autolikidazioa onartu baino lehen

Autolikidazio proposamenak, orokorrean, ondo eginda egoten diren arren, urtean zehar norberaren egoera alda daiteke eta baliteke gauza batzuk ez jasotzea proposamenak.

**DEDUKZIOAK**
Etxebizitzarengatik dedukzioak badira, kasuistika batzuk ez dira jasotzen: esaterako, etxebizitza hobetzeko edo egokitzeko egin diren obrak.

**DIBORTZIOAK**
Epaileak dibortzio-sententzia egiten duen momentutik, bi familia-unitate sortzen dira eta zergadunen egoera aldatu egiten da. Kontuan izan behar da epaileak agindutako pentsioek kenkari batzuetarako eskubidea ematen dutela.

**EROSKETA EDO ALOKAIRUA**
Askotan, autolikidazio proposamenak ez du kontuan hartzen urte naturalean zehar izan diren aldaketak: adibidez, ohiko bizilekua errentan hartu bada. Gogoan izan bai etxe-jabeak bai maizterrak desgrabazio aukera onak dituztela.

**BATERA EDO BAKARKA**
Autolikidazioa egiterakoan, sarritan ez da kontuan hartzen zergadunarendako zein den aitorpen modalitate komenigarriena. Baliteke baterako aitorpena hobea izatea unitate familiar batendako.

**URTARRILAREN 1ETIK**
Zerga-urtea urtarrilaren 1ean hasten da eta urte osoan izandako aldaketak —egoera zibilean, ondasunetan, aportazioetan...— sartzen dira edo sar daitezke urte horri dagokion aitorpenean.

## Aldaketa asko datorren urteko aitorpenean

Aurtengo urtarrilaren 1a ezkero indarrean dago EAJ, PSE eta PPk adostu zuten erreforma fiskala. Datorren urteko aitorpenean "aldaketa dezente" igarriko dira, Aierdi aholkularitzako Jon Larrañagak dioskunez: aurrezpenaren oinarri likidagarrian bost tramu izango dira; EPSVetan, kontribuzioengatik zerga-oinarria 8.000 euro murriztu ahal izango da, asko jota, eta zergadunaren adinaren arabera ez dira mugak handituko; etxebizitza erosteagatik dagoen mailegu fiskala 30.000 eurotik 36.000 eurora igotzen da, eta gehienezko dedukzioa, %15etik %18ra; jarduera berriei diruz laguntzearren (*business angel*) %20ko kenkaria egongo da...

1.500etik gora eta 10.000 eurora artekoek, %23; eta 10.000 euro baino gehiagokoek, %25. Atxikipen horiek aplikatzen dira urtarrilaren 1a ezkero.

Murrizpenen kapituluan, "ohiko aukerak daude", Aierdi aholkularitzako Jon Larrañagak gogorarazten duenez: "Kenkari pertsonal eta familiarrak daude; gurasoengatik, mendekoa izateagatik... Adinarengatik dagoen kenkaria ere badago: oinarri ezargarriaren eta tributazio modalitatearen arabera aldatzen den kenkaria da, eta 30.000 eurora arteko oinarri ezargarria duten 65 urtetik gorakoek bakarrik dute kenkaria".

Etxebizitza kontuetan, alokairuarengatik %20ko kenkari orokorra dago; eta etxebizitza erosteagatik, %15ekoa edo %18koa, segun eta ze urtetan erosi zen. Kontuan hartu behar da kenkarien oinarriari jaso diren dirulaguntzak kenduko zaizkiola.

EPSVetan, gogoratu behar da 67 urtera arteko muga dagoela zerga-oinarria murrizteko, eta 12.000 euro dela murrizpen horretarako gehieneko aportazioa, norberaren eta enpresaren aportazioak kontuan hartuta. Iaz, 5.000 eurora txikitu zen norberak murrizketa eskubidea izateko egin zezakeen gehieneko aportazioa, eta aurten ere berdin jarraitzen du.

Bestalde, dohaintzen kenkaria dago: iaz, %30eko kenkaria zegoen, eta aurten, %10era jaitsi dute.

**DATUAK**

**%15**
DEDUZITU

Etxebizitza Kontu bat izateagatik, %15 ken daiteke sei urtean zehar.

**3**
TRAMU

Aurrezkiengatik interesak jaso dituztenendako, hiru tramu daude; iaz, bi ziren.

Deflaktatu egin da oinarri likidagarriaren eskala, KPIaren igoerak zergadunengan izan dezakeen eragina leuntzeko. Tramuak ez badira deflaktatzen, kasu batzuetan, tramu altuago batera pasa daiteke zergadun bat, bere ondasunak handitu ez arren.

### Modulu sistemen bukaera

Autonomoek eta enpresaburu txikiek ere igarriko duten beste kontu bat moduluen sistemaren murrizketa da, datorren urtekoaren aurrekari edo prestakuntza izan daitekeena, 2015ean guztiz kenduko baita. Modulu sistemak polemika handia piztu du beti, horren arabera aurreikusitako edo estimatutako etekin batzuen araberako zergak ordaintzen baitziren, eta ez benetan izandako etekinen araberakoak. Beraz, moduluak aktibo txikietarako bakarrik daude indarrean aurten; 300.000 euro arteko eragiketa-bolumena duten negozio eta jarduerek bakarrik tributatu ahal izango dute modulu bidez, eta hortik gorakoek, ez. Ogasunaren esanetan, "modulu-sistemak iruzurrerako bide asko irekitzen zituen" eta, oraingo foru gobernuaren helburuetako bat iruzur fiskalaren aurka egitea denez, hortik etorri da esandako erabakia.

Iruzur aukerak ahalik eta gehien ixteko beste pauso bat: aurten, mugatu egin da gastu batzuengatik gutxiago ordaintzeko eskubidea; adibidez, ibilgailu, jatetxe, ostatu, bidaia, bezeroendako opariak...

**KONTUAN HARTZEKOAK**

**Autolikidazio proposamena kudeatzea (onartu edo ukatu):** apirilaren 7tik ekainaren 25era arte.

**Errenta mekanizaturako txanda hartzea:** apirilaren 10etik ekainaren 6ra arte (ordu libreak badaude, gerorako ere bai).

**Errenta mekanizatua edo Internet bidezkoa aurkeztea:** apirilaren 11tik ekainaren 25era arte.

**Telefonoz:** 902 10 00 40. Astelehenetik egubakoitzera, 08:00-15:00.

**Internetez (autolikidazioa kudeatu, txanda hartu...):** *www2.gipuzkoa.net*.

Borroka horren bidetik joan da ere atzerrian ondasunak eta eskubideak aitortzeko derrigortasuna. Martxo bukaeran, 5.139 gipuzkoarrek aitortu zituzten.

### Ondaretik Aberastasunera

Iazko Ondarearen gaineko zerga, aurten, Aberastasunaren Errenta Aitorpena da. Bilduk Ondarearen Zergarekin baino %20 gehiago batzea espero du. Jon Larrañagak dioenez, alderdi askotan Ondare Zergaren oso antzekoa da, baina baditu aldaketa nabarmenak: hala, babes fiskala delakoa kendu da, zeinaren arabera zerga-ingeniaritza operazioak egin eta ondare handia baina etekin edo interes txikiak zituen zergadun batek gutxi edo ezer ez zuen ordaintzen zergatan.

### Kudeaketan berritasunak

Aitorpenean bertan aldaketa handirik ez badago, kudeaketan bai: hala, aitorpena egin eta gero, zergatan batutako dirua zertarako erabili den jakinaraziko zaio zergadunari; bestetik, gor-mutuendako interpretazio sistema emango dute bulego guztietan, aldez aurretik hala eskatuta.



# Lan erregulazioa negoziatzen hasi dira Cegasan

Sei hilabeterako erregulazioa eta Oñatin %25eko jardun-murrizketa proposatu du zuzendaritzak



Cegasako Oñatiko hainbat langile eguazteneko protestan. | JAGOBA DOMINGO

**UBANE MADERA** | OÑATI

Honako baldintzak dituen lan erregulazioa jarri du Cegasa Taldeko zuzendaritzak mahai gainean, negoziaziorako: sei hilabeterakoa; zerbitzu orokorren kasuan, lan-jardunaren %50eko murrizketa (Gasteizko bulegoak); Oñatiko langileendako %25eko murrizketa lan-jardunean; Gasteizko plantarako %66koa eta Solac eta Cegarendako (Cega Logística) %90-100ekoa.

"Orain hasiko gara behin-behinerako lan erregulazioa (ERTE) negoziatzen, eta ikusi egin behar... Dena delakoa ere, eskatuko dugu jarraipena egitea, hori seguru", adierazi dute Oñatiko Enpresa Batzordetik. Hain justu, atzo (eguena) zuten negoziaziorako lehen batzarra.

Horrez gain, datorren asteari begira dihardute, erakundeetako (Gasteizko Udala, Diputazioa, Jaurlaritza) ordezkariekin eskatutako batzarrak orduantxe izango dituztela espero dute-eta.

**Tentsioa igartzen hasi dira**

Bien bitartean, kezkatuta begiratzen diote langileek etorkizunari. Oraingoz, lan kargarekin segitzen dute, Oñatiko lantegian, behintzat, "baina bezeroak galtzeko arriskua hortxe dago. Azkenean, dirua falta da materiala erosteko. Eta behin bezeroak galduta, haiek berreskuratzea…", adierazi dute.

Izan ere, hasi dira igartzen material urritasuna. "Aurreko astean material faltarengatik geldi egon zen sekzio bat Oñatin. Hasi da. Hasi da. Manganesoan ez da horrenbeste igartzen, baina pila industrialen sekzioa geldi egon zen. Langileen artean hasi da tentsioa igartzen. Beldurtuta gaude. Hemen dugu konkurtsoa, estatistikak hor daude, oso txarrak dira, eta hor gaude danok, kontuaren gainean noiz erabakiko zain", dio Enpresa Batzordeak.

**Negoziazioa zabalik**

Cegasa Taldeko zuzendaritzari dagokionez, esan dute behin-behineko lan erregulazio espedientearen negoziazioa zabalik dagoela, eta, seguru aski, legeak zehaztutako hilabeteko epea agortu baino lehen ERTEaren baldintzak ezin izango direla jakin.

## Ausolanen ere elkarretaratzea

Asteon protestaldia egin dute, baita ere, Ausolan Taldeak eskola publikoetako jantokietarako kontratatuta dituen hainbat langilek, Arrasateko Ausolanen egoitzaren aurrean. Greba batzuengatik, eta langileen aldeko sententzia baten arabera, enpresak dagokiona baino diru gehiago deskontatu zien, eta, hain zuzen, oraindik ez die hori bueltatu.



Elkarretaratzea. | IRATI GOITIA

## Josu Uribetxeberria etxean preso sartzeko agindua eman du epaileak

**ENEKO AZKARATE** | BERGARA

Ismael Moreno epaileak baldintzarik bako behin-behineko espetxeratze komunikatua ezarri dio Josu Uribetxeberriari. Halere, bere etxean, Arrasaten, beteko du zigor hori.

Uribetxeberriak atzo eguerdian (eguena) deklaratu zuen Bergarako epaitegian, bideokonferentziaz, Auzitegi Nazionaleko epailearen aginduz. 1986an Arrasaten tiroz hil zuten Antonio Ramosen hilketan zerikusia duelakoan hartu zion deklarazioa epaileak. Moreno epailearen erabakiaren arabera, minbiziarendako tratamenduetarako bakarrik irten ahal izango da Uribetxeberria etxetik, betiere, dagokion zaintzarekin, epaitegietako iturrien arabera.


Josu Uribetxeberria epaitegirako bidean, atzo. | IMANOL GALLEGO

Josu Uribetxeberria arrasatearra baldintzapean utzi zuen aske epaileak, sendaezinezko minbizia duelako, eta Arrasaten bizi da 2012ko urriaz geroztik.

**Ikusmin handia**

Atzo, berriz, senideek eta lagunek babestuta, eta goizean goizetik ingurutik eta urrunagotik epaitegi aurrean zain zeuden komunikabide ugariren begiradapean egin zuen Bergarako epaitegirako bidea atzera ere preso izaera duen arrasatearrak.


Bailarako PSE-EEko zinegotziak eta Denis Itxaso, Arrasaten. | A. TXINTXURRETA

## Hondakin bilketaren harira, sozialistek diote inposizio gabe gauzek hobe funtzionatzen dutela

**AMAIA TXINTXURRETA** | ARRASATE

Debagoieneko hondakinen bilketa sistemaren harira, sozialistek atzo, eguena, salatu zuten Bildu ez dela ari bailarako gizartearen iritzia entzuten, eta Denis Itxaso PSE-EEko Gipuzkoako Ingurumen idazkariak azpimarratu zuen inposizio gabe, gauzek hobeto funtzionatzen dutela. "Inposizioa da herritarrak kontzientziatzea uko egin dutenen bidea, inposizioa arduradun publikoen lanaren porrota da, gure burua behartu beharko genuke herritarrak kontzientziatzera, eta ez derrigortzera, ez dadin buruhauste bihurtu hain erraza den gauza bat; alegia, gure etxeetan sortzen ditugun hondakinak zuzen sailkatzea".

Bosgarren edukiontziarekin birziklatze tasak igotzea posible dela diote; eta gogora ekarri zuten Bilduk gobernatutako beste udalerri batzuetan hala egin dutela, Donostia eta Zarautz aipatuz.

## Urteko batzarra egingo du Topaguneak bihar, zapatua

**UBANE MADERA** | DEBAGOIENA

"Topagunera sartzea da euskaldunen mugimenduan sartzea, euskararen komunitate osasuntsu eta erakargarrian alde lan egiteko aukera aparta, mugimendua sendo eta gogotsu dagoen une batean". Irakurketa hori egin du Euskaltzaleen Topagunea elkarteko presidente izateko proposatu duten Elena Lakak, Bergaran bizi den abokatu eibartarrak. Bihar, zapatua, du Topaguneak batzar nagusia Gasteizko Montehermoso jauregian, 10:30ean, eta han hartuko du kargua. Horrez gain, 2013ko memoria, 2014rako kudeaketa plana eta, besteak beste, lau urteotako balantzea eta hurrengoetarako ildoak landuko dituzte batzarrean.


K. Elkoro, J. Echeverria, J.M. Ugalde eta R. Diez. | MIREN ARREGI

## Jakiunde akademiak laborategitik lantegira "salto" egin zuen, Antzuolako Elay enpresan

**MIREN ARREGI** | ANTZUOLA

Hegoi Garitaonaindiak, EHUko ingeniariak eta Higgs bosoia aurkitu zuen Amsterdameko unibertsitateko ordezkari gisa ATLAS detektagailuko arduradun bezala aritu denak, hitzaldia eskaini zuen atzo Antzuolako Elay lantegian.

Aurretik, baina, Jakiundek antolatutako ekimen ezohikoa aurkeztu zuten.Jesus Mari Ugalde, Jakiundeko presidentea, Javier Echeverria Jakiundeko *Krisiak* egitasmoaren koordinatzailea, Ricardo Diez Muiño DIPCEko zuzendaria eta Kristina Elkoro Elayko ordezkaria izan ziren bertan. Eta parte hartu zuten beste agintari eta aditu gehiago ere izan ziren, Martin Garitano, Gipuzkoako diputatu nagusia, eta Jon Peli Uriguen, Berrikuntza, Landa Garapena eta Turismo diputatua eta Pedro Etxenike zientzialaria.

# Gaixotasun mitokondrialak ikertzen segitzeko, jaialdia

▶ Bergarako Udal Pilotalekuan egingo dute bihar, zapatua, arratsaldean

▶ Iker Galan 4 urteko bergararrak du gaixotasun degeneratibo hori

UBANE MADERA | BERGARA

Martxoaren 5ean 4 urte bete zituen Iker Galan bergararrak. "Bikoiztu egin du bizitza honetan izan behar zuen medikuen araberako adinmuga (…) Oso-oso indartsua da, hauskorra, baina indartsua. Borrokalaria. Bizitzeko demaseko gogoa duen umea. Beti ematen dio bueltа egoerari. Sinestezina da".

Indartsua da, bai, Iker Galan, Ana Belen Martinez amaren begiek ikusten duten modukoa dela erakutsi du. Ez bakarrik bizi-esperantza bikoiztu egin duelako. Azkeneko erakustaldia hamabost egunotan bertan egin du, arnas arazo batengatik Donostia ospitalean ingresatu, UCIn egon, hura gainditu, ospitaleko birusa harrapatu, eta hura ere gainditzeko gauza izan da 4 urteko txikia.



Iker Galan, amarekin. | ANA BELEN MARTINEZ

### Murrizketak vs ikerketak

Hala ere, Iker gaixorik dago. Gaixotasun degeneratiboa dauka: mitokondriala. Gorputzeko zelula guztietan daude mitokondriak. Mitokondriek elikagaiak, proteinak, oxigenoa… hartu eta energia bilakatzen dituzte, gorputzeko organo guztiek ondo funtziona dezaten. Eta mitokondriek ondo funtzionatu ezean, gorputzak ezin du ondo funtzionatu.

Bada, Ikerren gaixotasun bera dute diagnostikatuta Euskadin Jon eta Yara ume bizkaitarrek. Eta horri aurre egin ahal izateko terapia eraginkorrik ez dagoenez, beharrezkoak dira ikerketa medikoak. Horretarako dirua behar da, eta murrizketek diru barik utzi dituzte ikerketok.

Arrazoi horregatik antolatu du AEMPI elkarteak (Patologia Mitokondrialen Gaixoen Elkartea) biharko (zapatua) jaialdia Bergarako Udal Pilotalekuan: ikerketek aurrera egin dezaten dirua batzeko (egitaraua ondoko taulan). Eta jaialdian bertan izango dira Jon eta Yara; Ikerrek eta familiak ere ahalegin guztiak egingo dituzte bertan egoteko.

### Bi ikerketa ordaintzen

Izan ere, AEMPI elkarteari esker dihardute gaixotasun mitokondrialen gaineko ikerketak egiten, bi unibertsitatetan. "Sevillako Pablo Olavide unibertsitatearekin hitzarmena luzatzea sinatu berri dugu, bigarren faseari ekin diezaioten. Lehen faseko ikerketa oso ondo joan da, baina zeluletan, odolean, arratoietan… ikertu behar izaten dute; hainbat fase direlako. Orain, bigarren fasea egin dezaten hitzarmena sinatu dugu. Oso-osorik ordaintzen dugu guztia, eta ikerketak segituko du guk ordaintzen dugun bitartean, bestela eten egingo da-eta; hala ere, argi dugu aurrera egin behar duela", kontatu du Martinezek.

Bigarren ikerketa, berriz, Zaragozako unibertsitatean dabiltza lantzen. "Ordainketa bakarra geratzen zaigu, kasu horretan; diagnostikoarekin lotutako ikerketak dabiltza egiten han".

### Eguneroko borrokan, aurrera

Ikerketak ikerketa, bien bitartean, eguneroko borrokan segituko dutela argi eta garbi du Iker Galanen amak, batzuetan zaila gertatu arren: "Eguneroko bizitzan hobe da ez pentsatzea gerta daitekeen horretan. Bestela ezinezkoa litzateke bizitzea. Beldurtu egin behar gara eta txarto pasatu,umea txarto dagoenean, baina ezin zara egunero hori pentsatzen bizi, ez du pena merezi. Zaila da; egun batzuk beste batzuk baino txarragoak dira, baina egun gehienetan eramaten dugu nahiko ondo. Bizitzak dakarrena hartu egin behar da, datorren moduan. Borrokatu egin behar dugu ahalik eta bizitza kalitaterik handiena izan dezan, bera ahalik eta ondoen egon dadin, ez dezan sufritu, pozik egon dadin… Horrekin nahikoa daukat".

Lau urteko txikiari dagokionez, berriz, urteotan hainbat fakultate galdu egin dituen arren (adibidez, orain dela bi urte inguruko krisialdiaren ondorioz, ezin du ez barrerik eta ezta negarrik egin ere), bizitzak eskaintzen dionari gogor eutsi nahi diola adierazten du: "Oso-oso mimo-zalea da. Nire ahotsa entzutean nire bila hasten da, muxuak nondik "jausiko" zaizkion zain. Laztanak gustatzen zaizkio, bat egin eta hasperen batekin erantzuten du. Ez du berbarik egiten, baina oso ondo adierazten du ze sentitzen duen: minez dagoenean oso tentsu jartzen da, aurpegian ezagun zaio; eta gauza bera pozik dagoenean. Ez ahozko komunikazio oso-oso ona dugu".

### 'Guztiok Jon, Iker eta Yararekin' jaialdia

**BIHAR, ZAPATUA**
BERGARAN, PILOTALEKUAN

**17:00** Ate irekiera.

**17:30-18:30** Zumba *masterclass*-a.

**18:30-19:15** Hitzaldia, zozketak eta erakustaldiak.

**19:30-20:30** Zumba *masterclass*-a.

**Arratsalde osoan:**
▶ Bitxiak, gantxillo lanak eta bestez osatutako azoka txikia.
▶ Mugikorrak batzeko puntua.

**Sarrera:**
5 euro nagusiendako.
3 euro umeendako.

**Laguntasuna emateko:**
2100 799261
2200349049 (Caixa Bank).

### Gastu eta buruhauste izugarriak

Biharko jaialdiarekin batuko duten dirua, gaitz mitokondrialen ikerketetara bideratuko dute, gaur egungo gaixoei begira. Eta halako kasuetan egiten diren murrizketak edo diru laguntza faltak salatzeaz gainera, gaixo horien familiek bizi duten babes-eza ere bada salagarria. Iker Galanen familiaren kasuan, zenbaki bitartez ilustra daiteke hori. Adibidez, Bartzelonan hiru bat asteko egonaldia egin behar izan zuten batean 3.000 euro inguruko gastua izan zuten, "eta hori ez dizu inork bueltatzen", dio umearen amak. Azken ospitaleratzean, berriz, 15 egun eman ditu autoan lo egiten amak Donostian, besteak beste.





# NOR GAREN ETA ZER GURA DUGUN ESATEKO: ZUTIK ETA IKUSGAI!

Espainiako Gobernuak Aretxabaletako Udala apirilaren 14rako Espainiako bandera jartzera behartzen du.

Aretxabaletan ikurrina gure ikurtzat dugu. Geuretzat duguna ez dela gurea esaten digute. Neurri horrek aretxabaletarren borondatearekiko errespetu falta adierazten du, eta askatasunez erabakitzeko eskubidearen ukapena. Jatorri askotako jendez osatutako aberria gara. Ez ditugu banderak eta koloreak gutxiesten. Are gehiago, ordezkatzen dituzten lurraldeetako ikur izatea zilegi dela deritzogu. Era berean, argi dugu nongoak garen eta zerk ordezkatzen gaituen.

Aretxabaletako Udalak herritar guztiei dei egiten die, apirilaren 3tik Aberri Egunera arte, etxeetako leiho eta balkoietan ikurrina zintzilikatzeko eta egingo diren ekimenetan parte hartzeko. (Egun horietan ikurrinak salgai egongo dira Arkupen).

## EGITARAUA

Apirilaren 3an, 19:00etan, udaletxeko atarian atzoko zein gaurko zinegotzien eta alkateen prentsaurrekoa.

Apirilaren 11n, geurea den ikurrinari omenaldia:

18:30ean plaka bat jarriko da udaletxeko fatxadan.

Ondoren, plazan, ikurrin berria igotzea, ikurrin-dantza eta bertaratutakoen artean mosaikoa osatzea.

Aretxabaletako Udala

# GEUREA, IKURRINA.

## GORA EUSKAL HERRIA! GORA IKURRINA!

Itziar Epaltza | Merkataritza eta Turismo sailburuordea

# "Geroago eta turista gehiago doa barrualdeko eskualdeetara, kultura eta ondareak erakarrita"

- Aste Santura begira plan eta esperientziak saltzeko ekimena abiatuko du Jaurlaritzak
- "Mundu mailako gero eta bisitari gehiago" datorrela-eta, horiei zuzendu nahi zaie

ENEKO AZKARATE | ARRASATE

Aste Santuko oporraldia ate joka dugu eta Eusko Jaurlaritzak plan pilotu bat jarriko du aurten abian sasoi horretan. Plan eta esperientziak eskainiko ditu turistendako ostatu, jatetxe edota turismo bulegoetan. Plan horren gainean eta Euskadira datozen bisitarien jatorri eta joeren gainean egin dugu berba harekin.

**Eusko Jaurlaritzak plan bat jarriko du abian Aste Santuan planak eta esperientziak komertzializatzeko. Zer da, hain justu ere?**

Erakunde ezberdinen eta sektorearen arteko elkarlanetik sortutako ekimena da. Sei hotelek, sei baserri turismok eta beste bost turismo bulegok eskaintza bateratua eskainiko dute Aste Santuko oporretan. Plan eta esperientziak eskainiko dituzte.

**Ze proposatuko duzue?**

Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeetan eskainiko ditugu 50 esperientzia ezberdin, turisten eskaerak aintzat hartuta aukeratutakoak. Berritasun nagusia da bidaiariekin harreman zuzena izango dugula puntu beroetan, hau da, hoteletan, baserri turismoetan eta turismo bulegoetan. Eta toki horietan eskainiko zaizkie turistei planak edo esperientziak. Toki bakoitzean izango dituzte ingurune hurbileneko planak edo esperientziak eta baita lurraldeko beste toki batzuetakoak ere. Hartara, bat-batean egin ahal izango dituzte erosketak. Turistei, gustuen arabera, egindako eskaintza da, berehala erreserba egiteko aukera ematen duena.

**Esperientzia edo plan horien artean bada Debagoienekorik?**

Bai, bada bat: Oñatin, Arantzazun, bertako Artzain Eskolan. Kasu honetan, Idiazabal jatorri izeneko gaztaren esperientzia da proposatzen dena.

**Zela egin duzue aukeraketa?**

Orain arte bisitariei egindako galdeketetan nabarmendu dituztenak, eskatu dituztenak edo gustukoen dituztenak aukeratu ditugu.

**Aste Santua ate joka dugu. Zein da aurreikuspena? Ze espero duzue?**

Jeneralean, ez ditugu aurreikuspenak egiten, datuak aztertzen ditugu. Hala, otsaila hilabete ona izan da eta erreferentzia izan daiteke. Uste dugu Aste Santuak ere emaitza positiboak emango dizkigula, batez ere kontuan hartuta aurten udatik gertuago datorrela. Halere, itxoitea da onena, ze bidaiatzeko moduak asko aldatu dira-eta. Egun, Internetez kontratatzen da asko eta azken unean, eguraldia eta beste aldagai batzuk aztertu ostean. Baina baikor gara.

**2013an turismoak gora ala behera egin zuen Euskal Autonomia Erkidegoan?**

%2ko jaitsiera izan dugu. Halere, lurraldeka, Gipuzkoak datu positiboekin amaitu du, urte ona izan da Gipuzkoarendako. Bizkaiak %2ko jaitsiera izan du. Normala da, bereziki, Espainiako turismoak duen pisuarengatik. Batez ere, Araban gertatu da jaitsiera, bereziki, hiriburuan; izan ere, Arabako Errioxak urte ona izan du.

**Espainiako turista kopurua gutxitu egin zen iaz. Hori izan da joera krisian gaudenez gero?**

Bai, bai, eta hori izan da jaitsiera horren arrazoia. Autonomia erkidego guztietan gertatu da Espainiako turismoaren jaitsiera eta geuk ere nabaritu dugu, Gipuzkoaren salbuespenarekin.

**Nazioarteko turisten kopurua hazi egin da?**

Bai, eta hori da datu positiboa. Une honetan, Euskadira datozen turisten %40 nazioartekoak dira; beste %50 Espainiatik datoz eta %10 geure barruko turismoari dagokio. Guretako oso garrantzitsua da mundu mailako turismoa, eta hor hazi nahi dugu. Krisi sasoia ezin dezakegu ahaztu eta horrek eragina dauka, bereziki, Espainiako merkatuan. Gainera, mundu mailako turistek jarduera ekonomiko gehiago sortzen dute. Pertsonako eta eguneko 80 euro gastatzen dute turistak gurean, baina mundu mailako turista bada, beste 55 euro gehiago da. Hortaz, guretako oso garrantzitsua da. Hiru arrazoirengatik da lehentasunezkoa: batetik, mundu mailan ere turista mota horrek ematen ditu datu onenak; bestetik, jende multzoa askoz ere handiagoa da eta, azkenik, jarduera ekonomiko handiagoa sortzen du.

**Non jarriko duzue indarra aurrerantzean?**

Bereziki nahiko genuke gero eta turista gehiago etortzea munduko bazter guztietatik eta hor egingo ditugu ahaleginak. Bestetik, Espainiako turismoari ere eutsi nahi diogu. Erdi eta erdi izan dadin. Frantzia, Alemania, Italia, Erresuma Batua eta Ameriketako Estatu Batuetan bakarrik, 125 milioi pertsona mugitzen dira eta horiengana heldu eta eskaintza erakargarria egitea da helburua, Euskadi aukera dezaten bidaiatzeko.

**Zeren bila datoz kanpoko turistak gurera? Ze nabarmentzen dute?**

Gurera datozenen artean, hiru turista mota daude: bata, hiriburuei lotuta, horien bila datozena, gustuko dituztelako Bilbo, Donostia eta Gasteiz, hirurak ere ezberdinak eta osagarriak eta bata bestetik gertu daudenak; tradizioa eta modernitatea ondo uztartzen dutenak. Gero, hiriburuen inguruak eta batez ere Arabar Errioxa. Eta gure gastronomia ere asko baloratzen da. Horrekin batera, gure kultura, gure ondarea, gure bereizgarriak. Hortaz, hiriburuak, etno-gastronomia, kultura eta ondarea. Lurralde txiki samarra da gurea eta oso denbora tarte laburrean izan ditzakegu esperientzia erabat ezberdinak.

**Turismo baliabide eta azpiegiturei dagokienez, zertan gaude ondo eta zer daukagu hobetzeko?**

Seinalitika daukagu hobetzeko. Esaterako, beste hizkuntza batzuk ere erabili behar dira. Bisitariek ondoen baloratzen dutena, bestetik, egiten zaion harrera da, ematen zaion tratua. Oso ondo baloratzen dute hori. Hobetzeko daukagu, era berean, ostatu hartzeko tokien kalitatea. Batez ere kontuan hartuta gure bisitariak eros-ahalmen ertain edo altukoak direla, bidaiatzera oso ohitua daudenak, kalitatea bilatzen dutenak. Interneteko azpiegituretan ere ahalegina egin behar dugu.

**Zer eskain dezake Debagoienak?**

Kultura eta ondare aberatsaz gain, gastronomia.

**Gurea bezalako barruko eskualdeak erakartzen ditu turistak?**

Bai, bai, geroago eta jende gehiago doa Debagoiena bezalakoetara. Geroago eta joera argiagoa da hiriburuak bisitatzea eta baita barruko eskualdeetatik txangoak egitea. Badaude natura ibilaldiak nahi dituztenak, jateko toki onen bila dabiltzanak, kultura eta ondarea bisitatu nahi dituztenak…

**Eusko Jaurlaritza eta diputazioak eskutik doaz turismo kontuetan?**

Plan Estrategikoa egina dugu eta bertan parte hartu dute erakunde ezberdinetako agenteek eta baita sektorekoek ere. Lehen fasean, 41 agentek hartu zuten parte; bigarrenean, beste 128k. Urratsak egin ditugu, baina asko daukagu egiteko: gobernatzeko moduan, kudeaketan, komunikazioan, promozioan… Oso inportantea da batera aritzea.



Itziar Epalza turismoaz arduratzen da Eusko Jaurlaritzan. | GOIENA

**"Euskadira datozen turisten %40 nazioartekoak dira; hor jarriko dugu indarra"**

**"Bisitariek dioskue seinalitika daukagula hobetzeko"**

**"Bisitariei eskaintzen diegun tratu ona da gure indargunea"**

**"Denbora laburrean izan ditzakegu esperientzia erabat ezberdinak hemen"**

**Elkarrizketa osoa:** eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.

## ZABALIK



**AMAGOIA LASAGABASTER**
goiena.net/komunitatea/

# Beldurra baino gogorragoa gosea

Badago Brasilen MST izeneko talde antolatu bat. *Lurrik gabeko mugimenduak* deitzen diote. Martxo amaieran gurean izan ziren eta kide baten esperientzia entzuteko pribilegioa izan nuen. Duela 30 bat urte sortu zen MST, eta ordutik, lurrik gabe dauden nekazari-herritarrak elkartu eta lurjabe handien etxaldeak okupatzen dituzte. Horrela egoten dira hilabetez eta baita urte luzez Gobernuak desjabetze prozesua egin arte. Hortik aurrera lurra komunitatean banatu eta lantzen hasten dira. Lehenengo beraien biziraupenerako eta gero bidezko merkataritzarako. Borroka molde baketsua da okupazioa, baina kontra jasaten duten biolentzia izugarria da. 1.600 erailddako dira horren adibide.

**"Mugimendu bateko kide izateak babesa eta kemena ematen du"**

MSTko arduradunari galdetu nion horrenbeste hildako egonik nola bizirauten zuen mugimenduak; jakin nahi nuen nola gainditzen zuten jendearen beldurra, nola jarraitzen zuten euren eskubideen aldeko borrokan. Hona, bi hitzetan, hark esandakoak: beldurra baino gogorragoa dela gosearekin bizitzea, eta mugimendu bateko kide izateak babesa eta kemena ematen duela. Horrez gain, beste irakasgai bat eman zidan. Okupazioan jaiotako gaztetxoei hasieratik ematen diete euren egoeraren berri. Hortaz, pobreak, miserableak eta errudunak direla pentsatuz hazi beharrean, bidezko borroka bateko protagonistak direla kontziente izanik hezten dituzte.

Gurean, beharbada, gauzak ez daude Brasilen besteko gaizki. Baina bada gorriak pasatzen dabilenik ere. Hipoteka ezin ordaindu, lanik ez, soldata miserableak… eta hori guztia etxean, isilean, bizi dute, gainera, askok.

Bada garaia guk ere planto egiteko. Herritarrak ez gara bizi dugun egoera honen errudun. 2009an kapitalismoa birsortu eta bankuak epaitu behar zirela entzun genuen. Bost urte geroago beraien zor izugarria ordaintzen gabiltza guztiok. Bankuak erreskatatu eta herritarrak ito, horixe politikarien borondatea. Antolatu eta borrokatu, hor gakoa. Gure esku dago!

## USTEAK USTE

**UBANE MADERA** | umadera@goiena.com

# Gaixoen familiendako babesa

Etxean gaixotasun gogorren bat tokatzean konturatzen gara zela eragiten duen horrek baita ingurukoengan ere. Sarri, inguruko horiek gaixotzeraino. Ez legoke esan beharrik gaixoa zaintzeko zaintzailea(k) ondo egotea berebizikoa dela, eta gehienetan hori norberaren esku ez dagoenez, kanpoko laguntza beharrezkoa dela. Baina gure gizartean (batez ere krisiaren gizarte honetan) hori horrela ez izatez gainera, gero eta urrunago ikusten da errealitateari buelta emateko aukera. Are gehiago ikusten denean gaixoak eurak (batez ere batzuk) zaintzeko geroago eta baliabide gutxiago bideratzen direla. Gizarte bihozgabea da kide behar handienak dituztenekin kezkatzen ez dena.

## MARRAZKIZ

**ALEX UGALDE** | goiena.net/komunitatea/




## HANDIK ETA HEMENDIK

# Emakumeak politikan bai, baina…

**Marijo Deogracias**
blogak.goiena.net/marijo/

Emakumeak politikatik igaro egiten dira, gizonak, aldiz, geratu.

Ez da hitzez hitzezko zita, baina PSOEko ministroa izandako Cristina Alberdik azaldu zuen 2001ean kaleratutako *El poder es cosa de hombres: memorias políticas* liburuan. Gemma Gonzalez de Txabarri legebiltzarkide ohi jeltzaleari entzun nion lehenengoz ideia hori, artean Legebiltzarrean lanean hasi berri nintzela. VIII. Legegintzaldi hartan 17 batzorde osatu ziren Legebiltzarrean eta horietako 11n emakume batek agintzen zuen eta horietako bik bakarrik segitzen dute zerrendetan, Arantza Quirogak eta Izaskun Bilbaok. Hurrengo legebiltzandian, IX.ean, gutxiago izan ziren lehendakaritza emakume batek hartu zuen batzordeak, gehiago osatu ziren arren: 19 batzordetatik 10en lehendakaritza hartu zuten emakume legebiltzarkideek, horietako 4k segitzen dute zerrendetan, Leire Corrales, Natalia Rojo, Garbiñe Mendizabal eta Laura Garridok Oraingo legebiltzaldian 14 batzorde eratu dira; gutxiago dira, ez delako gai zehatz baten inguruan batzorde berezirik eratu, aurrekoetan gertatu bezala. Baina gutxiago izan arren, 10etako batzordeburuak emakumeak dira. Beraz, badirudi, legebiltzarreko organoetan, gutxienez, parekidetasunaren proportzioa gainditu egiten dutela emakumeek. Orduan, zergatik dira, era honetakoak ikusi behar izaten ditugun argazkirik gehienak?

A bai! Talde parlamentarioetako bozeramaileekin (guztiak gizonezkoak, Laura Mintegi izan ezik) eta pisu politikoa duten legebiltzarkideekin osatu dutelako (guztiak gizonezkoak) lan taldea. Berez ez da batzorde bat, baizik eta lan talde bat, baina duen garrantziagatik are eta esanguratsuagoa iruditzen zait osaketa.

Antzeko pentsamendua izan nuen 2008an, blogean ikusi dudanez. Ez dira gauzak aldatzen. Politika gizonezkoen kontua da, emakumeak pasatu egiten dira.

# Zozobikotea

**Anjel Lertxundi Esnal**
berria.info/blogak/lertxundi/

Zozomikoteetan (martxoaren akaberan eta apirilaren hasieran) eguraldi txarra egingo duen ustea baitago, gerra zibila lehertzerainoko ekaitza iragarri ziguten herenegun, Francok gerraren akabera iragarri zuen egunaren bezperan: *en el día de hoy, cautivo y desarmado el Ejército Rojo*… Madrileko apezpikuak sakristia iluneko ispilu handian begiratu zuenean hasi zen guztia: Rouco eta Varela ikusi zituen bertan, zozobikote baten gisa, isil-isilik eta elkarri begiratu ere egin gabe, muturtuta akaso, seko aspertuta agian. Brastakoan, argi zapart sekulako batek jo zuen sakristia eta danbatekoa ere entzun zen. Tximista lehertu zen tokian Roucok eliza ikusi zuen erretzen; trumoia entzun zen unean Varelari gerra zibila iruditu zitzaion. Baina Apezpikuak munduari adierazten zion bitartean ispiluan ikusitakoa, Roucok eta Varelak elkarri begiratu gabe segitzen zuten, muturtuta akaso, aspertuta agian, zozobikoteekin ez dago jakiterik…

goiena"
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Aitor Izagirre
**Zuzendari nagusia** Iban Arantzabal

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Ubane Madera
**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
**Argazkilaria** Imanol Soriano
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate.
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia.
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA**
**ARRASATE 20500**:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

**ORDEZKARITZA**
**ARETXABALETA 20550**:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 20.100 ale
**Difusioa:** 19.951 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia
Arrasateko Udala
Bergarako Udala
Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala
Eskoriatzako Udala
Antzuolako Udala
Aramaioko Udala
Elgetako Udala
Leintz Gatzagako Udala

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

# GUTUNAK

**Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.**

Gutunarekin batera bidali beharrekoak dira: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa.
Gutuna helarazteko bideak dira: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

## Pobrezia energetikoa

**Josu Garitaonandia**
(Equo Bergara)
Bergara

Krisiagatik soldatak baxuagoak dira, energia karuagoa (elektrizitatea azken 10 urteetan %90 igo da, pertsonen ongizatea eta enpresen konpetitibitatea txartuz) eta etxebizitza energetikoki eskasak; hiru faktore hauen ondorioz, gero eta gehiago dira beraien etxebizitzak era egokian edukitzeko –udan hozteko, neguan berotzeko, ur beroa edukitzeko, janaria berotzeko...– arazoak dituztenak, energia-gastua ezin dutelako ordaindu; pobretasun maila berri honi pobrezia energetikoa deritzo.

Osasun arazoak ekar ditzake, batez ere, pertsona nagusiengan; talde horren heriotza tasak igo egiten dira eguraldi hotza edo bero zakarra egiten duenean. Estatuan %15 inguru dira egoera hau jasaten dutenak; Europatik CESEk (Europako Batzorde Ekonomiko eta Soziala) aholkatzen du energia deszentralizatu egin behar dela, energia berriztagarriak erabili. Etxebizitza guztiek behar duten energia sortzeko ahalmena izango balute, ez zen egongo inor pobrezia egoera honetan. Legeak gutxi batzuen interesen alde aldatzen dituzte, energia berriztagarrien erabilerari oztopoak jarrita; Euskal Herrian haize-erroten munduan lan egiten duten lantegi askoren etorkizuna kolokan jarri dute azken lege aldaketa hauek. Alemanian gero eta energia berriztagarri gehiago sortzen dute, eguzkiarena barne, eta hemen gero eta gutxiago, eguzki eta haizetoki bikainak edukita.

Egoera honi aurre egiteko, Eredu Energetiko Berri Baterako plataformatik aholkatzen dute kooperatiba energetikoei energia erostea eta daukagun energia potentzia txikitzea.

Informazio gehiago: *www.nuevomodeloenergetico.org/*.

## Hedapen baztertzailea

**Joxemari Muxika Arrieta**
Arrasate

Antzuolako ELAY enpresak CERNerako egindako piezak direla-eta Debagoiena munduko zientziaren erakusleiho bihurtzekotan da Jakiunde Zientzia, Arte eta Letren Herriko akademiaren eskutik. Hori irakurri dut GOIENAn.

Goragarria da CERNeko detektagailu eta aparailu zientifikoentzako egin dituzten piezak direla eta "gizartearen ongizaterako" egindako kontribuzio teknologiko handiagatik ELAYko langileen "lana eta grina" txalotzea. Jesus Mari Ugalde Jakiundeko presidenteak dioenez, urteak daramatzate "punta-punta-puntako" teknologia erabiliz piezak egiten. Onenak omen direnez, zorionak ELAYko kide guztiei.

Harridura sortu didana ospakizunerako antolatu diren hitzaldiak gaztelaniaz direla jakitea izan da. Zein arrazoi du Jakiundek hitzaldiak gaztelaniaz emateko? Ez al da euskara "la sublime utilidad de la ciencia inutil" herritarren artean hedatzeko gaitasuna duen hizkuntza bat? Eta hau euskaraz harremanak izateko esfortzua egiten duen eta euskaraz funtzionatzen duen enpresa batean. Non eta Debagoienean euskaldunenetakoak diren herrietan, Antzuolan eta Bergaran. Hizlaria nor izango eta Pedro Etxenike fisikaria, Jakiundeko ohorezko presidentea eta euskaldun ezaguna dena.

Estatuaren erreformatzaile Adolfo Suarez-ek 1980an "fisika nuklearra euskaraz irakastea ezinezkoa da" zioen, eta Etxenikek ateraldi horri bi baldintza betez gero posible zela erantzun zion, fisika jakitea eta euskara jakitea. Zerbait aldatu ote da orduz gero? Gainera, kasu honetan ez gara irakasteari buruz ari, hedapenari buruz baizik. Zientzia gaiak euskaraz komunikatu daitezke edo ez?

Ospakizunean Jakiundek euskaldun jendea, euskara hizkuntza duen komunitatea, baztertzeko bidea hautatu du. Ez al dira nahikoa estatuaren instituzioak euskararen bazterketa bultzatzeko?

## Inkisizioaren hamaika aurpegi

**Ibai Redondo**
(Debagoieneko Sortu)
Debagoiena

"Herria da gorputza, hizkuntza bihotza". Mikel Laboak ez zuen arrazoirik falta, horregatik estatuek herria erasotzeko euskara erasotzen dute eta, gainera, gure gorputzen gainean ere erabaki nahi dute.

Azkenaldian hamaika eraso etorri dira Madril aldetik, Torquemada berriak, inkisizioaren jarraitzaileak dira Urkijo, Gallardon, Wert eta konpainia: Espainiako banderaren inposaketa, abortuaren legea, hezkuntza erreforma, lan erreforma, pentsioen erreforma, udaletako euskara planen aurkakoa. Erasoen aurrean kalean erantzun eta gurea eraikitzen saiatzen ari gara. Ez dago batere gaizki. Horrela egin dugu Espainiako banderaren inposaketaren eta abortuaren legearen aurka; lan eta pentsioen erreformaren aurrean; LOMCErekin; udaletako euskara planen judizializazioaren harira; etab. Abestiak dioen bezala, *Ezaren gudaz baietza sortuz,* ikasleak, langileak, langabeak, pentsionistak, emakumeak... Baina nahikoa al da ezetza eta mobilizazioarekin? Mobilizazio iraunkorra eta masiboa ezinbestekoa da eskubideak lortzeko, baina, horrekin batera nahi dugun hori eraikitzen joan behar da egunero, kaletik, ikastetxeetatik, lantokietatik eta instituzioetatik euskal herri feminista, euskalduna, gure hezkuntza sistema, gorria eta berdea. Eta nahikoa al da erasoaldi honen aurrean? Gure ustez, ezinbestekoa da erantzuna eta eraikuntza, baina beste urrats bat emateko garaia da, Madrilen inposaketaren aurrean planto egin eta desobedientzia egiteko garaia iritsi da. Desobedientzia eraginkorra izan dadin masiboa eta herri babes zabalarekin egin beharra dago, ongi antolatu beharra dago. Desobedientzia zibilak ondorioak dituelako, ondo ezagutzen ditugunak: isunak, errepresioa, epaiketak, kartzela... eta garaipenak, intsumisioa edo Garoñarena bezalakoak. Eta desobedientzia, mobilizazioa eta nazio eraikuntza nahikoa al dira inposaketak gelditu eta nahi dugun herria eraikitzeko? Sorturen ustez, ezinbestekoak dira aurrera egiteko, baina euskal herritarrok gure estatua behar dugu inork kanpotik ezer ez inposatzeko, eta gurea, akats eta guzti eraikitzeko. Guk aldarrikatzen dugun euskal estatua herritarren estatua izango da, eskubide ekonomiko, sozial, politiko eta kulturalak bermatuko dituena. Zalantzarik gabe, aurrera goaz, giroa berotzen ari da, indarrak metatzen eta herri babesa antolatzen. Catalunyarrek, Eskoziarrek, Quebektarrek edo Maputxeek bezala, "mundu berri bat nahi dugu, herri bakoitzak beretik emanez". Asteburu honetan aukera bikaina dugu erasoei erantzun eta euskaraz bizi nahi dugula aldarrikatzeko Gasteizen; aukera berbera eta ez arrazoi gutxiago Iruñera joan eta abortuaren legeari ezetz esateko. Euskal Herriko kaleetan elkar ikusiko dugu.

## Koherentziaren ariketa inposaketaren auzian

**Mikel Uribetxebarria eta Haritz Solupe**
(Aretxabaletako EAJko udal zinegotziak)
Aretxabaleta

EAJk ez du parte hartuko bandera espainola jartzeko erabakiaren inguruan Aretxabaletako Udalak antolatu dituen ekitaldietan.

1-Gure ikurra, ikur bakarra, Ikurrina da. EAJren fundatzaile Sabino Aranak bere anaia Luisekin batera sortutako ikurra, eta Euskal Herri osoak bere egin zuena.

2-Espainiar bandera ez da gurea, ez aretxabaletarrona, ez eta euskal herritarrona; eta beronen inposaketa beti salatu dugu eta salatzen jarraituko dugu.

3-Eta hala, orain artean egin dugun bezala, koherentziaz eta leialtasunez jokatuko dugu zigor mehatxupean bandera jartzeko agindua betetzera behartua izan den alkate eta udal gobernuarekiko.

4-Espainiako bandera ezarritako sinboloa da gure erakundean; bai orain, zein iragan hurbilean ere. Eta ezinbestez, gogora ekarri behar ditugu Madrilgo erabakiak derrigorrez betetzeagatik aurreko legealdi guztietan ez-ulertuak eta irainduak izan diren Aretxabaletako hautetsi ohi guztiak. Hala eskatu diegu udalbatzarreko gainontzeko alderdi politikoei, Bilduri bereziki, iragana beronen onarpenetik gainditzeko aukera eskainiz. Ezetza jaso dugu.

5-Egoera berean aurkitu diren hautetsiei babesa ukatzea ez da koherentea; are gutxiago, irainduak izan garen alderdioi babesa eskatuta. Alegia, ez da koherentea egoera berdinetan udal agintariak iraintzetik, herritar guztion babesa eskatzera pasa izana inolako gogoeta eta autokritikarik egin gabe. Gogoratu besterik ez dago herri honetan bandera espainol inposatua gainontzeko alderdi politikoen babesik gabe udaletik kendu zuen Alkatea EAJko Jesus Mari Herrasti izan zela, 1983an guardia zibilek armak eskuan zituztela Ikurrina kendu eta bandera espainola udalean jarri zutenean.

6-Beraz, lehen eta bigarren mailako herritarrak nahi ez ditugunez, koherente jokatuz, erabaki berbera betetzera derrigortuak izan diren herriko hautetsiak babesten ez dituen Aretxabaletako Udalak antolatu dituen banderaren inguruko ekitaldiak ez ditugu babestuko.

7-Ikurrina gure Aberriaren ikur nagusia dugulako, aurtengo Aberri Egunean, apirilaren 20an, etxeetako leiho eta balkoi guztietan Ikurrinak jartzeko dei egiten diegu aretxabaletarrei. Herritar norbanako gisa bihotzean daramagun Ikurrinari egin diezaiokegun omenaldi onena.

## Beste inposaketa "demokratiko" bat

**Felis Beltran de Heredia**
Aretxabaleta

Espainiako gobernuak, auzitegiak, epaitegiak… hain zaila da ulertzea euskal herritarrok ez garela espainiar sentitzen, ez dugula espainiar izan nahi eta lotsarazi egiten gaituztela espainiartzat hartuta?

Sarri entzuten dira *memoria historiko* berbak, baina oroimenak ez du hutsik egiten ekintza latzak oroitzerakoan; Espainiako estatuak historian zehar Euskal Herrian ezarritako inposaketa eta injustizia guztiak ezin dira ahaztu.

Gure herriko udaletxean Espainiako bandera derrigorrez jarri behar izatea umiliazioa da askorendako, eta eurek badakite. Herriko Plazara joan eta udaletxean bandera hori balkoian ikustea… pentsatuta bakarrik nazka sorrarazten dit. Bakoitzak berea du eta gurea ikurrina da. Zergatik ez errespetatu hori?

Espainiako agintariek euren boterea, euren indarra erabiltzen dute gure herriaren aurka egiteko, euren nahiak inposatzeko, eta aldi berean "demokratiko" deitzen diote euren buruari; lotsagabeak, hori bai. Faxismoaren ondorengo kuadrilla, euren "terrorismorik" ez dutenean ez dakite zertaz berba egin eta zelan zirikatu.

Lotsagarria da, baina ezin da ezer egin, "demokrazia" dontsu horrekin zigortzen gaituztelako behin eta berriz. Hala, ba, geure etxea erabiliko dugu horri aurre egiteko. Balkoietan ikurrinak jarriko ditugu zintzilik, jakinarazteko zein den geurea. Eta udaletxean jartzera derrigortu diguten horri begiratu ere ez.

Aretxabaletarrok, gora bihotzak! Ikurrina bai; espainola, Euskal Herrian, ez.

## DUELA 10 URTE

2004-04-02

### Aterbe landetxea, inauguratuta

Lau urtean baserria berritzeko obretan ibili ostean, 2004ko martxoaren 27an inauguratu zuten Leintz Gatzagako errepide zaharraren bazterrean dagoen Aterbe jatetxea. Maria Angeles Martin granadarrak eta Francisco Azkona arrasatearrak zabaldu zuten. Lau logela bikoitz egokitu zituzten –bakoitza bainugelarekin–. Eta bitxikeria moduan, atseden hartzeko bi gela berezi ere bai: sauna eta bainu turkiarra.



Aterbe landetxearen sarrera. | GOIENA

2004-03-12

### Mendiko bizikleta kategoria

Dorletako Ama txirrindulari eskolako taldeak berritasuna aurkeztu zuen: mendiko bizikleta kategoriako taldea. Horiek Euskadiko Openeko lasterketan parte hartu zuten. Mendiko bizikleta kategoriaz gainera, gazte, kadete eta infantil mailetako taldeak ere osatu zituen Leintz Gatzagako txirrindulari elkarteak. Eta ohiturari jarraituz, lore eskaintza egin zioten Ama Birjinari elkarteko 22 txirrindularik.

## DUELA 5 URTE

2009-03-06

### 400.000 euro pasa

Orain dela bost urte 413.984 euroko aurrekontua onartu zuen udalbatzak udal jardunerako, Eusebio Villar alkate zela. Diru kopuru horretatik 33.000 euro bideratu zituzten inbertsioetarako: 15.000 euro lursail bat erosteko erabili gura zituzten eta beste horrenbeste baserrietara doazen bideetako lanetarako.

## HERRITARRAK

LEINTZ GATZAGA

**Xabier Jausoro** Lana dela-eta du bizileku Leintz Gatzaga, eta bertakoen artean ezagunenen artean dago Jausoro, eguna kalean ematen du-eta, neguan, udaberrian, udan, udazkenean... | UBANE MADERA

# "Astean behin garbitzen dut Leintz Gatzaga; bakarrik erratza erabilita, gainera"


Xabier Jausoro aitzurrarekin lanean. | UBANE MADERA

Xabier Jausoro (Aretxabaleta, 1972) Leintz Gatzagako udal langilea da orain dela 12 urte. Ezagun askoa da herrian, besteak beste, kalean ordu asko ematen dituelako Udaleko zereginen ondorioz. Eta horrez gainera, Leintz Gatzagan bizi delako azken urteotan: "Aretxabaletan bizi nintzen hemen lanean hasi nintzenean, baina udal langile hasi eta zazpi urtera hona etorri nintzen bizi izatera", kontatu du.

**Etxerako moduko mutila ei zara...**
Ez dakit, ba! Hori etxean esan beharko dute...

**Udaletxean, baina, denetik egitea tokatzen zaizula kontatu didate...**
Bai, ez daukat zeregin zehatzik, herrian irteten diren lanak egin behar izaten ditut.

**Hala ere, zeregin finko batzuk badituzu, ala?**
Sasi edo sastraka garbiketak, kale garbiketa, norbait hiltzen denean hura enterratzea, argi kontagailuak irakurtzea, elurra kentzea, zangak (lubakiak) egitea, igeltsero lanak, arotz lanak...

**Hori guztiori egiten bazenekien etorri aurretik?**
Ez, ez, ez... egin ahala ikasi dut; Juan Maria Makazaga *Pekeño*-k asko irakatsi zidan, lehen nire postuan zebilenak. Harekin hasi nintzen.

**Orain, adibidez, udaberrian, zein da zure egiteko nagusia?**
Sasi garbiketak. Tokatzen da herria sastrakaz garbitzea, museo inguruak txukun mantentzea, baserrietako bideak garbitzea, trenbidea... Hamar bat kilometro -edo sasiz garbitzen ditudala esango nuke.

**Ba, hasi eta bukatu orduko, berriro hastea tokatuko zaizu, ala?**
Urtean behin bakarrik egiten da garbiketa mota hori.

**Zure lan ugari guztien artean zein da gehien gustatzen zaizuna?**
Ba... gutxien jendeari lur ematea, duda barik. [Barre] Eta gehien...ba begira, sasi-garbiketa gustatzen zait, baina, jakina, hori ere zenbat eta denbora luzaroagoan egin, orduan eta gutxiago gustatzen zait... Gauza guztiekin moduan, kokoteraino bukatzen du batek.

**Txakur-kakak batzea ere tokatzen zaizu?**
Bai, astean herria garbitzen dudanean jaso egin behar izaten ditut. Eta bestela, ikusiz gero, baita ere.

**Leintz Gatzagan ere halako asko egoten dira, ala?**
Bai; dena den, azken hilabeteetan -edo gutxiago daudela esango nuke; herrian gai horren gaineko batzarrak egin direnez...

> **"Hamar bat kilometro garbitzen ditut, sasiz edo sastrakaz"**

> **"Gutxien gustatzen zaidan zeregina da jendeari lur ematea"**

**Zer esango zenieke batzen ez dituzten horiei?**
Etxera eramateko. [Barre]

**Bestela, orokorrean, Gatzaga garbia dela esango zenuke?**
Bai. Astean behin bakarrik garbitzen da herria.

**Zein da zure garbiketa eremua?**
Kaleak; erratza erabilita, gainera. Hemen ez dago makinarik.

**Sekula aurkitu duzun gauzarik onena da...**
Ba, behin ziza poltsa bat aurkitu nuen. Poz handia hartu nuen!

**Eta, berriz, zer motatako zikinkeria izaten duzue Gatzagan?**
Paperak eta zigarrokinak gehien. Orain taberna barruetan ezin denez erre...

**Egun osoa kalean ematen duzula -eta, zein da Gatzagaren egoera orokorra?**
Goitik behera datorren kaleko harlauzak aspaldikoak dira-eta, hortxe du ahultasuna herriak. Mugituta, altxatuta... daude, urte asko dituzte-eta.

**Zure esku balego, zer egingo zenuke herriaren mesedetan?**
Bidea konpondu. Lehen esandakoa. Eta autobus zerbitzua hobetu. Autobus gehiago behar dira. Goizean pasatzen da bat 08:30ean eta arratsaldera arte ez dago besterik, bueltan etortzeko. Beraz, ezin da autobusez ibili. Eskoriatzarainokoak bakarrik eskatzen ditugu, gainera.

**Edozelan ere, Aretxabaletatik Gatzagara etorri, eta hemen geratu zara; bada, zer-nolakoa da Gatzaga bizi izateko?**
Trankila. Lasaitasun handia dauka, eta beste zerbait behar bada –zalaparta, zarata...–, Aretxabaletara, Eskoriatzara, Arrasatera, Gasteizera... joan eta kito. Lasaitasuna, berriz, Aretxabaletan biziz gero, edo beste edozein herritan, ezin da lortu.

**Gaztainuzketako txaboletan lanean ibilitakoa ere bazara, ezta?**
Bai, bi urte eta erdian. Neu eta emaztea [Amaia Olabe].

**Zelako esperientzia izan zen?**
Txarra. Oso lotua izan zen. Sekula ibili barik nenbilen eta... Egun osoa lanean ibili behar izaten da halakoetan.

### NIRE HERRIAN

**:) HERRIAREN LASAITASUNA**

Duda barik, Leintz Gatzagak bizi izateko eskaintzen duen lasaitasuna da gehien gustatzen zaidana; adibidez, luxu hutsa da goizean esnatu eta entzuten dudan lehen soinua txorien kantua izatea; eta ez auto edo kamioien joan-etorriak eragindako zarata, adibidez.

**:( AUTOA HARTU BEHARRA**

Zoritxarrez, eta oraingoz behintzat, garraio publikoak ez du nahiko aukera ematen autobusez mugitzeko, ez Gasteiz aldera eta ezta Debagoien aldera ere; eta horren ondorioz, eta bestelako zerbitzu batzuen urritasuna dela-eta, Leintz Gatzagan edozer gauza egiteko autoa hartu beharra izaten dugu.

# HERRIAK

ESKORIATZA

## Psikologia, ariketa fisikoa eta elikadura, nahastuta

▶ Bigarrenez antolatutako Osasun Asteak hiru arlo horiek jorratzen ditu

▶ Bihartik hilaren 11ra bitartean askotariko ekintzak izango dira herrian

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Osasun Astea egingo dute bigarrenez Eskoriatzan. Kirol aholkulari Rosa Lasagabasterren ustez, aurrerantzean herri guztietan landuko den "ildo estrategikoa" izango da herritarren osasuna, eta, horrekin lotuta, Huhezik eta Udalak elkarlanean egitarau "potoloa" gertatu dute bihartik apirilaren 11ra bitartean.

Askotariko arloak landu gura izan dituzte aurten, eskoriatzarron parte-hartzea lagun izan dutela. Horren harira, honakoa azaldu du: "Ariketa fisiko eta elikadurarekin batera, arlo psikologikoa ere jorratu gura izan dugu; azken horren bueltan, barreterapia tailerra gertatu dugu. Jendea pozik bizi behar da. Osasuna da kontziente izatea ondo elikatu behar naizela eta ariketa fisikoa egin behar dudala, baina sufritu barik. Garrantzia eman behar diogu psikologikoki ondo egoteari".



Kirol aholkularia Osasun Astearen kartelarekin. | MIRIAN BITERI

### Desfibriladoreak erabili

Lasagabasterrek gogorarazi du etzi, domeka, Garapenerako eta Bakerako Kirolaren Nazioarteko Eguna dela eta astelehenean, Osasunaren Nazioarteko Eguna. Hori abiapuntu hartuta, askotariko ekintzak gertatu dituzte. Domekan kirolarekin lotutakoak egingo dituzte, hala nola mendi eta bizikleta irteerak eta hainbat jarduera praktikatzeko aukera. Hortik aurrerakoek osasunarekin lotura zuzenagoa dute. Besteak beste, aste osoko afariak gertatzeko tailerra, lehen sorospenei buruzko ikastaroak eta desfibriladorea erabiltzeko ikastaroa; kirol elkarteei eta kirolariei dago zuzenduta azken hori. Eskoriatzan kiroldegian eta kultura etxean dituzte desfibriladoreak, eta Kirol aholkulariaren esanetan, garrantzitsua da "herrian ditugun tresnak" erabiltzen jakitea.

> **ESANAK**
>
> **"Ondo elikatu behar naiz eta ariketa fisikoa egin behar dut, baina sufritu barik; horixe da osasuna"**
>
> ROSA LASAGABASTER | AHOLKULARIA

### Izen-ematea aurretik

DYA elkartekoek eskainiko duten euskarazko ikastaro horretan parte hartu gura dutenek aurretik eman behar dute izena honako bideak erabiliz: kiroldegira joanda, *kirolak@eskoriatza.net* postara idatzita edo 943 71 53 28 telefono zenbakira deituta. Ikastaro horretan ez ezik, aste osoko afariak gertatzeko tailerrerako plazak ere mugatuak dira, eta hortaz, interesatuek martitzena, hilak 8, baino lehen eman behar izena toki berean. Lehen sorospenei buruzko ikastaro praktikorako, ostera, *kirolak.huhezi@mondragon.edu* posta elektronikora bidali behar da mezua.

Bestalde, kalean jarritako karteletako programazioaz gain, bestelako ekintzak ere egingo dira. Gaur, esaterako, kiroldegiko bazkideei, udal langileei eta Huheziko langile eta ikasleei gutuna bidaliko zaie Osasun Astearen aurkezpena eginez. Apirilaren 7tik 11ra bitartean, gainera, mezua jasoko dute egunero aholku bat azpimarratzen. Horrez gain, aste osoan, *Zer moduz?* leloa duen kartela zintzilikatuko dute udaletxeko balkoitik.

### Zaharren egoitzara

Bestalde, eguaztenean, hilak 9, bisita berezia jasoko dute zaharren egoitzan bizi direnek. Hain justu, Risoterapia tailerra emango dutenak handik pasako dira aurretik. Azkenik, kartelak ere jarriko dituzte udaletxean, ikastetxeetan, liburutegian, Huhezin eta kiroldegian herritarren ohiturei buruzko datuak jasotzeko. Kartel horiekin batera gometxa batzuk egongo dira, norberaren ohiturak adierazteko.

### EKINTZAK, GUNEZ EGUN

**BIHAR, ZAPATUA**

**10:00 Kale-defentsari buruzko tailerra, pilotalekuan.**
▶ Gaztelaniaz da Rafa Carrieten saioa.

**ETZI, DOMEKA**

**09:00 BTT irteera plazatik**
▶ Ibilbidea: Eskoriatza, Apotzaga, Murumendiko buelta, Asensiomendi, Apotzaga, Eskoriatza.
▶ 14 urtetik gorakoendako.

**09:30 Nordic Walking Luis Ezeizatik**
▶ Eskoriatza, Aretxabaleta, Urkulu, Mendiola, Lete eta Eskoriatza.
▶ 12 urtetik gorakoendako

**Kiroldegian adin guztiendako**
▶ 16:30 Badmintona.
▶ 17:30 Dantza modernoak.
▶ 17:30 Slacklinea.

**APIRILAK 7**

**19:00 Dantza modernoak Huhezin. Sarrera librea.**

**APIRILAK 8**

**18:00 Desfibriladorea erabiltzeko ikastaroa, kultura etxean.**
▶ Kirol elkarteei eta kirolariei.

**18:45 Hitzaldia. David Spine Concept, bizkarreko minak ekiditeko metodologia berritzailea, Huhezin.**

**APIRILAK 9**

**18:30 Risoterapia tailerra, Huhezin.**

**APIRILAK 10**

**11:30-13:00 Lehen sorospenei buruzko ikastaro teorikoa** (librea).

**11:30-13:00 Lehen sorospenei buruzko ikastaro praktikoa.**
▶ Euskaraz dira Huhezin egingo diren saioak.

**18:30 Merienda osasungarria plazan.** (librea).

**19:00 Tailerra eta afaria: *Zelan antolatu asteko afarien menuak ikuspegi natural eta energetikotik?*** ▶ Erretiratuen sukaldean eskainiko du Jesus Romerok tailerra.
▶ 15 euro.

**APIRILAK 11**

**09:00-13:00 Azokan mahai informatiboa: *Goazen merkatura. Sasoiko erosketa orekatuak, erosketa zerrendaren garrantzia, zuzenean ortutik etxera.***
▶ Amaia Diaz de Monasterioren eta Jakionen eskutik.

Euskalduna
Hileta Zerbitzuak







BEILATOKIA • ETENGABEKO ZERBITZUA • LORE KOROAK
ESKELAK • TRAMITE GUZTIEN BIDERATZEA

bai euskarari
zerbitzua euskaraz

Amilaga 39, Bergara • Tel./Faxa: 943 76 12 99 • e-posta: euskalduna@harrespil.net

# Takolo-Goiru proiektua aurkeztuko du Udalak

## Apirilaren 7an eta 8an erakusteka egongo da Kulturateko areto nagusian

**MIKEL ARREGI** | ARRASATE

Etorkizuneko Arrasatek izango duen mugikortasun eredua herritarrei azaldu nahi die Udalak. Bide horretan beste pauso bat emango du datorren astean, eta, Takolo-Goiru arteko errepide zatirako duen proiektua azaltzeko, erakusketa eta hitzaldi saio bikoitza izango dira. Kulturateko areto nagusian, proiektu horren nondik norakoak azalduko dituen plano sorta erakusgai izateaz aparte, Hirigintza zinegotzi Joxe Etxeberriak eta arlo horretako teknikaribur u Juan Antonio Urdangarinek xehetasunak azalduko dizkiete Kulturaten batzen diren bizilagunei.

Takolo eta Goiru arteko proiektuak orain arte Foru Aldundiaren esku izan den GI-2620 errepidean eragin nahi du, Takoloko biribilgunean hasi eta Uribe auzora bitartean. Joan den urtarrilaren 10ean Foru Aldundiak eta Arrasateko Udalak hitzarmena sinatu zuten, eta, akordio horren baitan, Udalak egoera kaskarrean dagoen errepidearen gaineko eskumena hartu zuen. Diputazioak 958.000 euro ordaindu zizkion Arrasateri errepidea egoera onean eskualdatzeko obligazioaren ordez; eta jabetza eskuratu ondoren, Takolo-Goirurako prest duen proiektua martxan jarriko du Udalak orain.

### Erakusketa eta hitzaldia

Proiektu horrek herriko "mugikortasuna hobetzen jarraitzeko" helburua daukala dio Udalak. "Proiektu hau hain garrantzitsua izanik, pentsatzen dugu oso interesgarria dela arrasatear guztiek berau ezagutzea", dio Udalak banatu duen oharrak.

Helburu horrekin, Takolo -Goiru proiektua azalduko duten planoen erakusketa izango da Kulturateko areto nagusian datorren astelehenean eta martitzenean, 11:00etatik 13:00etara goizez eta 17:00etatik 20:00etara arratsaldez. Udaleko Hirigintza alorreko arduradunek, berriz, 19:00etan egingo dituzte herritarren aurreko azalpen saioak.

Udalak aurreratu duenez, "azalpen dinamikoa" emango zaie Kulturateko saio bikoitzera joaten diren herritarrei. "Erakusketarako erabiliko diren paneletan zehar ibilbidea" egingo dute, eta saio amaieran proiektuari buruzko "ekarpenak, galderak, eta sentsazioak konpartitzeko" tartea zabalduko dute.

### Bidegorriak

Asteleheneko eta martitzeneko saio bikoitzean, mugikortasunaren aldetik Takolo-Goiru proiektuak izango duen garrantzia azalduko dute udal arduradunek. Gune horretarako, autoen presentzia oinezko eta bizikletenekin ordezkatzea espero du Udalak.

Horren harira, erakusketaren panel batek etorkizunean Arrasaten izango diren bidegorri sarea zein izango den azalduko du. Udalak dioenez, Hirigintza arduradunek mugikortasun alorrean dauzkaten proiektuei buruzko azalpenak emango dituzte.

Eta, bidegorrien harira, Udalak Etxaluze eta Musakola lotuko dituen bidegorriaren azterketa egiteko lehiaketa zabaldu berri du aste honetan.



Udala plaza inguruan eragina izango du proiektu horrek. | MIKEL ARREGI


## Kontxi Tamayo
Dermatologoa

# "Orbanak ezabatzeko laser tratamendua udaberrian ere egin daiteke"

Emakume zein gizonezkoei eragiten diete eguzkiaren ondorioz adinarekin azalean agertzen diren orbanek. Bada, horiek kendu egiten ditu Q-Switched pigmentu laserrarekin Oñatin kontsulta duen Kontxi Tamayo dermatologoak.



Kontxi Tamayo dermatologoa.

**Noiz hasten dira orban mota horiek azaltzen?**
50-60 urte bitartean, eta bereziki airean dauden gorputz ataletan: aurpegian, paparrean, eskugainetan, sorbaldetan... bizitzan eguzki ordu gehien jasotzen dituzten guneetan, alegia. Orban horiek, batez ere, azal zuridun pertsonengan agertzen dira, eguzki-erredurak jasan dituzten pertsonengan, eta ia inoiz beltzaran jartzen ez direnengan.

**Zelakoak dira?**
Lauak dira, eta horixkak, marroi argiak edo marroi ilunak izan daitezke, borobil itxurakoak, eta txikiak, normalean.

**Mota horretako orban guztiak ken daitezke?**
Dermatologian egoten den kontsulta-gairik ohikoena da orban horiena, batez ere, emakumeen artean. Normalean, onberak dira, baina kentzeko gaiztoak ez direla jakin behar egin da. Beraz, garrantzitsua da dermatologoarengana joatea aldez aurretik.

**Tratamendua mingarria da?**
Oso emaitza onak ematen dituen Q-Switched pigmentu laserrarekin kentzen dira mota horretako orbanak. Min txikia egiten du tratamenduak, gaixoari traba handirik ez dio egiten eta ez du anestesiarik behar. Tratamenduaren ostean zarakar (kostra) txiki batzuk azaltzen dira, 10-15 egunen ostean jausi egingo direnak.

**Edozein momentutan ken daitezke?**
Oso garrantzitsua da tratamendua udazkenean, neguan edo udaberri hasieran egitea, azala beltzaran egon ez dadin. Eta tratamendua egin ostean, eguzkitik babesteko neurriak hartzea oso garrantzitsua da.

**Eta badago prebenitzerik?**
Ba, eguzkia eta eguzkia hartzeko kabinak saihestea eta, horrez gain, eguzkitik babesteko FPS-30 edo handiagoa duten kremak erabiltzea egunero.

DERMATOLOGIA LASER
**Concepción Tamayo dk.**

Atzeko kalea 6, behea
OÑATI
Tel. 943 71 61 82 / 620 12 48 43.



RPS: 6/14.

- **Q-S LASERRA:** azaleko orbanak eta tatuajeak kentzeko tratamendua.
- **LASER BASKULARRA:** aurpegiko zaintxoak, armiarma baskularrak eta errubi angiomak kentzeko.
- **FOTOFINDERRA:** Azken berrikuntza! Orbanen kontrol digitala egiteko ekipamendua eta melanomen detekzio goiztiarra.




Azken urteetan gora egin du terraza kopuruak. | M.A

# Terrazen gaineko erreklamazioak aurkeztu dituzte zenbait tabernak

**M.A** | ARRASATE

Udalak aurtengo terraza denboraldirako ezarri dituen azalera neurketarako irizpideak direla -eta, zenbait erreklamazio jarri dituzte herriko tabernek. Aurten, lurzoru publikoan mahai-aulkiak jartzeko neurketa irizpide berriak ezarri nahi izan ditu Udalak, terrazen okupazioaren azalera benetan okupatzen denera hurbiltzeko asmoz.

Irizpide berri horiek ezarri ostean, terrazentzat baimenak banatu ditu Udalak, eta taberna askok ikusi dute tasak asko igo zaizkiela. Hori dela eta, tabernariek erreklamazioak aurkeztu dituzte, eta Udalak azalera neurketarako erabili dituen irizpideak berriro aztertu ditu. Erreklamazioek "egokitu diren irizpide berriak era zuzenagoan zehaztera" eraman dute Udala, eta, horren ondorioz, neurrietan zuzenketak egin dituzte.

### Datorren urtetik aurrera

Orain arte terrazek izan duten presio fiskala mantendu nahi du Udalak orain, nahiz eta neurketa berriek tasen igoera ekarriko duten ondorio moduan.

Igoera hori, baina, datorren urtean gertatuko da. Tabernek iaz ordaindu zuten kopuru bera ordaindu beharko dute oraingoan, eta Udalak 2015eko baimenetan azalera neurtzeko irizpide berriak ezarriko ditu.

**Montse Velasco** | Sexologia Zerbitzuko hezitzailea

# "Gurasoendako tabu izaten jarraitzen du sexualitateak"

'Sexualitate aske eta osasuntsu baterako oinarriak lantzen' izenburupean, haur eta gazteentzako gurasoei zuzendutako saioak egingo dituzte apirilean

**MIKEL ARREGI** | ARRASATE

Udaleko Prebentzio Zerbitzuak sexualitatearen inguruko doako hainbat saio antolatu ditu 0-18 urte arteko seme-alabak dituzten gurasoentzat. Saioak Kulturateko Loramendi gelan izango dira, euskaraz zein gazteleraz.

**Ze helburu dituzte jardunaldiek?**
Helburu hirukoitza izango dute: alde batetik, gurasoak haur eta gazteen sexualitatera hurbiltzeko ahalegina egingo dugu; bestetik, sexualitate osasuntsu baten beharra azpimarratuko diegu; eta azkenik, sexu hezkuntzak duen garrantziaz jardungo dugu.

**Zergatik aukeratu duzue *Sexualitate aske eta osasuntsu baten alde* izenburua?**
Izen horrekin adin tarte guztiak batu nahi ditugu. Sexualitatea aske, askatasunez bizi izateko daukagun eskubideagatik; eta osasuna, sexualitatea osasunez bizi behar dugulako. Ez bakarrik gaixotasun sexualengatik, osasun mentala ere azpimarratu behar dugu, sexualitatea modu sano baten bizi behar baitugu zoriontsu izateko. Gurasoei esan behar zaie beraien seme-alaben heziketaren parte oso garrantzitsua dela sexualitatearena.

**Zer-nolako zalantzekin etortzen zaizkizue gurasoak halakoetan?**
Adinen arabera, zalantzak desberdinak izan ohi dira. 0-6 urte arteko gurasoen zalantzak, adibidez, etxean ikusten dituzten jarrerekin lotuta joaten dira.

> **"Adinen arabera gurasoen zalantzak ere desberdinak izan ohi dira"**

Esate baterako, haurrak genitalak etxeko sofaren aurka igurtzen dituela ikusten du guraso batek, eta horrek zalantzak sortzen dizkio: "Zertan ibiliko da umea?", galdetzen dute. "Normala da?". Guk "normal" hitz hori ekidin egiten dugu, baina gurasoek beti planteatzen diguten zerbait da. 7-12 urte arteko haurretan, berriz, sexu identitatearen inguruan hitz egingo dugu; eta 13-18 urteko adin tartean sexu identitateaz.

**Sexualitateak tabu izaten jarraitzen du oraindik gurasoen artean?**
Guraso eta gizartearentzako tabu izaten jarraitzen du sexualitateak, zalantzarik ez dago. Izan ere, sexualitateari buruz hitz egiterakoan, hizketaldiak brometan hasten ditugu. Sexualitateari buruz serio hitz egiteko, berriz, mugak ditugu; lagunekin, senideekin... asko kostatzen zaigu sexualitateaz hitz egitea.



Montse Velasco bere bulegoko sarreran. | MIKEL ARREGI

# Amiantoa kentzen Polmetasa bota aurretik

Martitzenean hasi zituen Amianto y Gestion enpresak Polmetasa zaharrean dauden amiantozko uralita-xaflak kentzeko lanak. Pieza horiek oso toxikoak dira, eta segurtasun neurri zorrotzen artean egin dituzte lanok. Bada, amianto xaflak kendu ostean, datorren astelehenean hasiko dituzte, azkenean ere, San Andres auzoan dagoen fabrika zaharra botatzeko lanak. Lehenengo, bulegoak eta gerentearen etxea botako dituzte.



JAGOBA DOMINGO

# Marrazki lehiaketa antolatu dute Bizipoz jaialdira begira

Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleek datorren apirilaren 9a arte dute lanak aurkezteko

**M.A** | ARRASATE

Datorren irailaren 21ean egingo den Bizipoz jaialdiaren aitzakian marrazki lehiaketa antolatu dute. Antolatzaileek jai horretako logotipoa aukeratu nahi dute lehiaketara aurkeztuko diren lanen artean, eta, horretarako, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleen marrazkiak batu nahi dituzte.

Bizipoz jaialdiko sustatzaileek esan dutenez, marrazkiak *Bizipozaren jaia 2014* esaldia eraman beharko du bere baitan; eta bizipozetik sortzen den elkartasunaren isla izan beharko du, gainera.

Lanak aurkezteko epea joan den astelehenean zabaldu zuten, eta marrazkiak datorren apirilaren 9ra arte aurkez daitezke (eguaztena). Hain zuzen ere, marrazkiek originalak izan beharko dute eta atzealdean egilearen izen-abizenak, adina eta kontakturako telefonoa eta helbide elektronikoa jarri beharko dituzte. Bada, irabazleak bere lana enmarkatuta jasoko du, baita Irrien Lagunen pertsonaia guztien sinadura izango duen kamiseta ere. Sari hori Bizipoz jaialdian, irailaren 21ean, emango da, jaialdiaren oholtza nagusian.

**Eragileak antolakuntzan**

Bizipoz jaialdia Irrien Lagunak Gizargintza Elkarteak bultzatzen du. Oraingoz, hiru ekitaldi izan ditu, Usurbilen, Gernikan eta Lazkaon. Aurten, Arrasaten egingo dute jaialdia, datorren irailaren 21ean, eta hura antolatzen herriko hainbat eragile dabiltza.

Besteak beste, Udala, Txatxilipurdi, AGAKO, Aspace, Arizmendi, Ekin, Elkarhezitzen eta Komisiñue batu dira jaia antolatzeko. Bilera bakarra egin duten arren, datozen asteetan lanean jarraituko dute eta egitaraua sanjuanetarako aurkeztea espero dute.

## Euskaraz Bizi Egunera joateko autobusa antolatu du Arrasateko Euskal Herrian Euskaraz-ek

Gasteizen bihar egingo den Euskaraz Bizi Egunera joateko autobusa antolatu du Arrasateko Euskal Herrian Euskaraz-ek.Talde euskaltzaletik azaldu dutenez, "euskararen alde egotetik, euskararen alde egiteko bidean, euskaldun eta euskaltzaleen topagune" izan nahi du biharko egunak. Arratsaldeko seietan nazio manifestazioa irtengo da Andre Maria Zuriaren plazatik, eta, horren ostean, Gose eta Tximeleta taldeen kontzertuak izango dira.

## Euskal abizenak euskarazko grafiara moldatzeko kanpaina du martxan Arrasateko Udalak

Udalak ohar baten gogoratzen duenez, abizen aldaketa egin nahi duten herritarrek eskaera-orria bete dezakete erregistro zibilean. Nortasun agiriaren fotokopia, jaiotze eta errolda agiriak eta, eskatzailea ezkonduta badago, familia-liburuaren kopia eta seme-alaben NAaren fotokopia eraman behar dira erregistrora. Zalantzak argitzeko, Euskara Zerbitzura jo daiteke.

ZUBI-LAN
KONPONKETAK ETA SALMENTAK



TRESNAK
Nekazaritza
Lorezaintza
Basogintza

MOTORRAK
Salmenta
Konponketa

Markulete poligonoa • Ekutio kalea 4, 17. pabilioia
Tel. /Faxa: 943 79 78 82 - 650 03 87 33 - jmabizeta@gmail.com
Arrasate

Gaizka Romero | Atleta

# "Madrilgo maratoi-erdia egin dudan gogorrena da"

## Domekan hartuko du parte lasterketan; iaz ere aritu zen

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL
Madril Hiria maratoi-erdia egingo du Gaizka Romero arrasatearrak domeka honetan.

**Bigarrenez hartuko duzu parte Madrilgo maratoi-erdian. Asko entrenatu zara?**
Iaz ere parte hartu nuen, eta marka ona lortu nuen, gainera. Denbora hori hobetzeko prestatzea zen aurten nire helburua, baina bi hilabetez egon naiz min hartuta eta horrek baldintzatu egin du dena. Orain ondo nago, eta lasterketa ona egiteko prest nagoela uste dut.

**Lesioa dela eta, aldatu egingo zen zure helburua.**
Egia esan, zail ikusten dut iazko denbora hobetzea (1.11.00), baina, minutu bateko gorabehera izanez gero, pozik. Bestalde, bero egingo duela iragarri dute eta horrek ere eragina izango du emaitzan. Zaila izan arren, ahalegindu egingo gara, gutxienez! Bestalde, iaz moduan, aurreneko 45 sailkatuen artean egotea ere gustatuko litzaidake; izan ere, horrek indarra ematen du aurrera egiteko. Hori lortzeko gogor borrokatuko naiz.

**Aurretik ezagutzen duzunez, nola definituko zenuke lasterketa?**
Estatu mailan bospasei maratoi-erditan hartu izan dut parte, eta niretzako Madrilgoa da politena, eta baita gogorrena ere. Baina ederra da, Madril hirian bertan da eta jende ugarik hartzen du parte. Iaz 20.000 lagun aritu ginen eta aurten, berriz, 24.000 inguru izango gara.

**"Iazko denbora hobetu gura nuen, baina zaila izango dela iruditzen zait"**



Gaizka Romero, atletismo pistan. | IKER LASKURAIN ZABALETA

**Madrilgo lasterketa egin ostean besteren batean parte hartzeko asmorik baduzu?**
Bai, baina beste gisa bateko lasterketak egitea pentsatu dut,; hau da, maratoi-erdiak barik distantzia laburragokoak izango dira, 10 kilometrokoak-eta.

**"Parte hartu dudan maratoi-erdi politena Madrilgoa da, duda barik"**

**Gasteizko talde batekin zabiltza orain korrika egiten, ezta?**
Duela hiruzpalau hilabete La Blanca taldean hasi nintzen. Ez nuen zorte onik izan hastapenean, min hartu bainuen. Baina ordutik bi lasterketatan hartu dut parte eta emaitza onak lortu ditut, gainera. Oso pozik nago taldean, nigatik apustu egin dute eta ezin dut gehiagorik eskatu!

**Gasteizen entrenatzen zara?**
Normalean, Arrasaten aritzen naiz, nire kontura. Hori bai, astean behin Gasteizera joan eta haiekin entrenatzen naiz, kalitatezko entrenamenduak egiteko.

## ZALDIBAR

**PARTIDUAK**

| | |
|---|---|
| APIRILAK 5, ZAPATUA | |
| **10:30** | Dribling-Sport in. / **Sonografos** |
| **11:30** | Sonografos-Lasaga. / **Dribling** |
| **12:30** | Jibaros-Fidel & D. / **Lasagabaster** |
| APIRILAK 6, DOMEKA | |
| **10:30** | Aldatz-Ostantz / **Haizea's Weah** |
| **11:30** | Haizea´s Weah-Iluntz / **Aldatz** |
| **12:30** | Abokajarro- Betrayer. / **Iluntz** |

**SAILKAPENA**

| A MULTZOA | P | J |
|---|---|---|
| 1 Dribling | 10 | 1 |
| 2 Haizea's Weah | 8 | 1 |
| 3 Iluntz | 7 | 1 |
| 4 Fidel & Discipulos | 3 | 1 |
| 5 Sport in tus bragas | 2 | 1 |
| 6 Jibaros | 1 | 1 |

| B MULTZOA | P | J |
|---|---|---|
| 1 Aldatz | 10 | 1 |
| 2 Lasabaster | 7 | 1 |
| 3 Ostantz | 5 | 1 |
| 4 Sonografos | 5 | 1 |
| 5 Betrayer | 3 | 1 |
| 6 Abokajarro | 1 | 1 |

### Ezustekorik ez 2. fasearen hasieran

Lehenengo fasea amaituta, aurreko astean eman zioten hasiera bigarrenari eta ez da ezustekorik izan. Faboritoek lan txukuna egin zuten. Bigarren jardunaldi honetan, berriz, A eta B multzoetan atzetik doazenek gogor borrokatu beharko dute, lehenengo sailkatuek ihes egin ez dezaten.

### Azken porrotaren ostean atseden dute Mondrako neskek

Aurreko aste bukaeran San Inazio izan zuten aurrez aurre Mondra taldeko neskek eta, hain zuzen, 0-4ko emaitzarekin itzuli ziren etxera. Bigarren Nazional Mailan atsedenaldia izango dute emakumeek asteon; hori horrela, indarberritu eta liga amaitzeko geratzen diren hiru norgehiagokak prestatuko dituzte; Oiartzun, Gasteizko Aurrera eta Añorga izango dituzte aurrez aurre; aurreneko biak kanpoan jokatuta eta azkena, ostera, etxean.

### Mondrate areto futbol taldeak atsedenaldia izango du asteburuan

Areto futboleko Mondrate taldeak ez du partidurik jokatuko asteon; hain zuzen ere, atsedenaldia egokitzen zaie arrasatearrei. Datorren zapatuan, apirilak 12, Goizuetako Umore-Ona taldea hartuko du etxean Mondratek, eta norgehiagoka hori prestatzeko aprobetxatuko dute orain. Arrasateko areto futbol taldea sailkapeneko bigarren postuan dago, 53 punturekin; haien aurretik Ataun Troskaeta dago, lidergoan, 56 punturekin.


SAIOA GIMNASIOA

## Borroka artearen asteburua

Martxoaren 22an eta 23an Saioa gimnasioko borroka arteetako ikasleek lana izan zuten. Eduardo Ferrer Bizkaian lehiatu zen *brasilian jiu-jitsu* arloan eta erakustaldi polita egin zuen; Nico Ferrer Oionera joan zen *grappling* diziplinan parte hartzera eta lehenengo *round*-a irabazi zuen, sumisioagatik. Saioa Karate Klubeko ikasleak (argazkian) Azkoitira joan ziren; hainbat domina ekarri zituzten etxera, gainera.

# La Peña Basket taldea hartuko du MUk bihar

## Hamabigarren postuan dagoen taldeari egingo diote aurre arrasatearrek bihar Iturripen

Z.V.D.M. | ARRASATE
Josu Larreategik eta haren mutilek Bilboko La Peña Basket taldearen bisita jasoko dute bihar; Iturripen jokatuko da 25. jardunaldiko partidua, 18:00etan hasita.

**Fisikoki talde gogorra**
Sailkapeneko hamabigarren postuan dago La Peña Basket eta fisikoki talde gogorra da. Azkenaldian bizkaitarrek ez dute partiduak irabazten asmatu, baina horrek ez du esan gura biharko norgehiagoka erraza izango denik.

Hain zuzen ere, azken unera arte borrokatzen duten talde horietakoa da Bilbokoa. Lehen itzulian MUk La Peña Basketen kantxan jokatutako partiduaren amaieran, esate baterako, 67-78 emaitza erakutsi zuen markagailuak.

**Sei partidu arretik**
Momentu honetan Larreategiren taldea bigarren postuan dago sailkapenean, eta, biharko partiduarekin, arrasatearrek sei norgehiagoka jokatu beharko dituzte liga amaitu bitartean. "Ahalik eta jokorik onena eginda, partiduz partidu irabazten joateko helburua dugu", dio Larreategik. Izan ere, modu horretan, sailkapenean lehenengo doan Bide-Bide Donosti taldearen aurkako partiduaren ordua iristen denean –maiatzaren 10ean– txapelagatik borrokatu gurako lukete.

Bestalde, aurreko astean, igoera fasea jokatzeko txartela ziurtatu zuen MUk.

# Musika eskaintza zabala, gaurtik, Udaberriko X. Musikaldian

- Euskal konpositoreek garrantzi berezia izango dute hamargarrenean
- Argentinako Opus Cuatro taldeak nazioarteko kutsua emango dio zikloari

**MIREN ARREGI** | ARRASATE

Gaurtik apirilaren 13ra bitartean Udaberriko X. Musikaldiak musika eskaintza zabalaz gozatzeko aukera emango du Arrasaten. Musika klasikoaren inguruko eskaintzan mugarri izateko asmoz sortu zuen Udalak Udaberriko Musikaldia duela 10 urte. Urte hauetan 50 kontzertutik gora eskaini ditu Musikaldiak eta erreferente bilakatu da Arrasateko musika klasikoaren alorrean.

Bada, zabal dator aurten zikloa: eskaintzak askotarikoak dira, hainbat formatutan. Euskal konpositoreen lanek garrantzi berezia izango dute, eta, beti bezala, Arrasateko taldeek ere izango dute tokia: Arrasate Musikaleko Orkestrak eta Goikobaluk eta Txorbela otxoteak eskainiko dituzte kontzertuak.


Antolatzaileak eta parte hartzaileak, martitzeneko aurkezpenean | M.A

### Herriko taldeendako aukera

Arrasate Musikaleko zuzendari Marta Izagirre, Goikobaluko presidente Juan Antonio Barriocanal eta Txorbelako Inazio Olaizola esker oneko azaldu dira Udalarekin, herriko taldeei Musikaldian parte hartzeko ematen dien aukeragatik. "Arrasate Musikaleko Orkestrarentzat urteko kontzertu garrantzitsuenetakoa izan ohi da Musikaldikoa", dio Izagirrek. "Errepertorio guztia da berria. Horrek adierazten du zein garrantzitsua den guretzat Musikaldia", gaineratu du Iker Olazabalek, Orkestrako zuzendariak. Orkestrak lagun izango du agertokian Goikobalu Abesbatza, 25. urteurrena ospatzen dihardruen honetan: "Udaberriko Musikaldiko kontzertuarekin hasiko ditugu urteurreneko ospakizunak", dio Juan Antonio Barriocanal presidenteak. Lau obra eskainiko dituzte, elkarlanean.

Txorbela Otxoteak ere hartuko du parte zikloan. Ez du bakarrik egingo; izan ere, Opus Cuatro talde argentinarrarekin partekatuko du San Juan parrokia. "Guk telonero lanak egingo ditugu eta eurak izango dira kontzertuko izarrak", dio Txorbelako Inazio Olaizolak. Hain justu, Opus Cuatrok ekarriko du Musikaldira nazioarteko kutsua: ikuslea Kubara, Argentinara eta Ameriketako Estatu Batuetara eramango dute euren errepertorioarekin.

## EGITARAUA

**APIRILAK 4**
Xabier Lizasoren eta Andoni Egañaren *Bi arreba*
**20:00etan Kulturateko areto nagusian.**

**APIRILAK 5**
Orkesta Ricercare
**20:00etan San Juan parrokian.**

**APIRILAK 6**
Landarbaso Abesbatza
**20:00etan San Juan parrokian.**

**APIRILAK 11**
Arrasate Musikaleko Orkestra eta Goikobalu Abesbatza
**20:00etan San Frantzisko elizan.**

**APIRILAK 12**
Txorbela eta Opus Cuatro
**20:00etan parrokian.**

**APIRILAK 13**
Ttanttakaren *Zazpi aldiz elur*
**19:30ean Amaia antzokian.**

## DJ eta MC saioa gaur, 22:30ean, Iluntz tabernan, doan

Hitzordua dute hip-hop musika gustuko dutenek gaur Iluntz tabernan. Durangaldeko Beat Salad kolektiboak antolatuta, DJ eta MC saioa izango da han. 22:30an izango da hori eta honako hauek arituko dira: DJ lanetan Itsua eta DJ Jackie, eta MC moduan, Omzo MF, Ademas eta Gunflow.

Beat Salad Records zigilua Itsuak sortu zuen Durangon, 2009an. Ordutik, esperimentazioaren bidetik hainbat lan kaleratu ditu, eta esparru horretan toki bat lortu.

## Emakume artistak batu gura ditu gaur Ekinek, 18:00etan

Askotariko diziplinatan diharduten emakume artisten ekarpenak behar ditu Ekin Emakumeak elkarteak, eta, horretarako, gaur bilera egingo dute elkarteak Pablo Urangan duen egoitzan, arratsaldeko seietan. Hain zuzen ere, emakumea oinarri, hainbat arte formaren eszenaratzea antolatu nahi du Ekinek. Oraindik "labean" dagoen proiektuari forma ematen hasteko lehen urratsa izango da gaurkoa. Argibide gehiago, 943 79 83 70 telefonoan.





Kirola Kalera Eguneko antolatzaileak Bergaran, eguaztenean. | GOIENA

# Kirola Kalera, herritarrak kirola egitera animatzeko

Agorrosingo ekintzagunean hainbat kirol probatzeko aukera egongo da

T.M/M.A | BERGARA

Kirolaren Nazioarteko Eguna da etzi, eta Bergaran urteko lehenengo Kirola Kalera Eguna antolatu dute. Helburua argia da: kirolik egiten ez duten bergararrak aktibatzea. Horretarako, ekintza ugari antolatu dituzte; hala, Agorrosinen hainbat kirol jarduera probatzeko aukera izango da, hasiberriei edo inoiz probatu ez dutenei zuzenduta.

Baina ez hori bakarrik; izan ere, 13:00ean, *flashmob* bat egingo dute Agorrosingo aparkalekuan. Arratsaldean, ur jolasez gozatu ahal izango dute herritarrek. Gainera, goizeko hamaiketan Agorrosindik irtenda, txangoa egingo dute Labegaraietaraino eta han Tipi Tapa bideen gaineko panel bat inauguratuko dute.

Bergarako Udalak adin guztietako herritarrak animatu gura ditu Kirola Kalera Egunerako antolatu dituzten ekintzetan parte har dezaten.

## EGITARAUA

**AGORROSIN EKINTZAGUNEAN**

**10:00-12:45** Bkool saioak (Arratera igoera birtualeko hiru saio).

**11:00-11:45** Areto bizikleta eta aerobika, (hasiberriendako).

**12:00-12:45** Areto bizikleta (emakumeendako bakarrik); zumba (hasiberriendako) eta akuaerobika (probatzeko).

**KALEA**

**10:00** Agorrosinen. Familia txangoa Tipi Tapa bideak inauguratzeko (bizikletan, oinez eta irristaketan).

**11:30** Hamaiketako osasuntsua eta guztiondako jolasak, Labegaraietan.

**FLASMOB**

**13:00** Agorrosingo aparkalekuan, kirolaren aldeko *flashmob*–a.

**JOLASAK**

**17:00-19:00** Agorrosingo igerilekuan, ur jolasak familia guztiarendako.

## Erramu Zapatuko bazkarirako txartelak 13tik aurrera salgai

Depor, Eusebio, Etxagi, Ariznoa, Frontoia eta Pol-Pol tabernetan salduko dituzte, 12 eurotan. Udal Pilotalekuan izango da bazkaria eta sarrerakoak, baserriko oilaskoa patatekin, herriko gozotegietako bizkotxoa, kafea eta kopa egongo dira; baita txotxa ere.

## Gutun Sozialari ekarpena egiteko batzarra gaztetxean

Eskubide Sozialen Gutuna eratzeko prozesuan gazteen ekarpena jasotzeko asmoz, batzar irekia izango da bihar, zapatua, 10:00etan, kartzela zaharrean. Herriko gazte guztiak daude hitzordura gonbidatuta.

## Oraindik ere lekua dago oroimena lantzeko tailerrean

San Joxepe erretiratuen elkartetik jakinarazi dutenez, oraindik ere izena eman daiteke oroimena lantzeko antolatu duten tailerrean. Interesatuek San Joxepe elkartearen bulegoan eman dezakete izena 11:00etatik 12:00ak bitartean.



## LABEGARAIETA

**SAILKAPENA**

| | A TALDEA | P | J |
|---|---|---|---|
| 1 | Poteo Izarrak | 3 | 1 |
| 2 | Minimou Taldie | 0 | 0 |
| 3 | Komando Piperrak | 0 | 0 |
| 4 | Birgerias | 0 | 0 |
| | B TALDEA | P | J |
| 1 | Diego Valor | 3 | 1 |
| 2 | T.C.C. | 3 | 2 |
| 3 | Irama Elgeta | 0 | 0 |
| 4 | Beti jai | 0 | 1 |

**PARTIDUAK**

APIRILAK 5, ZAPATUA

**18:30** Diego Valor - Beti Jai / **P. I.**

**19:30** Poteo Izarrak - Komando P. / **D.V.**

APIRILAK 6, DOMEKA

**16:00** Irama Elgeta - T.C.C. / **B. J.**

**17:00** Irama Elgeta - BetiJai / **P. I.**

**18:00** Minimou T. - Poteo Izarrak / **I. E.**

**19:00** Biergerias - Minimou Taldie / **K. P.**

**20:00** Biergerias - Komando P. / **M. T.**

## OHARRAK

**1937AN JAIOTAKOEN KINTADA HILAREN 13AN**

12:00etan meza izango dute Santa Marinan eta 14:30ean bazkaria Zumelagan. Apirilaren 10erako izena eman daiteke Yoar zapata dendan 20 euro aurreratuta.

**KAFE KONPON**

Hilaren 9an da hurrengo saioa, 16:00etan, San Joxepen.

### 'Malawi bizikletaz' delako berbaldia martitzenean

Jardunek antolatuta, Ainhoa Bikuña bergararrak eta Mikel Bayerrek iaz bi hilabetez Malawin bizikletaz egindako zeharkaldiaren berri emango dute diaporamez lagunduta hilaren 8an, 19:00etan, Irizar jauregian. Bikuña izango da bertan azalpenak emateen eta galderei erantzuteko.

### Hiru kide berri daude San Joxeperen zuzendaritzan

San Joxepek aurreko eguenean egindako batzarrean zuzendaritzako hiru kide berritu zituzten: Rosa Ibarguren, Mariasun Gardoki eta Iñaki Arrieta. Kide berriek Rosamari Larrañaga, Begoña Garitano eta Jose Ramon Lozanok lagatako lekua hartu dute.

### 'Litus' antzezlana egingo dute Ipintzako ikasleek Zabalotegin

Ipintza institutuko batxilergoko 2. mailako ikasleek *Litus* antzezlana eskainiko dute bihar, zapatua, Zabalotegi aretoan. 19:00etan izango da eta sarrera 4 euro kostako da. Suizidioaren gaia ardatz nagusi duen Marta Buchaca katalanaren obra da.

# Mozioak izan ziren protagonista asteleheneko bilkuran

Udalen Euskal Legearen aldekoa eta Espainiako banderaren inposizioari buruzkoak onartu ziren

**M.B.** | BERGARA

Ohiko osoko bilkura izan zen astelehenean, eta, besteak beste, bost mozio onartu ziren. Esaterako, Udalen Euskal Legea sustatu eta onartzearen aldeko mozioa aurkeztu zuen PSE-EEk eta aho batez egin zuen aurrera. Mozioa onartuta, udalbatzak Jaurlaritzari eskatuko dio "Legebiltzarrean hartutako konpromisoak" bete ditzala eta bidal dezala "Udalen Euskal Legea Legebiltzarrera 2014-ko lehen seihilekoan, legearen tramitazioa hasteko eta ahalik eta azkarren onartu ahal izateko".

Euskal Selekzioaren alde Gobernu taldeak eta EAJk aurkeztutako mozio bateratua ere onartu zen –PSE-EEk kontra bozkatu zuen–, "Euskal Selekzioa ofizialki nazioarteko txapelketetan gainerako selekzioen baldintza beretan lehia dadin".

**Berrordainketa bertan behera**

Gipuzkoako erretiratu eta pentsiodunen Duintasuna elkarteak aurkeztutako mozioa ere onartu zen, aho batez. Mozioa aurkezteaz gain, elkarteko kide batek bizi duten egoeraren gaineko azalpenak eman zituen, eta baita ondoeza adierazi ere, "berrordainketa itzulketa egiten ari diren eragatik eta medikuak errezetatutako sendagaiak jasotzeko farmazian ordaindu beharreko zenbatekoagatik". Mozioa onartuta, udalbatzak eskatuko dio Jaurlaritzari "Espainiako Gobernuari eska diezaiola Gizarte Segurantzaren konpetentzia EAEra transferitzea, gero hemendik kudeatzeko". Era berean, Osakidetzari eskatuko diote "laguntzak jasotzeko baldintzak betetzen dituzten pertsonei zuzenean jakinaraztea zer egin behar duten laguntza horietaz baliatzeko". Baita Jaurlaritzari eskatzea ere "ahalik eta azkarren berrordainketa bertan behera lagatzea".

**Espainiako bandera**

EAJk Espainiako bandera jartzeko inposizioaren gainean aurkeztutako mozioak ere aurrera egin zuen Bilduren aldeko botoekin eta PSE-EEren kontrakoarekin. Mozioa onartuta, "inposizio horren aurka erabat" dagoela adierazi du udalbatzak. Uste dute "inposizio hori bereziki larria" dela gaur egun bizi den "testuinguru eta momentu politikoan. Izan ere, testuinguru politiko horrek irtenbideak behar ditu, eta ez gogoz kontrako inposizioak". Era berean, udaletxe sarreran plaka bat jartzea ere onartu zuten, argi lagatzeko udalbatzaren "gehiengoaren borondate demokratikoaren aurka" eta "behartuta" jarri duela Espainiako bandera fatxanda eta bilkuren aretoan.



Amasorrain, Oiarbide eta Barrena, eguazteneko agerraldian. | J.D

# Atez atekoak "porrot" egin duela salatu dute

EAJren udal taldeak 5. edukiontzia jartzeko eskatu dio Bilduren Udal Gobernuari

**J.D/M.A** | BERGARA

Atez ateko bilketa sistemaren gaineko datuen balorazioa egin du Bergarako EAJren udal taldeak. Jeltzaleek "gardentasuna" eskatu diote Udal Gobernuari eta sistema ezartzearen "kostu erreala zein den jakiteko txosten ekonomikoa" eskatu dute.

**Atez atekoaren "porrota"**

Udal Gobernuak argitaratutako datuak kontuan hartuta, atez ateko sistemaren "porrota" ondorioztatu du Bergarako EAJren udal taldeak: "Paper bilketa %2 baino gutxiago igo da, ontzi arinena %3 eta beirarena %2. Organikoaren bilketa %23,1ekoa izan da, espero baino askoz zifra baxuagoa; eta errefusarena, %12". Gainera, "Bilduren gobernuak argitaratutako datuen arabera, atez atekoa ezarri denetik 136.120 kilo desagertu dira, batez beste. Horren arrazoia garbia da: hondakinen turismoa".

Bestetik, hauxe gaineratu dute: "Hilabete eta erdi honetan, Bergarako kaleetan zehar inoiz baino kamioi eta auto gehiago egon dira zaborra jasotzen, eta horrek kostu ekonomikoaz gain, beste arazo bat ere sortzen du: kutsadura".

**5. edukiontziaren alde**

Jeltzaleek Isazelaia alkateari leporatu diote "eztabaida antzua" sortu izana, eta eskatu Arrasaten, Donostian eta Elgetan egin bezala bosgarren edukiontziaren aldeko apustua egiteko: "Utz ditzala konfrontazioa eta inposaketa eta egin dezala apustu errespetuaren alde".

**Epelen, "kudeaketa txarra"**

Amaitzeko, gogora ekarri dute Epeleko konpost planta EAJk ipini zuela martxan. Salatu dute hiru urte pasatu direla eta Epeleko plantako proiektua egin barik dagoela, horrek dakartzan gastu eta arazoekin.

# Su-detektagailuak ipiniko dituzte adinekoen etxeetan

Suteen prebentziorako programa ipiniko du martxan Udalak; 320 detektagailu ipiniko dituzte

**T.M/M.A** | BERGARA

Bergarako Udalak suteen prebentziorako programa jarriko du martxan, eta, horren baitan, 320 su-detektagailu jarriko ditu bakarrik edo 65 urtetik gorako pertsonekin bizi diren 83 urtetik gorako pertsonen etxebizitzetan.

SOS Deiek emandako datuen arabera, etxeko istripuen %80 suteen ondorio dira, eta horien erdiak adineko pertsonen etxeetan gertatzen dira. Hori horrela, Bergarako Udalak suteak prebenitzeko programa jarriko du martxan, batez ere adineko pertsonei bideratuta. Haiendako onuragarria izateaz gainera, pertsona horien bizilagunendako mesedegarri dela diote Bergarako Udaleko ordezkariek eta zerbitzua esleitu zaion A Tiempo enpresakoek.

**Hiru fasetan egingo da**

Programa garatzeko zerbitzua ez da su-detektagailuak jartzera bakarrik mugatuko, hiru fase izango ditu-eta: lehenengoan, etxez etxe joango dira etxebizitza bakoitzaren arriskuak identifikatzeko; bigarrenean, suterik balego zer egin azaltzeko eskuliburuak banatuko dituzte. Detektagailuak fase horretan jarriko dituzt; hirugarren eta azken fasean, etxebizitzaren krokisa egingo dute, larrialdiak daudenean ebakuazio lanak antolatzeko.

Programak, denera, 50.000 euroko aurrekontua du eta ekain erdialderako edo amaierarako amaitu nahi dituzte lanak.



Su-detektagailua. | T.M

UGARTE
AROZTEGIA - ALTZARIAK

AROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

BERGARA

UREDERRA
ITURGINTZA

Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta

Arruriaga 11
686 943 918

PINTXOAK eta
OGITARTEKOAK
SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g
Bergara
943 76 07 92



Bi pibote jarri dituzte Agirretar Lope kalearen barrenean, ibilgailuak pasa ez daitezen. | O.E.

# Agirretar Lope kalea oinezkoendako izango da

Garajeak kale horretan dituzten bizilagunak Santa Marinatik sartuko dira

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Agirretar Lope kalea oinezkoendako bakarrik da aste honetatik aurrera. Mugikortasunaren Planaren baitan udalak hartu duen neurrietako bat da.

**Kontrako norabidean**

Hemendik aurrera, beraz, kale horretan bizi diren herritarrek, bakarrik, sartu ahal izango dira kale horretara ibilgailuendako. Gainerako herritarrek, oinez bakarrik zeharkatuko dute.

Gainera, hemendik aurrera, kontrako norabidean egongo da zabalik kalea bertako bizilagunendako. Hau da, orain arte behetik gorako norabidean pasa dira ibilgailuak kale horretan. Aurrerantzean, ordea, goitik beherakoan pasako dira. Hau da, garajeak kale horretan dituzten herritarrak Santa Marinatik sartu beharko dira kalera.

Udalaren esanetan, ibilbide batzuk seguruagoak izatea da neurri honen helburua. Esaterako, Elkar Hezitik plazarako lotunea edo Moiua eta Errekalde kaleetako bizilagunak erdigunera joateko bidea. "Gainera, urteetan kale horretako bizilagunek zituzten kexei erantzuna ematen diogu. Erabakia kaleko bizilagun guztiekin batera hartua izan da", adierazi du udalak. Horrez gain, oraingoz kale horretan bestelako obrarik ez dela egingo ere esan du udalak eta 2015ean plataforma bakarra jartzea aztertuko dela.

**Aldaketa gehiago**

Udalaren esanetan, mugikortasun planaren helburua da mugikortasun iraunkorra, segurua, zuzena eta eraginkorraren kultura sustatzea. Planarekin lortu gura dutena da, "desplazamendu moduen banaketa iraultzea; egungo oinezko edo bizikleta desplazamenduak %37tik %53ra eta garraio publikoaren erabilera %3tik %7ra igotzea, eta garraio pribatuan egiten diren desplazamenduak, %60tik %40ra jaistea".

Agirretar Lope oinezkoendako izatea plan horren barruan dago. Herriko beste kale edo gune batzuetan ere aldaketak egitea aztertzen ari da Udala, baina ekintza handienak egin aurretik proba batzuk egingo dituzte.

Bidegorriari lotuta, Olabarrieta eta Ugarkalde lotuko duenaren proiektua ari dira egiten. Aiastui baserri pareko lur azpiko pasabideren proiektua ere enkargatuta dago.



OÑATIKO AUZOKO

## Oñatiko Auzoko Eguna ospatu dute

Joan den domekan Oñatiko Auzoko Eguna ospatu zuten. *Goiena.net* atariko *Komunitatea*–n kontatu duten moduan, 15 lagun elkartu ziren goizean postetxean, Arrikrutzeko kobak ikusteko irteeran parte hartzeko. Horietako batzuk, gainera, lehen aldiz sartu ziren kobazulo batera. Guztiei gustatu zitzaien irteera. Bueltan, Berezaoko elkartean bazkaldu zuten.

## Tren Ibiltaria, eskolara oinez joateko ohitura sustatzeko

O.E. | OÑATI

Tren Ibiltaria izeneko ekimena antolatu du aurten ere Urgain Errekaldeko Guraso Elkarteak. Hala, ikastetxera oinez joaten dira hainbat ikasle. Aste honetan jarri dute martxan, eta hurrengo astean ere egingo dute.

**Lau ibilbide**

Izan ere, horixe da ekimen honen helburua, ikastetxera oinez ere joan daitekeela erakustea. "Gure seme-alabak eskolara oinez joateko ohitura sustatzea da helburuetako bat, horrek guztiak dituen ondorioak kontuan izanda", diote guraso elkartetik.

Ekimen hori gauzatzeko, lau ibilbide antolatu dituzte: Kasablankan, Debatarra tabernа parean, 08:30ean; San Lorentzon, tunelean, 08:40ean; Bidebarrietan, Dia dendaren parean, 08:40an; Kultura etxean, 08:50ean.

Ikasleak begiraleen laguntza izaten dute ibilbide osoan, topalekutik Errekaldeko ikastetxeraino.

**Bi aste**

Tren Ibiltarian parte hartzen duen ikasle bakoitzari txartel bat ematen diote, eta egunero zigilua jartzen diote eskolara heltzean.

Ekimenak bi aste iraungo du eta bukaeran, parte hartu duten guztiek opari txiki bana jasoko dute.



Tren Ibiltaria kultura etxean gora eguaztenean. | URGAINEKO GURASO ELKARTEA

## Uraren fakturazio sistema ez dute berdin ikusten EAJk eta Bilduk

O.E. | OÑATI

Urtarrileko osoko bilkuran onartu zen uraren fakturazio sistema berriaren harira, "fakturatze sistemak zein ondorio ekar ditzakeen eta familiengan zein eragin izan dezakeen aztertu eta baloratu gabe aldatu izana" leporatu diote jeltzaleek Bilduri aste honetan bidalitako prentsa oharrean. Horri gehitu diote "Bilduk etxebizitza 'hutsei' politika zigortzailea ezartzen" jarraitzen duela, "diru bilketa hutsa helburu", hartutako neurriak ez duelako ur kontsumoa jaistea bermatzen, EAJren ustez.

Horri erantzunez oharra bidali du Bilduko udal taldeak eta dio "desorekak baino orekak" sortzen dituela gehiago neurri horrek. Gaineratu du Udalak ez duela zentimo bat bera ere gehiago kobratuko tarifa aldaketa horren bitartez, ezta Gipuzkoako Ur Kontsorzioak ere. "Hori horrela izanik ere, gaia aztertu ondoren", Udal Gobernutik adierazi dute onartzen dutela Gipuzkoako Urak-en proposamena hobetu beharra dagoela inor erroldatu bako etxeen kasuan aplikatzen zaion tratamenduari dagokionez, eta konpromisoa hartu dute Gipuzkoako Urak-ek eurek egindako eskaera onartu bitartean tarifazio berria behin betiko ez onartzeko.

**Informazio gehiago:** eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.

### Oñati eta Arantzazu lotzen dituen autobus zerbitzuak udako ordutegia du apiriletik hasita

Domeketan eta jaiegunetan Oñati eta Arantzazu lotzen dituen Cuadrabus autobus zerbitzuak udako ordutegia du hilabete honetako lehen eguna ezkero. Hain zuzen ere, 07:30ean aterako da lehen autobusa Oñatitik; orduro aterako da eta azkena 18:30ean izango da. Arantzazutik jaisteko, berriz, lehenengo autobusa 08:00etan izango da eta azkena, 19:00etan. Bestalde, 10:30eko eta 13:15eko autobusek geldiunea egingo dute Arrikrutzen. Bidaia bakoitzak 0,70 euro balio du.

# Gaztelekua zirku bilakatuko dute bihar herriko haur abesbatzek

Kantua Kalean-en baitan, ikuskizuna egingo dute gaztelekuan; baita kalean abestu ere

**I.G.** | OÑATI

Kantua Kalean jaialdia egingo dute bihar herriko abesbatzek. Ganbara Txikiren bosgarren urteurrenean egin zuten lehenengoz jaialdi hori. Aurtengoak orduko formatu bera izango du. Hau da, herriko haur eta helduen abesbatza guztiak kantuan arituko dira, kalean.

**Badator zirkua!**

Hala ere, haur abesbatzak izango dira protagonista nagusiak. Ikastetxeak Kantariko taldeak, Musika Eskolako abesbatza, Ganbara Txikitxo eta Ganbara Txiki taldeak elkarrekin arituko dira. Zirkua ekarriko dute Oñatira, eta, hori iragartzeko, eguerdian kalejira egingo dute herriko kaleetan barrena. 12:00etan, Etxaluzeko plazan hasita, musikaz eta kantuz beteriko kalejira egingo dute. Kale Barria, Atzeko kalea, Kalegoiena eta Errementari plaza zeharkatu ondoren, herriko plazan amaituko dute haurrek goizeko saioa.

Kalejira arratsaldean izango den ikuskizunaren aurrekari izango da. Izan ere, 16:30ean zirku bilakatuko dute gaztelekua. Denetarik izango da: lehoiak pailazoak, trapezistak... Ordubeteko emanaldia egingo dute talde guztiek elkarrekin.

**Helduak kalean kantuan**

Haurren ikuskizuna amaitutakoan, helduen abesbatzak irtengo dira kalejiran –Ganbara Abesbatza, Oñati Abesbatza, Parrokiako abesbatzak eta erretiratuen abesbatza–. Kalejira 18:30ean hasiko da, Etxaluzen, eta bost geldialdi egingo dituzte: Etxaluzen bertan, Kale Barrian, Portu kaleko plazatxoan, Ona pareko plazatxoan eta herriko plazan. Geldialdietan, txandaka, abesbatzek ordu laurdeneko saioa eskainiko dute.

**Txosna**

Ganbara Txikik txosna jarriko du plazan. Eguerdiko eta arratsaldeko azken orduetan txistorra eta gazta salduko dute. Gaztelekuko ikuskizuna amaitu ostean, berriz, txokolatea edateko aukera egongo da. Ikuskizunerako sarrerak goizean txosnan erosteko aukera egongo da eta sarrera bakoitzarekin txokolatea edateko edalontzi bat banatuko dute.



Ana Griott ipuin kontalariaren emanaldia Oñatiko Udal Liburutegian, . | I.G.

# Literaturaz gozatzeko, ekintzak hilabete osoan

Iazko arrakasta ikusita, Pernan Goñik haur eta helduentzako marrazketa saio bana egingo du

**IRATI GOITIA** | OÑATI

Liburuaren hilabetea da apirila liburutegian. Hala, hainbat ekintza antolatu dituzte hileko lehen egunetik azkenera arte.

Horrenbestez, aste honetan ekin diote egitarauari, hilabetea hasi bezain laster. Apirilaren 1ean azalerako ipuinak izan zituzten. Besteak beste, masajeaz, abestiez eta ipuinez baliatuta, literaturaren mundura hurbildu ziren ume eta gurasoak, Saroa Bikandiren gidaritzapean.

Bestalde, hurrengo egunean, Nazioarteko Haur Liburuaren Egunean, haur zein helduendako ipuin kontaketak izan ziren liburutegian. Biak ala biak oso arrakastatsuak. Gaztetxoenak gustura izan ziren Odei Arregiren ipuin lotsatiak entzuten. Ana Griottok, berriz, barre algara ugari eragin zituen nagusien artean.

Beste hainbat ekintzarekin gozatzeko aukera ere izango da; tartean, Pernan Goñiren bi saiorekin. Bada, izena eman behar da liburutegira joanda, telefonoz deituta edo mezu bat idatzita.

## EGITARAUA

**APIRILAK 8**

**19:00** Poesia emanaldia, Pobresiak-en eskutik (helduen liburutegia).

**APIRILAK 9**

**17:30** Marrazketa gaztea, Pernan Goñik gidatuta (haur liburutegia).

**APIRILAK 10**

**20:00** Zinekluba: *¿Qué hacemos con Maisie?* (kultura etxea).

**APIRILAK 28**

**18:00** Marrazketa erraza eta *graphic recording* tailerra, Pernan Goñiren eskutik (helduen liburutegia).

**APIRILAK 29**

**18:30** Tertulia saioa (helduentzat, euskaraz).

**APIRILAK 30**

**18:30** Tertulia saioa (helduentzat, gazteleraz).



2012an Zubikoan egin zen spinning maratoia. | JOSETXO ARANTZABAL

# IV. spinning maratoia egingo dute bihar Zubikoan, 16:00etan hasita

**MIREIA BIKUÑA** | OÑATI

140 lagunendako bizikletak jarriko dituzte bihar Zubikoa kiroldegiko kantxan. Izan ere, IV. spinning maratoia egingo dute, 16:00etatik 19:00etara.

**Lau saio**

40 minutuko lau saioa egingo dituzte. Batetik bestera bost minutuko tartea izango dute parte-hartzaileek atseden hartzeko, jateko eta edateko.

Lehen saioa Xabier Azkaratek –Arrasaten eta Antzuolan spinning irakaslea– eta Javi Godoyk –Legazpiko irakaslea– emango dute. Bigarrenean, Itziar Ormaetxea izango da gidaria; 13 urteko esperientzia du ikastaroetan. Edurne Arkauz eta Laura Anda izango ditu laguntzaile lanetan. Hirugarrenean, Asier Arregi –Oñatiko irakaslea– eta Sara Perez –Zumarragako irakaslea– izango dira gidariak. Azken saioa Asier Agirrek zuzenduko du, Irene Esnalen laguntzarekin.

**Kantxan**

Iaz, spinning eskolak ematen diren gelan egin zuten maratoia, 35 bat lagunendako. Aurten, baina, hasierako formatua berreskuratu gura izan dute, eta Zubikoa kiroldegiko kantxan egingo da. 15:15etik aurrera erregistratu ahal izango da eta ateak 15:30ean irekiko dituzte.

# Antonio Zurututza garaile

**Oñatiko ehiza txapelketa jokatu zuten joan den zapatuan Araban, Zanbranan. Guztien artean Antonio Zurututza izan zen garaile bederatzi eper eta faisai bat botata; bigarrena Andoni Urrutia izan zen, zazpi eperrekin; hirugarrena, Rufino Delgado, sei eperrekin; laugarrena, Jabier Vera; eta bosgarrena, Esteban Abaunz.**



IGOR ARRESE

### Aloñako pilotako kadete mailakoak, Gipuzkoako txapeldun

Joan den asteburuan jokatu ziren Gipuzkoako pilota txapelketako finalak, Oñatin. Kadete mailan oñatiarrak izan ziren nagusi. Biain eta Txintxurreta 22-18 nagusitu ziren Hondarribiko bikotearen aurka. Pilotalekuan ikaragarrizko giroa izan zen eta pozik ziren Aloña Mendiko pilota saileko kideak.

### Discipulos de Dionisos, Las Tuercas eta Mursego gaztetxean asteburuan

Antixenako gaztetxean musikaz gozatzeko aukera izango da asteburu honetan. Izan ere, kontzertuak izango dira bihar eta etzi. Discipulos de Dionisos eta Las Tuercas taldeek emanaldia egingo dute bihar, 22:00etan hasita. Domekan, berriz, Mursego igoko da gaztetxeko taula gainera, 19:30ean. Bi kasuetan, sarrera hiru euro da.

### Ligako eta kopako finalak jokatuko dituzte beteranoek

Iritsi dira herriko futbol txapelketako finalak. Kopako finalean Bundeswehr eta Kalañatasaray taldeak arituko dira nor baino nor gehiago bihar, 16:15ean. Ondoren jokatuko da ligako finala, Dollygan's eta Albok-en artean, 18:00etan. Hirugarren eta laugarren postuengatik lehiatuko dira Kili -kolo eta Joxely, 14:45ean.

# Metroak erosteko aukera gaur Kalebarrenen

**MAIDER ARREGI** | ANTZUOLA

Gure Esku Dago, erabakitzeko eskubidearen aldeko ekimena, Antzuolan ere abian da. Hala, herritarrek, egubakoitzero Kalebarrenen –eguraldiaren arabera Arinen edo Zurrategi plazan– arratsaldeko zazpietatik aurrera dute aukera metroak erosteko.

Bertan, termometroa daraman kartela jarri dute eta helburua 600 metro saltzea da. Martxa onean doa salmenta eta dagoeneko 250 metro pasatxo salduta dituztela azaldu digute. Modu horretan, metroak saltzen joan ahala, termometroak ere goraka egingo du.

Metroa erosteko interesa dutenek gaur bertan egin dezakete. Ekimenari buruzko informazioa ere emango zaie herritarrei eta beharrezko zalantzak argitzeko ere aukera ona izango dute gerturatzen direnak.

Gaztetxean ere badago eskuorriak betetzeko aukera.



*600 baietz!* kartela. | J.UGARTEBURU

**Ekainak 8**

Durango eta Iruñea lotuko dituen 123 kilometroko giza katea egingo dute ekainaren 8an, domekan.

## Gai libreko argazki lehiaketan parte hartzeko aukera zabalik dago

**M.A.** | ANTZUOLA

Antzuolan jaio edo bizi den edozeinek parte har dezake lehiaketan. Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, hiru argazki aurkez ditzake, koloretan edo zuri-beltzean. Udaletxean aurkeztu behar dira eta epea maiatzaren 7an bukatuko da. Epaimahaia argazkilaritzako pertsona adituek osatuko dute. Argazkiak baloratzeko, kalitate teknikoa eta artistikoa eta adierazteko originaltasuna hartuko dituzte kontuan.

Argazkiekin erakusketa egingo dute maiatzaren 17an, 18an, 24an eta 25ean, Olaranen. Oinarriak eta xehetasunak, *antzuola.com* webgunean



## Xinkonako marrazkirik politenak

ALAITZ JAUREGI

Irati Ormazabal, Ihintz Diaz de Gereñu eta Paula Sanchez dira marrazki lehiaketako irabazleak. Alaitz Jauregik azaldu digu sorpresa polita izango dutela laster esku artean.

MUJIKA HARATEGIA

*Berezitasunak: Etxean hazitako zekorrak eta oilaskoak*

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

LARREA
TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

**Ima Beristain** | Alkatea

# "2013an argiteria planari esker kontsumoa erdira jaistea lortu dugu"

'Ontziratu zaitez' ekimenak herritarren artean izandako arrakasta azpimarratu gura izan du

**MAIDER ARREGI** | ANTZUOLA

Patxadaz eta garbi jardun zuen Ima Beristain alkateak martitzenean Goiena telebistan. *Harira* saioan elkarrizketatu zuen Eneko Azkarate kazetariak.

**Irisgarritasun planik badauka abian Udalak?**

Oraindik lantzen ari gara. Noiz eta nola egin erabakitzen ari gara; ez daukagu aurrekonturik jarrita horretarako aurten. Gastuen araua bete behar delako eta horrek muga jarri diolako. Agintaldia bukatu aurretik izango dugu irisgarritasun plana.

**Autobusa herritik ateratzeko fasea bukatuta dago?**

Guri dagokigun fasea bukatuta dago eta barruko biribilgunea eginda dago. Falta da Supideko biribilgunea egitea. Horrek herrian arazo ugari sortzen ditu eta, bai ala bai, Foru Aldundiari konpromisoa eskatu diogu. Egin beharra dago Goizperreko gurutzebideko arriskua kentzeko eta autobusa herritik ateratzeko. Hiru urte daramatzagu gai honekin eta gainean gaude; lehenbailehen konpontzea gura dugu.

**Euskaltelen zuntz optikoa sartuko da herrian? Zein da egoera?**

2011n diru bat zegoela esan zigun Euskaltelek eta kontratua sinatu genuen aurrera egiteko. 2012an gaia geldi zegoela konturatu ginen eta Euskaltelen erantzuna izan zen diru hori gastatuta zegoela eta ez zutela sartuko zuntz optikoa. Gu zain geunden Kalebarreneko lanei ekiteko; Euskaltelen erantzuna ezezko borobila zela ikusita lanak abiatu genituen.

**Aparkaleku arazorik badago?**

Ez dago. Herriko udaltzainak ez dauka isunak jartzeko eskumenik; horren harira, herriko zirkulazioa ari gara lantzen. Aurten diru sarrera bat jarri dugu eta seinalizazioak jarriko dira herriko puntu beltzetatik hasita. Hala, Ertzaina etortzen denean isunak jarri ahal izango ditu.

**Herriko argiteria aldatu duzue.**

2013an herriko argiteria guztia aldatu da eta kontsumoa erdira jaitsi da. Faktura ez, ordea, igotzen joan delako, baina kontsumoa jaistea lortu da. Ondarreko eta pilotalekuko argiteria koadroetan jardungo dugu. Pilotalekukoak ia herri osoa hartzen du. Aurten bi horiek egingo ditugu eta pixkanaka dena berritzen joango gara.

**Uzarragako eliza egoera kaxkarrean dago. Udalak ze esku hartzen du?**

Jabetza Elizarena da. Udalak ez du esku-hartzerik hor. Baina txalotzekoa da herritarrek egin duten lana eta daukaten gogoa eliza bizirik mantentzeko. Diputazioarekin ikerketa egiten ari gara eraikinaren balioa jakiteko eta horren arabera gaia bideratzeko eta eskaera egiteko.

**Beasain-Durango autobideak eta AHTko lanek ze eragin izan dute antzuolarrengan? Nola bizi duzue?**

Ikaragarria da; baita ikuspegi eta ingurumen aldetik ere. Hainbat herritarrek, adibidez, berritutako iturriak zituzten eta denak agortu direla esan digute. Eusko Jaurlaritzakoak egon dira eta berriro martxan jarriko dituztela esan digute; baina ez dute ezer egin. Azpimarratu gurako nuke Udala auzitan sartu duela ANEFHOP izeneko hormigoiaren elkarteak. Espedientean dio AHTaren lanek hormigoia fabrikatzeko planta duela Antzuolako lurretan eta Udalaren baimenik ez dutela. Horrek konpetentzia sortzen du prezioan. Guri Jaurlaritzak esan digu ez dagoela baimenen beharrik. Makro-obra baten saltsa erdian sartu gara ezer egin gabe. Abokatuekin bideratzen ari gara, zeren Udalarendako kostua da-eta.

**Baserritarren aldetik kexarik?**

Bai, zikina eta zirkulazioa dagoela esanez kexatu dira. Neguan, gainera, arazo handiagoak izan dira. Gu obrakoekin jarri gara harremanetan. Herritarrak lasai etortzen dira Udalera eta saiatzen gara irtenbide bat ematen. Denentzako da gai hau kaltegarria.

**Eztalako lurra ezegonkorra dela –eta arriskurik bada?**

### HERRITARRAK ALKATEARI GALDEZKA

**Buztinzurin autoak polikiago joateko ezer egingo da?**

"Horrekin lotuta, esan behar da herriko zirkulazioa lantzen ari garela batzordean. Aurten ere bada datorren urtean gai horri eutsiko diogu. Eta autobusa herritik ateratzen dugunean ere, gaitzerdi. Egia da toki horretan haur pila bat dabilela, jolasparkea ere ondoan dagoelako; askotan, begiratu gabe errepidera salto egiten dute eta arazoak sortzen dira. Irtenbide bat bilatzea da gure asmoa, gai honen gainean gaude eta irtenbidea eman nahi diogu lehenbailehen".

**Antzuola-Bergara bidegorri zatia egiteko asmorik badago?**

"Beasain-Durangoko lanekin dago lotuta bidegorriaren zati hori. Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumena da. Obrako kontratuan, baina, sartuta dago bidegorria egitea eta Bergararekin ere hitz eginda dago. Lehenengo, Beasain-Durango errepidearen azken zatia egitea falta da, ordea. 2015eko apirilerako aurreikusi dute lanak bukatzea. Ondoren edo paraleloan egin gura dute bidegorriaren Bergararaino doan zatia".



Ima Beristain alkatea Goiena telebistako platoan elkarrizketa hasi aurretik. | MAIDER ARREGI

**"Biomasa proiektua gurera ekartzeko Aramaiokoak izango duen emaitzaren zain gaude"**

**"Herritarren %65 tuperrarekin joaten dira arrandegira eta Kalebarrengo dendara"**

**"Torresoroan harmailak jartzen hasi dira eta hil bukaerarako prest izango dira"**

Azkenean, ez botatzea erabaki da. 16 metrora dagoen ur poltsak ondorioak ekar ditzake gainean pisua jarriz gero. Hortik datozen urak bideratuko dira eta datorren urtean ingurua errekuperatzeko erabiliko da.

**Ospitalera doan autobusa herritarrek erabiltzen dute?**

Herritarrek esaten dute ez dela kendu behar, inondik inora. Guretzako aukera oso inportantea da eta lanerako ere jendeak erabiltzen du. Gainera, garraioa hobetzeko batzar parte-hartzailean herritarren proposamenak jasotzeko eta lantzeko aukera egon da denen artean zerbitzua hobetzeko eta lantzeko.

**Zeintzuk dira inbertsio nagusiak?**

2 milioi eta 500 mila euroko sarrerak aurreikusi ditugu. Inbertsio nagusiak dira: herriko zirkulazioa, eskolako argiteria –kontsumo oso handia duelako– baserritako ur sarea eta auzokonposta. Lursail bat erosiko dugu Arrola inguruan; oraindik ez dugu erabaki ganadua libre ibiltzeko edo landaketa egiteko erabiliko dugun. Diru partida gorde dugu eta, gainera, salerosketa konpromisoa hartu dugu dagoeneko.

**Atez ateko bilketa sistemak hiru urte egin ditu. Ze balorazio egiten duzue Udaletik?**

Orokorrean, jendeak ondo hartu du eta ikasi du ondo sailkatzen hondakinak. Nabarmendu behar da %87 birziklatzen dela. Gainera, norbaitek gaizki eginez gero hondakinen sailkapena, jendea haserretu egiten da.

***Ontziratu zaitez* kanpainak zein harrera izan du herrian?**

Tuperren kanpainak arrakasta izan du. Positiboki baloratu dute arrandegikoak eta Kalebarrengo dendakoak ere. %65 tuperrarekin joaten dira. Gainera, ahaztuz gero, badago aukera dendan bertan ontzi bat jasotzeko ere. *Ontziratu zaitez* ekimena otsailean jarri genuen abian eta sei hilabeteko proba izango da. Momentuz, gustura gaude.

**Berdintasun politika bultzatzen badiharduzue Udalean?**

Genero eta sexu indarkeriaren biktima diren emakumeei harrera hobea egiteko erakundeekin protokolo bat abiatu dugu. Baita tailerrak ere, parekidetasuna lantzeko. Denon arteko lana izan behar du. Sentsibilizazio eta prebentzio maila landu behar da. Aldundiarekin tailerrak egin dira eta gazteen artean oso ondo baloratu dira. Txalotzekoa da gazteek egindako ekarpena Martxoaren 8rako. Ekimen garrantzitsua eta polita egin dute.

**Eskola txiki geratu da.**

Jaurlaritzarena da eskumena, baina gainean gaude. Obrak geldi egon dira eta Delegaritzatik esan digute erabilera askotariko gelak baditugula, baina horrek ez du arazoa konpontzen; ezta jarritako bi moduluek ere. Haur eskola ere berehala geratu zen txiki. Herriko eraikinen egoera eta erabilera lantzeko parte-hartze prozesua abiatuko dugu herriko beharrei erantzuteko. Horretarako, Partzuergoarekin gaude harremanetan.

**DKT txartela ere jarri duzue.**

DKT txartelari esker, bailarako kiroldegiak erabiltzeaz gain, herriko gimnasioa 15 euroren truke ere erabil daiteke.

**'8 miliak': oihartzuna izan du.**

Herritarrek antolatua, txalotzekoa. Arrakasta itzela izan du.

**Torresoroako harmailak noizko?**

Dagoeneko hasi dira jartzen eta hil bukaerarako prest egongo dira. 160 lagunendako tokia izango du. Eskertu egin nahiko nuke Aldundiak eta Goizperrek diruz lagundu izana.

## Herrian igerilekuak egiteko proiekturik badago?

"Zintzo jokatuta, esan beharra daukat inondik inora ez dugula aurreikusten igerilekuak jartzea momentuz herrian. Ez dakit gerora posible izango ote den, baina epe motzean ez, behinik behin. Orain, baina, garraio publikoaren gaineko batzarrean lantzen ari dira autobus zirkularrak jartzea posible ote den Bergarara eta Arrasatera joan ahal izateko; eta uda sasoian, Debara eta Zarautzera joateko autobus zerbitzua jartzea posible den ere aztertzen dabiltza".

OPOSIZIOAREN BALORAZIOA

**Maria Eugenia Arrizabalaga** | EAJko zinegotzia

### "Anbizio gutxikoa, egunerokotasunean zentratua eta definizio gabeko Gobernua"

"Gehiengo absolutua duen Gobernuaren aurrean ahaleginak egiten ditugu; ez da erraza oposizio lana aurrera eramatea; nik exijituko nieke jarrera aldaketa. Egunerokotasunean erabat zentratua eta anbizio gutxiko kudeaketa egin dute, inbertsiorik gabekoa. Bi milioi euro inguruko zorra du, baina baita 600 milioi euroko gerakina ere zorra kentzeko. Herritarrak kexu dira Ezker Abertzaleak begirune oso gutxiko mezuak botatzen dituelako kaleetan. Biomasaren proiektuaren berririk ere ez daukagu".

▶ **ALKATEAREN ERANTZUNA**

"Hainbat lege aldatu dira eta horren arabera aurrekontua egiteko modua ere bai. Zorraren mailegua baldintza onean daukagu eta iazko finantza planean erabaki genuen soberakina herrian gertatzen diren ezustekoei erantzuteko gordetzea: irisgarritasun baldintzak betetzeko adibidez. Herritarrek adierazpen askatasuna dute eta gu ez gara sartuko zeinek jartzen dituen. Aramaioko Biomasa proiektuaren emaitzaren zain gaude gurera ekartzeko".

OPOSIZIOA ALKATEARI GALDEZKA

### Zabor bilketak aurten 70.000 euroko defizita eragin du. Zein muga izango du bilketaren defizitak?

"Lehenengo, Mankomunitateak Antzuolako ezarpena ordaindu zuen eta ondoren Antzuolak beste guztiena. Aipatzen duen diru horretan, ekarpen arruntak eta kapital ekarpenak daude. Ezin dira nahastu. Mankomunitatean hondakin bilketa sistema selektibo desberdinak martxan jarri dira eta inbertsio batzuk egin dira. Lan horren isla birziklatze tasaren gorakada nabarmenean izan da".

### Herriko irteera eta sarrera errazteko garrantzitsua da biribilgunea; noizko aurreikusten da?

"Supideko biribilgunea noizko egingo den ezin dugu esan Aldundiaren konpromisoa behar dugulako. Gai garrantzitsuenetako bat da guretzako eta lortu egin gura dugu, bai ala bai. Gainean gaude eta egin gura dugu".

**Elkarrizketa osoa:** eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

# Herritarrak hasi dira ikurrinak zintzilikatzen

Udalak egin du deialdia, Espainiako bandera jartzeko epaiari "aurre egiteko"

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA
Apirilaren 14a baino lehen Espainiako bandera izan beharko da jarrita udaletxean, Espainiako Gobernuaren ordezkaritzak egindako errekerimenduaren eta 696/2013 epaiaren ondoren. Hori horrela, Udalak ikurrina omendu gura du eta herritarrei dei egin die etxeetako leiho eta balkoietan ikurrina zintzilikatzeko eta horren alde egiten diren ekimenetan parte hartzeko.

**1977an jarria**

1977ko urtarrilaren 19an jarri zuten lehenengoz ikurrina gurean, legeztatu eta gero. Joxe Olabe udalbatzako kide zen, eta ondo gogoan du orduan bizi izandakoa: "Osoko bilkura berezia egin genuen udaletxean, eta gero Herriko Plazara joan ginen ikurrina omentzeko, parrokiako kanpaiak jo eta jo zebiltzan bitartean. On Angel parrokoak bedeinkatu egin zuen lehenengo; abertzale sutsua zen hura eta erabat hunkituta zegoen. Gero, abesbatzak kantuan egin zuen". Eta hau gaineratu du: "Zelan zegoen Herriko Plaza? Hunkitutako herritarrez goraino beteta, goraino. Egun hura baino lehen ikurrinik ez jartzeko esanda zegoen, baina herritarrek ordurako zintzilikatuta zituzten leiho eta balkoietan".

Ikurrina legeztatu zela 25 urte bete zirenean ere omenendu zuten herritarrek, 2002an.


Plazan jarritako ikurrina altxatzen Joxe Olabe, 2010eko abenduan. | M.A.

2010eko abenduaren 31n, ostera, Herriko Plazan beste ikurrin bat jarri zuten, eta orduan ere Joxe Olabek jaso zuen. Hain zuzen, horren bultzatzaileen helburua zen udaletxeko balkoikoa kendu eta bakarra plazakoa izatea, Espainiako banderarik jarri beharrik ez izateko. Baina ez da bete haien asmoa.

**Apirilaren 11ko ekitaldia**

"Geurea ikurrina dela aldarrikatzeko" omenaldia egingo diote apirilaren 11n, egubakoitza, 18:30ean. Plaka bat jarriko dute, lehenengo, udaletxeko aurrealdean. Ondoren, ikurrin berria altxatu, hari dantzan egin eta ikurrinarekin mosaiko bat osatuko dute bertaratutako guztien artean.

**Iñaki Ruiz de Egino** | Pintorea eta eskultorea

# "Sei eskultura daude, egin barik geratutako proiektuen maketak"

Hamasei pintura eta sei eskultura ditu ikusgai Arkupen hilabete bukaera arte

M.A. | ARETXABALETA
Iñaki Ruiz de Egino (Donostia, 1953) artistaren *Visiones geométricas* erakusketa dago ikusgai Arkupen. Ikerketa geometrikotik abiatutako pinturak –hamasei inguru– eta eskulturak –sei– jarri ditu, bere lanaren laburpen bat.

**Zer ekarri duzu Aretxabaletara?**

Hainbat alorretako erakusketa da, garai askotariko lanen nahastea. 1990eko hamarkadan egindako *Intimidad callada* izeneko serie bat ekarri dut. Mondrianetik abiatuta egindako hainbat pintura-lan dira, geometrismo neoplastizistakoak, hain zuzen.

Gero, *Arquitecturas rurales vascas* seriea dugu, formatu handiagoko hiru pieza dira horiek, 80ko urteen erdialdean egindakoak. Orduan lan egin nuen baserri giroko lan-tresnen gainean, Donostiako San Telmo museoan dauden piezetatik abiatuta.


Ruiz de Egino artista Arkupen ikusgai jarritako eskultura batekin. | M.A.

**Nolatan hartu zenuen gai baserriko lan-tresnak?**

San Telmo museoko komisioko kide nintzen orduan eta konturatu nintzen lan-tresna asko galtzen ari zirela, hala nola sega, aitzurra... Baita upelgintzako tresnak ere, nahiz eta orain berriro berreskuratzen hasi sagardotegi inguruetan. Baina garai baten galtzen zebiltzan guztiak, zaharkituta geratzen zebiltzan, eta horiek berreskuratzen saiatu nintzen; hori bai, gaurkotuta.

**Artearen gainean ezjakinak garenok zer ikusi behar dugu pinturetan?**

Eraikuntza bateko piezak hartu, leiho bat edo ate bat, esaterako, eta horien portaera islatzen dut. Leiho batek hutsune iluna sortzen badu horman, beltza erabiltzen dut, eta, hala, planoak hurbildu eta urrundu egiten ditut. Izan ere, hori da kalean goazenean ikusmenak duen portaera, benetan kontziente ez izan arren.

> **"Eraikuntza bateko piezak hartu eta portaera islatu dut pinturetan"**

**Kolore askorik ez duzu erabili lan horietan.**

Egia da, serie hori ez da oso kromatikoa. Oinarrizko koloreak erabiltzen ditut, gehienbat: grisa atzealde edo oinarrirako, grisa delako espazio absolutuaren kolorea neoplastizismoan eta konstruktibismoan; eta gris horren gainean daude beste koloreak, espazioan sartu eta irten.

**Eta sei eskultura ekarri dituzu.**

Bai, eskultura horiek dira egin barik geratutako proiektuen maketak. Horietako bat Wiesbaden hiriko plaza baterako egindako proiektua da, gero ezin izan zena egin. Beste bi Donostiarako egindakoak: bata, Aieteko jauregirako eta bestea, Londres hotel inguruan jartzeko. Beste bat esferaren gainean egindako lan bat da, eta beste batek *Icaroren bizilekua* du izena.

**Kalerako eskulturak egiten dituzu, orduan?**

Bai; hainbat pieza ditut hemen, Frantzian eta beste hainbat tokitan. Orain, esaterako, 60 metro koadrotik gorako pieza bat lantzen nabil, argiarekin esperimentatuz; argi artifiziala sartu dut neure eskultura barruan, pauso bat harantzago emanda.

## Udaleku irekietan izena emateko epea zabalduko dute astelehenean

Uztailaren 1etik 22ra izango dira udalekuok, 2002 eta 2010. urte artean jaiotakoendako

M.A. | ARETXABALETA
Hasi da Udaleko Gazteria Zerbitzua udaleku irekiak antolatzen, eta izena emateko epea astelehenean, apirilak 7, zabalduko du. Hilabete izango dute gero interesatuek, maiatzaren 7a arte, eskaera orria bete eta hori entregatzeko. Horretarako udaletxean bulegoa duen Gazteria Zerbitzura jo behar dute interesatuek, astelehen eta eguaztenetan (09:00-14:00), edo Arkupe kultura etxera. Epez kanpo ez dutela izen-ematerik onartuko jakinarazi dute antolatzaileek. Prezioa 60 euro da –hiru anai-arrebak izena emanez gero, hirugarrenak ez du ordainduko–. Edozein zalantza izanez gero, Gazteria Zerbitzura jo dezakete gurasoek.

Uztaileko lehen hiru asteetan egingo dituzte udalekuok, hilaren 1etik 22ra, hain zuzen, eta ordutegia hau izango da: 10:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 17:00etara. 2002 eta 2010. urte artean (biak barne) jaiotako neska-mutikoek parte hartuko dute; 2010ean jaiotakoak goizez bakarrik egongo dira.


Umeak iaz udalekuetan. | Z.V.D.M.


BASOTXO

## Podologia berbetagai Basotxon

Helduen oinek behar dituzten zaintzen gainean jardun zuen Done Larrea podologo aretxabaletarrak Basotxoko bazkideekin –20 bat lagun– martitzenean. Oinetako arazoen berri eman zien, gainera, eta zelan zaindu gomendioak helarazi. Done Larrea hilabetean behin joaten da Basotxora podologia zerbitzua eskaintzera.

# Kepa Errasti egongo da hilaren 8ko film laburren emanaldian

Zazpi film labur emango dituzte, baita 'Euskaldun berriaren esketxa' ere

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Euskaltzaleen Topaguneak antolatutako film laburren XI. zirkuitua, Laburbira, martitzenean iritsiko da gurera. Zazpi film laburrek osatzen dute aurtengo zirkuitua, eta Arkupen emango dituzte horiek, 18:30ean.

Filmen artean Kepa Errasti aretxabaletarrak zuzendutakoa dago: *Euskaldun berriaren esketxa*. Loramendiren sustapen taldearekin elkarlanean *Prozaka.eus* ikuskizunerako sortutako esketx bat da, eta horren berri emateko Errasti bera gonbidatu dute Loramendiko kideek.



Kepa Errasti eta Laura Perez filmaren une batean. | TOPAGUNEA

**Zazpi film**

Euskal sortzaileek egindako ikus-entzunezkoen ekoizpenak ezagutaraztea du helburu Laburbirak. Zazpi filmok 2013an ekoiztutakoak dira eta hainbat jaialditan saritutakoak daude. Hona filmak: *Abuztua* (Pello Gutierrez); *Aio* (Asier Sustaeta); *Euskaldun berriaren esketxa* (Kepa Errasti); *Irudi mintzatuen hiztegi poetikoa* (Aitor Gametxo, Maider Fernandez, Maria Elortza); *Marylin* (Iñaki Beraetxe); *Plaza bakarra* (Mediaworks 3.0); eta *Sormenaren bide ezkutuak* (Lara Izagirre).

### 'Ocho apellidos vascos', gaur hasita

Gaur iritsiko da Aretxabaletara arrakasta handia izaten dabilen *Ocho apellidos vascos* filma. Bi aste bukaeratan emango dute, inor gera ez dadin ikusi barik, guztira hamabi emanaldi: 4an (22:00); 5ean (19:30 eta 22:00); 6an (19:30 eta 22:00); 7an (16:00); 11n (22:00); 12an (19:30 eta 22:00); 13an (19:30 eta 22:00) eta 14an (16:00). Eta apirilaren 25etik 28ra bitartean *Gran hotel Budapest* emango dute. Umeek, ostera, *Lego* filma izango dute bihar eta etzi (17:00); *Bram Barrabas* hilaren 12an eta 13an; eta *Peabody&Sherman* 23an, 24an, 26an eta 27an.

Film horiekin agur esango diote zinemari Arkupen, uztaila arte (udako zinema), eta berriro azaroan hasiko da zine denboraldia.



M.A.

## Txertoak zientziaren ikuspegitik

Txertoen gainean jardun zuten Arantza Landaluze Aretxabaletako osasun etxeko erizainak eta Rosa Sancho osasun publikoko ordezkariak, eguaztenean. Zer diren, zein hobekuntza ekarri duten osasunera, txertorik ez jartzearen ondorioak, gaixotasunek dakartzaten arriskuak, txertoen gainean dauden uste okerrak... izan zituzten berbetagai eta elkartutakoen zalantzak ere argitu zituzten.

## Jaiki elkarteak topaketa antolatu du Galartzan apirilaren 11tik 13ra bitartean

M.A. | ARETXABALETA

Urtero egin izan dute aste bukaerako topaketa Jaiki elkarteko kideek, eta aurten *Jaiki eta zatoz!* leloarekin apirilaren 11tik 13ra da. Galartzako aterpetxean elkartuko dira, eta hainbat jarduera egin: dantza saioak; umeendako tailerrak eta jolasak; musika emanaldiak; ezagutzak trukatzeko tailerrak; ezustekoak…

Izena aurrez eman beharra dago eta kopuruaren arabera jakingo dute egonaldiaren prezioa. Interesatuek mezu bat bidal dezatela helbide hauetakoren batera: *jaikielkartea@yahoo.es* edo *farrebarre@gmail.com*. Edo telefonoz deitu: 686 17 87 19.

# Irakur Maratoiarekin bukatu dute astea

M.A. | ARETXABALETA

Literaturari eskainitako astea egin dute Kurtzebarri eskolan, eta aurten euskal ilustratzaileak izan dituzte protagonista; hala, haien lanak ezagutzeko aprobetxatu dute. Astelehenean, gainera, Yolanda Arrieta idazlea izan zuten bisitan, eta lehenengo mailatik bosgarrenerainoko ikasleek berbalditxoan jardun zuten harekin.

Atzo eman zioten bukaera Literatura Asteari, urtero legez Irakur Maratoia eginda. Dagoeneko 23. aldia izan da, eta ikasleak, irakasleak, gurasoak… joan ziren eskolako aretora liburu bat esku artean hartu eta irakurketari tarte bat eskaintzeko.



Neska-mutikoak irakurtzen Kurtzebarri eskolako aretoan. | M.A.

### Merkatariek eta industrietako ordezkariek hilaren 11rako aukeratu behar dituzte edukiontziak

Hondakinen informazio bulegotik pasatu behar dute merkatariek eta industrietako ordezkariek edukiontziak aukeratzeko. Askok dagoeneko aukeratu dituzte; gainerakoak, apirilaren 11 baino lehen egitera gonbidatu ditu Udalak. Hondakinen informazio bulegoa Durana kalean dago eta goizez dago zabalik astelehenetik egubakoitzera (10:00-14:00), eta arratsaldez, astelehen eta eguaztenetan (15:00-19:00). Apirilaren 11rako edukiontziak aukeratuta dituztenei, euren komertzio eta lantegietara gerturatuko dizkie Udalak. Gainerakoek biltegira joan beharko dute jasotzera.

### 'Zapataria eta prakagorriak' ipuin kontaketa eskainiko du Itzal Antzerkia taldeak bihar

Grimm anaien ipuin klasikoaren euskal bertsioa eskainiko dute Itzal Antzerkia taldeko kideek bihar, liburutegian (11:30). Itzalen bitartez eta soinuek lagun eginda Joxemari izeneko zapatari behartsu baten istorioa kontatuko diete neska-mutikoei, halako batean erregearen zapatak konpontzeko enkargua jaso duen zapatariarena.



# Domekan zabor organikoa atera beharko dute eskoriatzarrek

Etzi hasiko dira herritarrak zaborra gaika banatzen; Udalak gertu du guztia

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Etzi, domeka, hasiko dira eskoriatzarrak zaborra atez ate ateratzen, eta dagoeneko gertu ditu Udalak sistema berria martxan jarri ahal izateko baliabide gehienak; azken ukituak baino ez dira falta; herrigunean, esaterako, zintzilikarioetan herritar bakoitzari dagozkion pegatinak jarri behar dituzte; eta elizateetan, miniguneak egokitzen amaitu.

Atez atekoa ezarrita dagoen gainerako herrietan bezala, egunaren arabera atera beharko da zabor mota bat edo beste (ikusi ondoko taula). Ordutegiari dagokionez, 19:00etatik 06:00era atera ahalko da, zapatuetan izan ezik, 19:00etatik 23:00etara izango da orduan. Bilketa egin ostean, biltzaileak beste modu batean utziko du ontzia zintzilikatuta; horrek jakinaraziko dio herritarrari jaso dezakeela.

Ordutegi edo egutegi horretara egokitu ezin diren edo ezohiko zerbait duten herritarrendako larrialdi-gunea ere egokitu dute tren geltoki zaharrean. Etxola horren giltza udaletxean edo kiroldegian eskatu beharko da.

### Edukiontzi berdeak

Organikoarekin hasiko da etzi atez atekoa. Horren bueltan, Eskoriatzako alkate Beñat Hercek jakinarazi du gaur egungo edukiontzi berdeak egubakoitzera arte erabili ahal izango direla eta Debagoieneko Mankomunitatea asteburuan hasiko dela edukiontzi horiek herriko kaleetatik kentzen. Hortaz, gomendatzen dute egubakoitzean bertan hastea zabor bilketa gaika egiten, domekan zintzilikariora eroateko.

Alkateak honako mezua helarazi gura izan die eskoriatzarrei: "Ohitura aldaketa txikia da, arazo bati irtenbidea ematea da, eta erraza da. Anima daitezela, ondo egitera goaz; horretarako laguntza izango dute".

Horren harira, sistema berriarekin lotutako zalantzak argitu gura dituztenendako edo materiala oraindik jaso barik daukatenendako zabalik egongo da beste bospahiru hilabetez Ibarraundi museoan dagoen Hondakinen Bulegoa. Astelehenetik eguenera bitartean, goizez eta arratsaldez egongo da hori zabalik eta egubakoitzetan, berriz, goizez bakarrik.

### Eskoriatza Garbia

Bestalde, Eskoriatza Garbia plataforma batzar irekia egitekoa zen atzo, eguena, arratsaldean, Ibarraundi museoan. Atez atekoaren kontrako ekintza berriez jarduteko asmoa zuten bilkura horretan.

**EGUTEGIA ETA ORDUTEGIA**

**Astelehena:** papera eta kartoia
**Martitzena:** organikoa
**Eguaztena:** ontzi arinak
**Eguena:** errefusa
**Egubakoitza:** organikoa
**Zapatua:** ontzi arinak
**Domeka:** organikoa
**Egunero:** pixoihalak, konpresak, erabilitako bendak...
**Ordutegia: 19:00-06:00.**
**Zapatuetan: 19:00-23:00.**

## Gasa moztu eta Txistularien Arratia itxi behar izan zuten eguaztenean

IMANOL GALLEGO | ESKORIATZA

Sustorik susto ibili ziren eguaztenean herrian. Eguerdi partean, urbanizazio lanak egiten ari ziren langile batzuek Santa Marina plazako gas-hodia zulatu zuten. Abisua pasa eta gasa mozteko zailtasunengatik, larrialdi protokoloa martxan jartzea erabaki zuten. "Gas asko irten da, eta jendeari leihoak itxi eta etxean geratzeko gomendatu diogu", azaldu zuen orduan Beñat Herce alkateak.

Larrialdi zerbitzuak eta Naturgas enpresako langileak bizkor joan ziren gertaera izandako tokira, eta gasa moztu zuten. Azken horiek hodia mozteko arazoak izan bazuten ere, 17:00ak baino lehen normaltasunera bueltatu zen zerbitzua.

### Tximinia zatia behera

Bestalde, ia ordu berean, San Juan kale hasieran dagoen Txistularien Arratiako alboko etxebizitza bateko tximiniako 'kaputxoi' metalikoa jausi zen. Udalak kalea ixtea erabaki zuen, eta arratsaldean suhiltzaileek ikuskatze lanak egin zituzten teilatuan.



DORLETAKO AMA TXIRRINDULARI TALDEA

## Giro onean egin zuten Eskoriatzako Saria

Dorletako Ama txirrindulari taldeak antolatuta, Eskoriatzako Saria egin zuten zapatuan. Benjaminetan, Alex Aranburu izan zen zirkuituari bueltan ematen azkarrena; kimuetan, Aimar Erostarbe oñatiarrak eta Garazi Estevez aretxabaletarrak irabazi zuten, eta Dorletako Amako lehena Enaitz Garaia aretxabaletarra izan zen. Haurretan, berriz, Iñigo Aranburu antzuolarra, Mikele Tolosa legazpiarra eta Joseba Rodriguez izan ziren azkarrenak.

## Luis Vil zinemagile eta musikaria izango da bihar Azkoaga Enean

M.B. | ESKORIATZA

Luis Vil amurriarraren film laburrez eta musikaz gozatzeko aukera dago bihar, zapatua, Azkoaga Enea hotelean. Lehenik eta behin, 20:00etan, Vilek berak zuzendutako hiru film proiektatuko dira: hain justu, *Flores de papel* eta *Paranoicos* izeneko film laburrak eta *Extraño* bideoklipa.

Lehenengo lana 2010ean egin zuen, eta, 48 minutuan, buruko gaitza duten bi lagunek ezkontzera doazela-eta aurre egin behar dizkioten oztopoak jorratzen ditu. Handik urtebetera grabatutako *Paranoicos* film laburrean, oporretan doan familia baten abenturak kontatzen ditu arabarrak. *Extraño* haren azken lana da; Marcos Alonsoren laguntza izan du horretan. Bestalde, 23:00etan, Luis Vil & La Mala Crianzak kontzertua eskainiko du toki berean.



Luis Vil musikaria. | LUIS VIL

## Beheko Errota musika eskolako bandak Udaberriko Kontzertua eskainiko du bihar

Udaberriaren hasierarekin batera, emanaldia egingo du bihar, zapatua, Beheko Errota musika eskolako bandak. San Pedro parrokian izango da kontzertua, 20:00etan, meza amaitu ostean. Oraingoan, honako lau pieza eskainiko dituzte musikariek: hain justu, J. Palancaren *Goya*, Brahmsen *Akademische Fest- Ouverture*, Karel Kolekaaren *Duke Ellington In Concert* eta Piet Swertsen *Shirim* lana. Musika eskolatik jakinarazi dute sorpresatxoa ere oparituko dietela entzuleei, betiko moduan.

## OHARRAK

### KANPO JOLASAK

Astero gertatzen dituzten ekintza berezien barruan, kanpo jolasak egingo dituzte gaur, egubakoitza, arratsaldean, Tortolis ludotekan. Bazkideendako da ekintza hori.

### MUSIKA ESKOLAK

Gaur, egubakoitza, kontzertua eskainiko dute Debagoieneko sei musika eskolek; 18:30ean hasiko da musika emanaldia Manuel Muñoz kiroldegian.

### TXOSNA BATZORDEA

Eingeinke ekimenak txosna batzordea osatzeko batzarra deitu du gaurko Inkernu tabernan (18:00). Sanpedroetarako txosnaguneko egitaraua eta gunea bera prestatzeko lantaldea sortuko dute.

### GAZTE TXEF

Gaztelekuan Gazte Txef lehiaketarekin dihardute. Bihar, zapatua, jokatuko dute finala; sari banaketa, ostera, etzi egingo dute.

### KIROL HITZORDUAK

Lau norgehiagoka jokatuko dira bihar herriko kiroldegian: 11:00etan, areto futbolean, etxeko gazteak eta Eraso Aiara lehiatuko dira; 16:00etan, saskibaloian, kadeteek Summa Aldapeta taldea izango dute parean; 17:45ean, areto futbolean, Euskal Ligan, Eskoriatzak Lakuan Donga; eta 19:15ean, azkenik, jarduera berean, baina 1. erregionalean, etxekoek Arcada en la Grada.

### SAGARDOTEGIRA IRTEERA

Olazar elkartearen eskutik, aurten ere sagardotegira joango dira herriko erretiratuak. Apirilaren 12an, zapatua, Usurbilen dagoen Aginaga sagardotegia bisitatuko dute. Urtero moduan, egun osoa emango dute kanpoan: 09:00etan irtengo dira Eskoriatzatik, eta goizean Tolosako merkatua bisitatuko dute; arratsalde partean, berriz, Donostian ibiltzeko aukera izango dute.

## Aldaypekoek batzar orokorra egingo dute bihar Ibarraundin

Aldaype ehiza eta arrantza elkarteak batzar orokorra deitu du biharko, zapatua, Ibarraundin. Iazko diru kontuak onartu eta egindako ekintzak gogoraraztearekin batera, aurtengo helburuak zehaztu dituzte, eta zuzendaritza batzorde berria izendatu. Lehen deialdia 16:00etan da eta bigarrena, 16:30ean.

**Oscar eta Tanis Mulas** | Aretxa Autoak–eko arduraduna eta langilea

# "Eskerrak eman nahi dizkiegu 30 urte hauetan gugan konfiantza jarri dutenei"

*Aretxa Autoak-en autoen funtzionamendu egokirako zerbitzu osatua eskaintzen dute eta 30 urte bete dituzte; hori ospatzeko, jaialdia egingo dute hilaren 11n Taberna Berrin bezero eta lagunendako*

**Zorionak! 30 urte bete dituzue Aretxa Autoak-en zerbitzua eskaintzen. Pozik zaudete orain arte egin duzuen lan guztiarekin?**

Bai, oso pozik gaude 30 urtean lan hau egin ahal izan dugulako. Oscar eta Tanis Mulas anaiok dihardugu bertan lanean eta autoen mekanika txikitatik gustatu izan zaigu. Horregatik, guri gustatzen zaigun horretan 30 urtez lanean jardutea pozgarria da benetan. Espero dugu, gainera, lanean jarraitzea beste horrenbeste urtean, posible bada, behintzat.

Eskerrak eman nahi dizkiegu, gainera, hemen izan ditugun bezero guztiei; izan ere, eurak barik ez zen posible izango horrenbeste urte egitea. Gure bezeroei zerbitzu onena eskaintzen saiatu izan gara betidanik eta horrela jarraituko dugu aurrerantzean ere.




Oskar eta Tanis Mulas anaiak, egungo bi langileak, duela urte ugari euren tailerrean zeukaten kartela erakusten.

**30. urteurrena ospatzeko jaialdi bat antolatzen ari zarete, gainera, ezta?**

Bai, 30 urte ez dira egunero betetzen, eta ospatu beharra dago. Urteurren festa egingo dugu Taberna Berrin apirilaren 11n, datorren egubakoitzean, 19:30ean. Bezero guztiendako eta trago bat hartu nahi duten lagunendako izango da jaialdia. Festa giroan eta lagun eta bezeroen artean ospatu nahi dugu Aretxa Autoak-en 30. urteurrena eta guztiok zaudete gonbidatuta.

**Zer egongo da festa horretan?**

Askotariko pintxoak egongo dira dastatzeko tabernan, lehengo tailerraren argazkiren batzuk erakutsiko ditugu eta zozketa bat egingo dugu bezeroen artean. Zoketa horretarako, gure bezero izan direnen izenak kutxa batean sartuko ditugu eta hainbat sari zozketatuko ditugu. Zozketa hori jaialdiaren egunean egingo dugu Taberna Berrin, eta, gainera, bertaratutako guztien aurrean egingo dugu zozketa.

**Nolako harremana daukazue bezeroekin?**

Bezeroekin harreman zuzena daukagu, eta, horregatik, jendea pozik dago. Esan behar dugu, gainera, duela 30 urte gure bezero ziren asko oraindik ere gure bezero direla, eta hori benetan adierazgarria da guretako. Gustura gaude eurekin daukagun hartu-emanarekin.

**Gaur egun Aretxabaletako Basabe poligonoan daukazue tailerra, baina aurretik beste leku baten izan zenuten lantokia, ezta?**

Bai, Aretxabaletako lehengo bainu-etxearen ondoan geneukan aurreko tailerra. Basabera etorri aurretik, han izan ginen urte batzuetan. Bertan egin genituen gure hasierak; autoak konpontzeko tailer moduan hasi ginen orduan. Eta Basabera duela 30 urte etorri ginen, 1984an, hain justu. Toki handiagoa da hau, hobeto prestatutakoa, eta Basabera pasa ginenean hasi ginen modu serioagoan lanean. Tailerraren izena ere aldatuaz joan gara; hasieran Carrocerias Oscar Mulas izena zuen tailerrak, gero Autos Aretxa eta azkenean Aretxa Autoak jarri genion.

**Zenbat langile zaudete gaur egun?**

Gaur egun, Oskarrek eta Tanisek, bi anaiok, jarraitzen dugu lanean batera. Garai batean sei edota zazpi langile izan genituen tailerrean, baina, azkenean, hainbat arrazoi direla-eta, biok gelditu gara.

**Nolako zerbitzua eskaintzen duzue?**

1984an Basabera etorri ginenean Seat-en zerbitzu ofizial izaten hasi ginen. Gero, Audiren eta Volkswagen-en zerbitzu ofizial moduan ere hasi ginen. 25 urte inguruan eskaini ditugu hiru zerbitzu ofizial horiek eta orduan hasi ziren autoen fabrikak gu formatzen. Gero, zerbitzu ofizial horiek eskaintzeari utzi egin behar izan genion; izan ere, inbertsio handiak eskaintzen zizkiguten taldean jarraitu ahal izateko. Orduan, tailer libre moduan lanean jarraitu genuen. Momentu hartan erabaki genuen marka horiei buruz genekien guztia aberasgarria zela eta formatzen jarraitzeko erabakia hartu genuen gure bezeroei zerbitzu onena eskaini ahal izateko. Zailtasun asko izan ditugu eta zailtasunak ditugu gaur egun ere, baina, hala ere, formatzen jarraitzea garrantzitsua iruditzen zaigu eta horixe egiten dugu.

**Beraz, egunean egoteko formazioak jasotzen dituzue?**

Bai. Urtero joaten gara azkeneko kontuen berri jakiteko ikastaroetara. Arazoak aurkitzeko ikastaroak, konponketa ikastaroak, bezeroarekiko izan behar dugun arretari buruzko ikastaroak… Laburbilduz, ahalik eta ondoen prestatuta egoteko ikastaroak egiten ditugu eta etengabeko formakuntza jasotzen dugu. Momentu oro saiatu gara langileok formazio ahalik eta onena izaten, zerbitzu onena eskaini ahal izateko. Izan ere, lana ondo eginda, jendea ere etorri egiten da eta ahalik eta arreta onena ematen saiatzen gara.

**Eta zertan zarete espezialistak?**

Batez ere, mekanikan, txapan eta pinturan. Autoen funtzionamendu egokirako zerbitzu osatua eskaintzen dugu. Autoarekin kolperen bat izanez gero, txapa eta pintura zerbitzua eskaintzen dugu; bestelako konponketak ere bai; errebisioak; elektronika kontuak… denetarik egiten dugu azken urteotan gure bezeroendako. Konponketak egiteko irteten den tresneria berriari dagokionez ere, adi egoten gara. Aztertzen dugu ea guretzako baliagarria den, eta, hala bada, erosi egiten dugu.

Eta esan bezala, batez ere, Seat, Audi eta Volkswagen autoetan gara espezialistak, baina bestelako marketakoekin ere aritzen gara eta kalitatezko produktuak erabiltzen ditugu lan egiteko orduan.

**30 urte bete ostean, gogoz zaudete lanean jarraitzeko?**

Bai, noski! Lanean jarraitzeko ilusiorik, behintzat, ez zaigu falta.

1984-2014
Aretxa autoak
Basabe poligonoa A-2-4
ARETXABALETA
Tel.: 943 71 00 68

30. urteurrena

URTEURREN FESTA!
Zatoz gurekin ospatzera!

GONDIDATUTA ZAUDE! ZATOZ!

Jaialdi berezia egingo dugu APIRILAREN 11n, 19:30ean Taberna Berrin, Aretxabaletan

Tragoak, pintxoak eta gure bezeroen artean zozketak izango dira.

Mila esker 30 urteotan gugan konfiantza jarri duzuen guzti-guztioi!

# Ramon Ajuria alkatea Goiena telebistan hilaren 8an, 'Harira' saioan

**J.B.** | ARAMAIO

Ramon Ajuria Goiena telebistan izango da datorren martitzenean, apirilaren 8an (22:00). *Harira* saioa dela-eta izango da Ajuria, Eneko Azkarate aurkezlea bailarako alkateekin egiten ari den errondarekin jarraitzeko.

Aramaion gori-gorian dauden kontuen gaineko azalpenak emango ditu alkateak, hala nola biomasa proiektua, aurrekontuak, A-2620 errepidea itxita egon izanak eragindako kalte-ordainen auzia eta aurtengo Udalaren inbertsio nagusiak.



Ramon Ajuria. | J.B.

**Herritarren eskaerei zabalik**

Horrez gain, herritarrek ere izango dute parte hartzeko aukera. Hau da, alkateari berari galderak egiteko aukera izango dute aramaioarrek: posta elektronikoa erabiliz *(harira@goiena.com)*, Twitter bidez *(#harira)*, Whatsapp edota Telegram aplikazioak erabilita (idatzizko zein ahozko mezuak) edota erantzungailu automatikoan ahozko mezua lagata. Hiru aukera horietarako telefono zenbaki bakarra erabili beharko da: 688 69 00 17. Saioa hilaren 8an izango da, 22:00etan.

## San Martin eskolakoen Zuhaitz Eguna gaur eta apirilaren 7an

San Martin eskolako Lehen Hezkuntzako ikasleek atzo ospatu behar zuten Zuhaitz Eguna, baina eguraldiarengatik egun bat atzeratu dute. Beraz, gaur goizean 75 pago eta 25 hagin landatuko dituzte San Adrian baseliza inguruan: "Basozainak zuloak egin ditu dagoeneko, gertu utzi du eremua landaketarako", azaldu du Udaleko Tokiko Agenda 21eko teknikari Jon Toñak. Haur Hezkuntzakoek hilaren 7an gladioloak landatuko dituzte Ibarrako lorategietan. Helburua da ikasleak ingurumenarekin eta biodibertsitatearekin sentsibilizatzea.

## Errenta aitorpena euskaraz egitera deitu du Udalak

Uemako parte diren beste udalerrien antzera, 2013ko errenta aitorpena euskaraz egitera deitu du Aramaioko Udalak. Horren berri emateko, bandoa atera dute: "Administrazioarekin euskaraz aritzeko eskubidea eta beharra dugu, eta, errenta aitorpena euskaraz eginez, administrazioaren euskalduntzean ere eragiten dugu". Aitorpena auto-likidazio proposamena berretsiz, era mekanizatuan, gestoria baten bidez, Ogasuneko bulegora joanda edota finantza erakunde baten eginda ere, herritarrei euskaraz egitera deitu diete.



Ander Fernandez, Bizente Goikoetxea plazan. | JOKIN BEREZIARTUA

**Ander Fernandez** | Eibar taldeko futbolaria

# "Jokatzen eta golak egiten ari naiz, oso gustura"

Denboraldia UDAn hasi zuen, baina urtarrila ezkero Eibarko bigarren taldeko erdiko aurrelaria da

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARAMAIO

Futbolari moduan orain arteko boladarik onenean dago Ander Fernandez (Aramaio, 1995). Urte hasieran Eibarren hasi zen UDAk utzita; Ohorezko Mailan lehiatzen da egun, Estatuko maila gorenean. Hasieratik jokatzen eta golak egiten ari da, eta hori gutxi balitz, lehen taldearekin –Bigarren Mailako liderrarekin– ere entrenatu du dagoeneko. Orain futbolaren langarik zailena du aurrean, eta ziur zeresana emango duela.

**Hasteko, noiz eta non hasi zinen federatu moduan jokatzen?**

Mondran bi urte egin nituen eta gero Aretxabaletara joan nintzen. Denboraldi hau ere UDAn hasi nuen, Alberto Albistegirekin.

**Nola jaso zenuen Eibarren deia?**

Bergaran Gabonetan jokatutako txapelketa baten Eibar izan genuen aurkari. Eurak ligan gaizki ari ziren orduan eta entrenatzaile berriaren lehen partidua izan zen Bergarakoa. Partidu ona egin nuen eta orduan, antza, begiz jo ninduen entrenatzaile berriak.

**"Esperantzarik ez da galdu behar, baina oso zaila da lehen taldean jokatzea"**

**Bigarren taldean ari zara, Estatuko gazteen arteko mailarik gorenean.**

Bai, hala da. Oso maila altua da, baina gazte mailaz harago Eibarrek lehen taldea bakarrik izatea arazo bat niretako. Nire azken urtea da gazte mailan eta datorren urtean profesionaletara salto egitea oso zaila dago, ia ezinezkoa dela esango nuke. Hirugarren Mailan taldea izan ezkero ederra litzateke niretako, egokitzen joateko. Beste aukera bat UDA Hirugarren Mailara igotzea edo Eibarrek fitxatu eta utzita Hirugarren Mailan dagoen beste talde batera joatea. Ikusiko da.

**Nola egokitu zara talde berrira?**

UDAn aurrean jokatzen nuen, edozein hegaletan. Eibarren, berriz, erdiko aurrelaria naiz. Espero baino hobeto nabil, minutu askorekin eta golak egiten. Aurrelariak gola du beti buruan eta dagoeneko lau sartu ditut. Era berean, taldean integratzea erraza izan da, oso gustura nabil. Arrasateko beste bi lagun ere taldean daude eta horrek asko animatu ninduen. Gainera, orain klasean ordu gutxi ditudanez ez dut inongo arazorik astelehenetik egubakoitzera lau aldiz entrenatzeko.

**Heldu zinenean jaitsiera postuetan zegoen taldea. Orain hobeto, ala?**

Bai. Ni hasi nintzenean jaitsiera postuetatik irteteko zortzi puntura geunden eta orain bost puntura daude postu horiek. Bolada oso onean gaude, bai horixe.

**Zerikusirik izango duzu zuk...**

Ez pentsa... UDA utzi nuenean orduan hasi ziren dinamika onean; kasualitatea dela esango nuke.

**Bigarren Mailako liderra den lehen taldearekin entrenatu duzu dagoeneko. Nolako esperientzia da?**

Hiru saio egin ditut. Oso esperientzia polita da, erritmoan igartzen da aldaketa handiena. Mikel Martija nire entrenatzaileak esan zidan; goizean entrenatzen dute eta ahal izan dudanean joan izan naiz. Aurrekoan, bajak zirela-eta, nire taldekide bat Gironara joan zen... Esperantza ez da galdu behar baina oso zaila da lehen taldean jokatzea. Lesio asko egon beharko lirateke.

# Musika Astea antolatu dute lehen aldiz, herriko musikariak protagonista direla

Apirilaren 7tik 13ra egunero ekintzaren bat Sastiñan edo kultura etxean

**J.B.** | ARAMAIO

Aramaiok musikarekin duen lotura estuaren adierazle da datorren asterako antolatu duten Musika Astea. Larraitz Arriolabengoa musika irakasleari bururatu zitzaion aste oso batez herria musikaz janztea helburu duen ekimena: "Ikasturtea hasi zenean nire ikasleekin kontzertu bat antolatzea zen asmoa, ikasitakoa herriari erakusteko. Baina Aramaion musikarekin lotura duten hainbat eragile daudela ikusita, zerbait gehiago antolatzea erabaki genuen". Bada, musikarekin zerikusia duten eragileen oniritzia jasota, proposamena aurkeztu zuen Arriolabengoak Udalean: "Baiezkoa jaso nuen eta diru partida txiki bat bideratu dute. Orain arte Udalak beti erantzun izan du ondo", dio antolatzaileak.

**"Egitarau polita"**

Herriko musikariak izango dira protagonista Musika Astean: Trikitixa Eskolak, Bertso Eskolak eta herriko abesbatzek hartuko dute parte, besteak beste: "Egitarau polita da gurea moduko herri txiki batendako".

Era berean, San Martin eskolak ere egingo du bere ekarpena; gelaz gela herriko musikarien –iraganekoak zein gaur egungoak– gaineko erakusketa "sinple eta xume" bat jarriko dute Sastiñan, Musika Asteak irauten duen bitartean. Herrikoak ez diren ekintzen artean, Ona taldearen *Perkutak* saioa nabarmendu du Arriolabengoak: "Saio interaktiboa da, oso interesgarria edozeinendako".

**MUSIKA ASTEAREN EGITARAUA**

**APIRILAK 7, ASTELEHENA**

**19:00** The Clash taldeko Joe Strummer liderraren gaineko *The future is unwritten* dokumentala, kultura etxean.

**APIRILAK 8, MARTITZENA**

**18:00** Aramaioko musika ikasleen kontzertua Sastiñan.

**APIRILAK 9, EGUAZTENA**

**18:30** Ona taldearen *Perkutak* izeneko perkusio tresnen saio didaktikoa Sastiñan.

**APIRILAK 10, EGUENA**

**18:00** Papargorri abesbatzaren emanaldia Sastiñan.

**APIRILAK 11, EGUBAKOITZA**

**20:00** Jazz kontzertua Jose Barrios Trio taldearen eskutik Sastiñan. Gero, poteoa, Trikitixa eta Bertso eskolakoek girotuta.

**APIRILAK 12, ZAPATUA**

**21:00** Kantu afari herrikoia.

**APIRILAK 13, DOMEKA**

**18:30** Bizente Goikoetxea eta Papargorriko Elaia abesbatzen kontzertuak Sastiñan.

**ERAKUSKETA SASTIÑAN**

Astean zehar herriko musikarien gaineko erakusketa jarriko dute San Martin eskolako ikasleek, 18:00etatik 19:30era.

ELGETA



Eskolako ikasle talde bat ortua prestatzeko lanetan. | L.Z.

# Eskolan hasita daude ortua prestatzen

Hurrengo astean, berriz, Kultura Astea izango dute eskolan, tartean, Pako Aristiren bisitarekin

**LARRAITZ ZEBERIO** | ELGETA

Apurka apurka Herri Eskolako neska-mutikoak hasita daude eskolako ortua prestatzen. Oinetako egokiak eraman dituzte eskolara asteon, eta taldeka antolatuta hasita daude frontoi zaharraren parean dagoen lur eremua egokitzen. Ez dute lan makala, izan ere landaketak egin aurretik ondo prestatu behar dute ortuko lurra.

Gune horretan egin berriak diren lanen ondorioz harri eta obra-hondakin asko dago lurrarekin nahastuta. Horiek guztiak bereizi behar dituzte lehenengo eta behin.

Aurrerantzean, beraz, frontoi zaharraren parean kokatuko da eskolako ortua, eta bertan hainbat landaketa egiteko asmoa dute eskolako arduradunek. Udalak ere onartuta dauka negutegi bat erosteko aurrekontua, eta asmoa da eremu horretan ipintzea.

Eskola kontseilua deituta dago martitzenerako, hilak 8. Irakasleen, gurasoen eta udalaren ordezkariak elkartuko dira 18:15tik aurrera eta besteak beste ortua, hondakinen kudeaketa eta bi urteko gelaren egokitzapen lanak izango dituzte hizpide.

**Kultura Astea**

Hurrengo astea, bestalde, berezia izango da eskolan Kultura Astea egingo baitute Haur Hezkuntzan zein Lehen Hezkuntzan.

Esamesen, txisteen eta atsotitzen zirkuituak egingo dituzte besteak beste, eta Lehen Hezkuntzako ikasleek Pako Aristiren bisita izango dute eguenean, hilak 8. Idazle ezaguna 6-12 urte bitarteko umeekin elkartuko da 15:15etik 16:00etara.

## NIRE USTEZ

**SEBAS ARANTZABAL**



# Aurrera bolie

Mundu guztia futbolari begira egoten den garai hauetan, gutxi batzuk, beste kontu batzuetan gabiltza. Duela hiru aste hasi genuen Gipuzkoako 45. hiru txirlo txapelketa: 9 herritako 12-83 urte bitarteko 80 bat bolarik 11 bolatokitan jardungo dugu giro ederrean guztia emanez.

Gaur egun bigarren mailakoa den kirola nagusi zen duela urte batzuk gure eskualdean; futbol zelaiak eta frontoiak eraiki aurretik bolatoki ugari zeuden. Elgetan bertan izango ziren dozena bat inguru.

Baina bola jokoaren oinarriak askoz lehenagokoak ditugu gure inguruotan. Adibide bezala, 1.558. urtean, Venezuelako Merida inguruetara iritsi ziren euskaldunen artean zeuden gure eskualdeko seme-alabak. Garai hartan boletan egiten zuten hemen, eta lurralde haietara ere eraman zuten kirol hori.

Gaur egun oraindik ere boletan jokatzen jarraitzen dute lurralde haietan. Horren adibide dira Aste Santuan Piñango inguru menditsuan ospatzen dituzten txapelketak. Inguruko bolari asko gerturatzen dira parte hartzera, batzuk egun osoa oinez edo zaldiz igaro ondoren.

Krisi eta murrizketa sasoi hauetan bada garaia kirol eta kirolari aberats horiei hainbeste begiratu gabe gure betiko kirolei gehiago begiratzen hasteko, bolatokiak zainduz eta irekita edukiz jendeak jolasteko aukera izan dezan.

Zaletasuna duten herritar guztiak animatu nahi nituzke txapelketan parte hartzera. Gure taldeetako eta bolatokietako ateak irekita izango dituzue.

## Hondakinen kudeaketarako sistema berria aurkezten

**L.Z.** | ELGETA

Asteon abiarazi ditu Udalak informazio batzarrak herritarrekin. Hondakinen %35 bereizten dituzte Elgetan, eta, zabor gutxiago sortzeko neurriez gain, hobeto eta gehiago sailkatzeko proposamena adostu dute Udaleko hiru alderdi politikoek. Sistema berriak txip sistemarekin zabaltzen diren hiru edukiontzi aurreikusten ditu: organikoarena, errefusarena eta ontzi arinena. Gainerako edukiontziek —arropa, olioa, papera, beira... — orain arte moduan jarraituko dute. "Batzarren helburua da herritarrei proposamena aurkeztea eta sortzen diren galderak eta zalantzak argitzea", esan du Oxel Erostarbe alkateak.



VANESSA MUÑOZ

## Karate eskolako 14 lagun Oñatin

Elgetako karate eskolako 14 neska–mutiko Oñatiko XIX. Shotokan lehiaketan izan ziren zapatu arratsaldean. Bergarako, Antzuolako, Elgetako eta Aloña Mendiko 118 karateka elkartu ziren Zubikoa kiroldegian, eta karate eskolan ikasitako katak erakutsi zituzten Elgetako neska–mutikoek ere. Eskarmentu txikia dute antzerako lehietan, eta urtean jendaurrean egiten duten saio bakarrenetakoa da Oñatikoa.

## 38.268,96 euroko soberakinarekin itxi du Udalak 2013a

Udal Gobernuak martxoko osoko bilkuran aurkeztu zuen 2013. urteko likidazioa. Oxel Erostarbe alkateak esan zuen hainbat inbertsio direla-eta une batzuetan diru arazoak izan dituztela, baina aurre egin diotela urteari. "Soberakin hori 2014ko aurrekontura joango da", esan zuen.

## Gaur, 17:20an, ipuinen ordu berezia 3-8 urteko umeendako

Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna izan zen eguaztenean, eta liburutegitik ipuinen ordu berezia antolatu dute gaurko, barikua. 3-8 urte bitarteko umeei zuzendua, 17:20ean hasi eta 18:15ean amaituko da. Ipuin kontalari boluntarioekin egindako saioen jarraipena da honakoa.

## OHARRAK

**ZEA MAYS ESPALOIAN**

Gaur, apirilak 4, Zea Mays eta Anai Arrebak kafe antzokian (ikus 31. orria).

**GOLDEN APPLE QUARTET**

Bihar, apirilak 5, Espaloian, *Bazen behin... Golden* ikuskizuna (ikus 31. orria).

**HERRIXA DANTZAN**

Domekan, 19:00etan, Xut taldearekin Espaloian. Sarrera librea (ikus 31. orria).

**ODOL-ATERATZEAK**

Sendagile taldea apirilaren 8an, martitzena, izango da udaletxean, 18:00etan hasita.

**PODOLOGOAK**

Kontsulta hilaren 10ean. Txanda hartzeko deitu 943 76 80 77 telefono zenbakira.

LEINTZ GATZAGA

# Eskaripeko autobus zerbitzua proposatu dute

Eskoriatzatik ordu erdian behin irtengo den autobusa Gatzagaraino igotzeko aukera eman du Diputazioak

**UBANE MADERA** | LEINTZ GATZAGA

Ibilbide hau egingo du Debagoiena eta Zumarraga artean Gipuzkoako Foru Aldundiak abian jarri gura duen autobus zerbitzu zirkularrak: Gatzaga-Eskoriatza-Aretxabaleta-Arrasate-Elorregi-Bergara-Antzuola-Zumarraga-Legazpi-Oñati-Elorregi-Arrasate-Aretxabaleta eta Eskoriatza-Gatzaga. Ordu erdian behingo maiztasuna izango du. Eta Gipuzkoako Diputazioak joan den egubakoitzean Gatzagan aurkeztu zuen aurreproiektuaren arabera, Eskoriatzatik irteten den autobus hori Gatzagara igotzeko aukera izango da.

Hain zuzen ere, eskaripeko zerbitzua da Diputazioak gatzagarrendako proposatzen duena: telefono zenbaki batera deituta, ordu jakin bateko autobusa Gatzagaraino igotzeko eskaria egin ahalko du, edozeinek.

Beraz, horrek Gatzagaren eta Debagoienaren arteko lotura nabarmen hobetzeaz gainera, aukera ematen die gatzagarrei Debagoienetik ateratzen diren gainontzeko zerbitzuekin lotura egiteko.

**Geraleku gehiago**

Besteak beste, Diputazioaren asmoak azaltzeko batzarrean bi proposamen helarazi zizkioten Foru Aldundiari: autobusa Arlabandik igo eta Gatzagatik jaistea. Eta geralekuak izatea Benta Frian eta Gure Ametsan, eta baita Arlabanen ere, Dorletako Ama Birjina inguruan. Aztertu egingo ditu eskaerok Diputazioak.

LEINTZ GATZAGA

## Thailandiarako bidea eta hantxe bizi izandakoak berbagai

Gaurko, egubakoitza, 19:00etan egin dute hitzordua kultura etxean, *Andaluziatik Thailandiara poliki-poliki bizikletan* diaporamarako. Zigor Lasagabaster aretxabaletarrak eta Maria Caro granadarrak iaz irailean Algecirastik irten eta Thailandiara bizikletaz egindako bidaia kontatuko du Lasagabasterrek berak.



Orbea Enduro Crew taldeko ordezkariak, martxo erdian, Udalako belardietako batean –Uriarte eskumakoa da. | ORBEA / JUANJO OTAZU

MENDIKO BIZIKLETA

# "Motibo askorengatik etorri gara Besaidera grabatzera"

Orbeak enduroan duen taldeak Besaide eta Udalan egin du bizikleta berriaren promozio bideoa

XABIER URZELAI | ARRASATE

Orbea etxeak endurora bideratutako mendiko bizikleta berria promozionatzeko Debagoiena aukeratu du; Rallon R4 izena du. Eta ez bizikleta bera promozionatzeko bakarrik, baita enduroan lehiatzeko duten taldea ere, Orbea Enduro Crew izenekoa.

Horretarako, taldea osatzen duten Europako *rider*-ak batu –tartean dago Markel Uriarte aretxabaletarra– eta hiru egunez Euskal Herrian izan ziren, besteak beste, bideoa grabatzen. Baina, halakoak egitera beste batzuetan Alpetara joan diren moduan, zergatik aukeratu dute oraingoan Debagoiena? [Besaide eta Udala artean hartu zituzten irudiak]. Bada, Orbeako marketin arloan lan egiten duen Aitor Otxoa arrasatearrak eman dizkigu xehetasunak: "Arrazoi asko daude bideo hori –eta *rider*-en egonaldia– hemen egiteko. Bideoa sagardotegi batean hasten da, Aian dagoen Satxota sagardotegian. Bertakoak lagun oso minak dira, eta bideoa umorez hasteko oso modu aproposa da, eta bide batez, gure kulturako zerbait erakutsi".

Eta ondoren datozen irudi guztiak Besaide eta Udala artekoak dira: "Markel Uriartek oso ondo ezagutzen ditu inguruak, gainera, tarte batzuetan Arrasateko bizikleta martxan sartutako ibilbidea erabili dugu; gure ingeniarietako bat Mikel Bergara da, Arrasateko martxa antolatzen duen lagunetako bat, eta hark hainbat aholku eman zizkigun grabazioak non egite aldera".

Bestalde, Besaide oso leku esanguratsua da, EAEko hiru lurraldeak batzen diren tokia, monolitoaz, mendizaleekin duen harremanaz... "Eta, horrekin batera, Markel Uriarteren eta bion lagun mina zen Joseba Iglesias ere omendu nahi izan dugu bideo honekin. Noski, AEBtan edo Ingalaterran bideo hau ikusten dutenek [milaka klik izan ditu] ez dituzte detaile horiek jakingo, baina gure lagunari omenalditxoa egin ahal izateak ilusio handia egin digu guri".

**Hiru egun gurean**

Orbea Enduro Crew taldean rider suitzarrak daude, frantziarrak, argentinarrak... "Eta eurekin dugun hartu-emana gertukoa izaten ahalegintzen gara. Hiru egun egin zituzten gurean, eta hirugarrenean joan ginen grabazio hori egitera. 04:00etan joan ginen Besaidera, egunsentiko lehen argiekin grabatzera, eta Udalan bazkaldu ostean, arratsaldeko azken orduan hartu genituen irudi gehiago".

**Bideoa ikusteko:** eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.

**Emaitzekin obsesionatu barik**

Munduko txirrindulari onena babestu beharrean, nahiago dute euren lurraldean ezagunak diren jendeaz lan egin. "Jende jatorra da, sanoa, eta ez digu horrenbeste axola probetan bigarren edo bosgarren sailkatzen diren. Guk beharrezkoa duten materiala ematen diegu, bizikletetatik hasita. Gero, bakoitzak bere herrian konpetitzen du, baina urtero egiten dugu halako *stage* bat, denok batzeko.

ESANAK

"Bizikleta bakarrik ez, taldea ere promozionatu nahi genuen"

"Aparteko ilusioa egin digu Joseba Iglesiasi omenalditxoa egiteak"

"Goizean goiz Besaiden grabatu, eta Udalara joan ginen gero"

AITOR OTXOA | ORBEA



ESKUBALOIA

# Izarraitz Aloña, Euskadiko Txapelketara igotzeko lehian

Oñatiarrek igoera fasea hasiko dute bihar, zapatua, ligan lider geratu den Irungo taldearen kontra

X.U. | ARRASATE

Eskubaloian urte ederrak pasa ostean, azken urteotan beheko mailetan lehiatu da Oñatiko senior mailako eskubaloi taldea. Hemen ere boladak izaten dira, leku guztietan moduan. Baina aurten goranzko joeran dator Izarraitz Aloña Mendi. Hala, Gipuzkoako txapelketan denboraldi ona eginda –hirugarren sailkatu dira ligan– oñatiarrek igoera fasea hasiko dute asteburuan. Bost partidu erabakigarri aurretik.

**36 urtean, hiru igoera fase**

Datu polita da, azken 36 urteetan hirugarren aldiz jokatuko du senior mailako taldeak halako igoera fase bat, eta urtean zehar egindako lana aurrean dituzten bost partiduetan borobildu nahi dute: hiru partidu etxean eta bi kanpoan.

Hala, Gipuzkoako lau taldek eta Bizkaiko bi taldek jokatuko dute fase erabakigarri hori, eta lehenengo hitzordua bihar, zapatua, izango dute (Zubikoa, 19:00) HTG Express Irungo Gaztiak taldeen kontra. Baliteke ez izatea igoera fasea hasteko kontrario aproposena, ligan eurak izan direlako indartsuenak. Baina zerotik hasten dira denak.

**Euskadiko Txapelketa, helburu**

Izarraitz Aloñaren helburua Euskadiko Txapelketara igotzea da, hain zuzen, Soraluce BKE talde bergarararra lehiatzen den maila berdinera.



Aurten, Leizaran taldearen kontrako lehian. | I.SORIANO

PILOTA

# Udaberri eta Talentudunen torneoak hastear

X.U. | ARRASATE

Bailarako pilotariek Gipuzkoako Udaberri Txapelketa hasiko dute asteburuan, eta baita Talentudunen torneoa ere. Hala, gaur 19:00etan hasita pilota partiduak izango dira Bergaran, Antzuolan eta Oñatin. Arrasateko Uarkapen, ostera, 20:30ean hasiko dituzte norgehiagokak.

Zapatuan, berriz, partidu gehiago izango dira Angiozarren (16:00) eta Aretxabaletan (18:30). Eta azkeneko hitzorduak domekan izango dira, Arrasaten; Uarkapen 11:00etan hasiko dituzte partiduak.

FUTBOLA

# Touring taldearen kontura nahi du Antzuolak liga lasai amaitu

Gainontzeko ordezkariek kanpoan jokatuko dute, askotariko helburuekin

**XABIER URZELAI** | ARRASATE

Hiru aste daramatza Antzuolak (37 puntu) lasaitasuna ematen duten puntuen bila, eta 40 puntuko zenbatekoak adierazi ohi du non dagoen muga hori. Bada, Beti Gazteren kontrako garaipenak helburu horretara gerturatu bazituen ere –duela hilabete–, azken hiru asteotan ezinean ibili dira Juanina Garairen mutilak.

Antzuola da asteburuan etxean jokatuko duen bakarra (bihar, 16:00), eta mailari eusteko erabateko borrokan dabilen Touring (30) izango dute aurrean.

**Besteek, kanpoan**

Aretxabaletak (51) olatuaren goialdean jarraitzen du, jaisteko asmo barik; Valleren mutilena bolada on bat baino gehiago delako, askoz ere gehiago [Hamabi garaipen jarraian]. Lider dagoen Berio (59) harrapatzea gaitza izango bada ere –datorren astean jokatuko dute euren kontra etxean– bigarren postuak Hirugarren Mailara igotzeko *playoff* -etarako txartela emango lieke; hala, hamairugarrena nahi dute, domekan, Vasconiaren zelaian (17:30, Donostia).


Antzuolako Jon Linazisoro. | I.S.

Horren ikusgarri ibili barik ere, Aloña Mendi (47) bidea egiten doa poliki-poliki, eta dagoeneko bosgarren daude sailkapenean. Eta argi, hurrengo hiru taldeak lau puntura baino ez dituelako –18 puntu geratzen dira jokoan. Hala, bigarren postuaren borrokan sartzea ez da pentsaezina.

Bergara (31) da laugarren taldea kategorian, eta horiek bai, horiek egoera estuagoan daude, azken zazpi partiduetan irabazi barik. Hala, mailari eusteko borrokan hirugarren dagoen Tolosaren zelaira joango dira etzi (16:30).

**Mondra azkenera arte lehian**

Mondra beste talde askorekin batera mailaz igotzeko borrokan dabil. Joan den astean Oriokorekin berdindu izana ez zen emaitza ona izan, baina bihar (16:30) dute Deban kontrario zuzen bat gainditzeko aukera.

ESKUBALOIA

## Egiaren kantxan jokatuko du Ford Mugarrik bihar

Ohorezko Maila Nazionalean hiru jardunaldi geratzen zaizkio ligari, eta hiru partidu horiek ahalik eta motibazio handienaz jokatzen ahalegin-duko dira Ford Mugarrikoak. Ez da erraza, denboraldi nekagarria izan delako eta etxerako lanak jada eginda daudelako. Bihar, Egiaren kantxan dute hitzordua 18:15ean.

**Soraluce BKEk ere hiru**

Euskadiko Txapelketan, Muniategiren taldeari ere hiru jardunaldi geratzen zaizkio. Hala, zapatuan sailkapenean erdian dagoen Erandioren kontra jokatuko dute etxean, 16:15ean.

ERRUGBIA

# Atzeratutako partiduetako bat jokatuko du ARTk etzi Mojategin

**X.U.** | ARRASATE

"Taldekideak alferrik joan dira Hernanira, epailea ez delako partidura agertu", azaldu zigun joan den asteburuan Iker Elortzak, Arrasate Errugbi Taldeko ordezkariak. Eta halaxe izan zen, epaile nahikorik ez zegoelako; Federazioak guztiei deitu omen zien, baina inork ezin izan zuen bete berez tokatzen zen epaileak utzitako hutsunea. Hala, bi taldeak Landareko zelaian gertu, eta ezin jokatu geratu ziren.

Berez, amaitu da Euskadiko Liga Txapelketa, baina Arrasateko taldeari nahi baino gehiago luzatu behar zaio denboraldia, oraindik atzeratutako bi partidu geratzen zaizkiolako jokatzeko: joan den astekoa, eta Uribealdearen kontra jokatu ezin izan zutena, talde bizkaitarrak ez zituelako nahiko jokalari.

**Domekan Mojategin**

Hain zuzen, Federazioak halaxe erabakita, domeka eguerdian jokatuko dute Isasiren mutilek Uribealdekoen kontra (12:00) eta datorren asteburuan izango dute, seguruenik, Hernaniren kontra jokatu beharrekoa.

Gero, hainbat lagunarteko izango dituzte, ekainean Nazioarteko Torneoa iritsi bitartean.

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

**FUTBOLA**

**GAZTEAK, EUSKAL LIGA**
Lagun Onak-Aretxabaleta
Zapatuan. 12:30. Garmendipe.

**OHOREZKO ERREGIONALA**
Vasconia-Aretxabaleta
Domeka. 17:30. Donostia.
Antzuola-Touring
Zapatua. 16:00. Estala.
Getariako-Aloña Mendi
Domeka. 17:30. Mendibeltz.
Tolosa-Bergara
Domeka. 16:30. Berazubi.

**ERREGIONAL PREFERENTEA**
Amaikak Bat-Mondra
Zapatua. 16:30. Deba.

**LEHEN ERREG. IGOERA**
Gure Txokoa-Aretxabaleta UDA B
Zapatua. 16:30. Bera.

**LEHEN ERREG. KOPA**
Arizmendi-Urki
Zapatua. 15:30. Ibarra.

**OHOREZKO GAZTEAK**
Mondra-Amaikak Bat
Domeka. 16:00. Mojategi.
Urola-Aloña Mendi
Domeka. 16:00. Argixao.
Ilintxa-Bergara
Domeka. 16:00. Legazpia.

**ARETO FUTBOLA**

**EUSKADIKO TXAPELKETA**
Eskoriatza-Lakua Donga
Zapatua. 17:45. Manuel Muñoz.

**LEHENGO MAILA**
Aretxabaleta-Tellatuberri Zaldibi
Gaur. 19:45. Ibarra.

**ESKUBALOIA**

**LEHEN NAZIONALA**
Egia-Ford Mugarri
Zapatua. 18:15. Donostia.

**EUSKADIKO TXAPELKETA, GIZONEZKO SENIORRA**
Soraluce BKE-Erandio
Zapatua. 16:15. Bergara.

**GIPUZKOAKO TXAPELKETA**
Bergara-Urola
Zapatua. 11:30. Labegaraieta.

**GAZTEAK, FEDERAZIO T.**
Mondragon Lingua Aloña-La Salle
Domeka. 12:15. Zubikoa.

**SASKIBAOIA**

**LEHEN NAZIONAL MAILA**
MU-La Peña Basket
Zapatua. 18:00. Iturripe.

**MAILA AUTONOMIKOA**
Natra Oñati-Astigarraga
Domeka. 12:00. Zubikoa.

**SENIOR BIGARREN MAILA**
Aloña Mendi-MU A
Zapatua. 16:00. Zubikoa.
Internacional-Soraluce BKE
Zapatua. 16:00. Donostia.

**SENIOR EMAKUMEZKOAK**
Oiarso-Eskoriatza
Zapatua. 18:00. Errenteria.

**JUNIOR GIZ. ERRENDIMEN.**
MU A-Easo 97
Zapatua. 12:30. Iturripe.

**JUNIOR. GIZ. PARTAIDETZA.**
Soraluce Bergara-Erroibide
Domeka. 10:30. Labegaraieta.
Mundarro-Aloña Mendi
Domeka. 18:00. Donostia.

**JUNIOR. EMAK. PARTAIDETZA.**
Luberri askatuak-Eskoriatza
Zapatua. 16:00. Donostia.

**PILOTA**

**BERGARAN**
Gaur, (19:00), sei partidu.
Zapatuan (Angiozarren), (16:00) zortzi partidu.

**ANTZUOLAN:**
Gaur. (19:00), partidu bat.

**OÑATIN:**
Gaur. (19:00), lau partidu.

**ARRASATEN:**
Gaur (20:30) bi partidu.

**ARETXABALETAN:**
Zapatuan (18:30), partididu bat.
Domekan (11:00) hiru partidu.

**GATZAGAN:**
Domekan, 10:00etan hasita Dorletako Amako partiduak.

**ERRUGBIA**

**EUSKADIKO TXAPELKETA**
ART Arrasate-Uribealdea
Domeka. 12:00. Mojategi.

**SPINNING**

**MARATOI SAIOA**
Zapatua. 16:00. Zubikoa.

Aurreztu.com
Debagoieneko eskaintza onenak

Debagoieneko eskaintza onenak Aurreztu.com-en dituzu.
Ezagut itzazu eskaintza hauek eta beste batzuk Aurreztu.com webgunean!

EKOBAI
Ezabatu birusak eta garbitu zure ordenagailua!
15€ LEHEN: 30€ DESKONTUA: %50



IGARO ESTETIKA
Brontzea zaitez 5 minutuan! DHA brontzeatze teknika, %100 naturala, UVA izpi barik!
28€ LEHEN: 38€ DESKONTUA: % 27



GORKA ILE APAINDEGIA
Neskentzat. Garbitzea, moztea eta orraztea.
28€ LEHEN: 30€ DESKONTUA: % 12


ZUMELTZEGI DORREA
Jan eta lo, konde bat bazina bezala, XIII. mendeko Erdi Aroko dorretxean
99€ LEHEN: 156€ DESKONTUA: %37


Negozio baten jabea zara eta Aurreztu.com-en agertu nahi duzu?
Jarri gurekin harremanetan: 943 25 05 05
goiena

# Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK

## AKUPUNTURA

**INTEGU**
Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34

## ALBAITARIAK

**ETXEBERRIA JULIO (DEBAGOIENEKO ALBAITARI OFIZIALA)**
Bergara / 609 54 16 13

## DENTISTAK

**AGIRRE HORTZ KLINIKA**
Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

**ARANBURU HORTZ KLINIKA**
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

**ARRASATE HORTZ KLINIKA**
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

**ARREGI HORTZ KLINIKA**
Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

**BERGARA HORTZ KLINIKA**
Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

**CAVIGLIA SILVANA**
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

**GOROSABEL J. ALBERTO**
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

**IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO**
Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

**IRIARTE IDOIA**
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealdea 2 behea ezk. / 943 76 80 06

**MAZMELA BOLINAGA ENRIKE**
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

**SAINZ MALKORRA ANA**
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

## DERMATOLOGIA

**TAMAYO CONCEPCION**
Oñati / Atzeko kalea 6 behea
620 12 48 43 / 943 71 61 82

## ENTZUMEN ZENTROAK

**INSTITUTO OPTICO – BIOACUSTICA**
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

## ERREUMATOLOGIA

**GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA**
**TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA**
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

## HOMEOPATIA

**AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)**
Arrasate / Nafarroa etorbidea 11
943 08 11 00 / 695 78 19 21

## KIROPRAKTIKA ZENTROA

**LARRAÑAGA ANDREA**
Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

## LOGOPEDIA

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## MASAJISTAK

**AZPEITIA IRUNE**
Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

## NEUROLOGIA

**AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)**
Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

## OPTIKAK

**BEGIONDO OPTIKA**
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

## ORTOPEDIA

**MARIA VICTORIA ANITUA**
Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

**UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)**
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

## OSTEOPATIA

**BENGOA NEREA**
Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

## PODOLOGOAK

**ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA**
Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

**IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA**
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

**OINEZ PODOLOGIA KLINIKA**
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

## PSIKOLOGOAK

**ARKAITZ IRAZABAL PSIKOLOGO KLINIKOA**
Bergara / 646 06 28 18
arkaitz.irazabal@gmail.com

**GARMENDIA LANDER**
Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

**NUÑEZ TXOMIN**
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

**VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)**
Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

## PSIKIATRIA

**IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)**
Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

## YOGA

**SAMADHI YOGA**
Bergara / Masterreka 13, behea
943 76 11 38 / 639 23 57 53.

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

# KULTURA



Loyola Garmendia, Kike Otxoa, Edu Errondosoro eta Manu Romano dira Golden Apple Quartet. | GOLDEN APPLE QUARTE

## Zilarrezko ezteiak beteta

1986. urtean, lagun baten ezkontzaren zeremonian abestu zuen elkarrekin lehenengoz laukoteak; harrekero, elkarri betiko maitasuna zin egin ziotela dio Donostiako taldeak.

Gospel musika oinarri hartuta abiatu baziren ere, askotariko estiloetan murgildu ziren geroago, betiere umorea izanik taldearen ikur nagusia. 1990ean lehenengo ikuskizuna taularatuta, 11 egin dituzte dagoeneko eta baita lau disko kaleratu ere. Pantaila txikian zein handian hainbat saio egin dituzte eta baita hainbat soinu bandatan abestu ere.

# Golden Apple Quartet-en umore dosia Espaloian bihar

- 'Era una vez.... Los Golden' lanean euren ibilbidea laburbiltzen dute
- Elgetako Espaloian erakutsiko dute bihar, zapatua, 22:30ean

**AITZIBER ARANBURUZABALA** | ELGETA

2011. urtean estreinatu zuten *Erase una vez... Los Golden* lana, urteurreneko ospakizunen biran. Donostiako taldearen ibilbidea laburbiltzen duen ikuskizuna, bada, Espaloira ekarriko dute bihar, zapatua, 22:30ean.

Sarrerak 15 eurotan eskura daitezke, *Espaloia.com* eta *Kulturalive.com* atarietan eta baita Espaloiako leihatilan zein Bergarako Artekale kalean dagoen Pikupe Produkzioen egoitzan ere. Goibeko euskara elkarteko bazkideendako, berriz, 10 eurotan.

**Musika umoreaz jantzita**

*A cappella* zein musikaz lagunduta kantatutako abestiak eta umorea dira Loyola Garmendiak (zuzendaria eta baritonoa), Edu Errondosorok (tenorea eta eszenaratze lanen arduraduna), Manu Romanok (baxua) eta Kike Otxoak (baritonoa) osatzen duten taldearen osagai nagusiak. "Une batez arazoak ahaztu eta ikusleari ondo pasatzeko tarte bat eskaintzea izan da Goldenek hasieratik izan duen helburua; eta, ondorioz, taldeari izaera eman dion ezaugarria. Bat nator aurrekoan egunkarian irakurri nuen honakoarekin: Osakidetzak Golden taldea errezetatu beharko lukeela, ibuprofenoa baino onuragarriagoa delako. Barrez lehertuko zarete", dio Kike Otxoa kideak.

**Bizipenak, ipuin formatuan**

Ordu eta erdi pasa irauten duen musika ikuskizunean, ipuin bat balitz bezala, taldearen 25 urteotako bizipenak kontatzen dituzte, *off*-eko ahots batek lagunduta. "Golden Apple Quartet-en esketx edo kantu ezagunak batu ditugu, bereziki; horien artean, *Buen menu* klasikoa, baina baita boleroak, kantu rockeroagoak, gospela... hau da, gure ibilbideko izarrak. Eta kantu berriak ere sartu ditugu", gaineratu du.

Lau aktore-abeslariak dira taularen gaineko protagonista bakarrak. "Agertokia hutsik dago, gu laurok nahikoak gara istorio hori kontatzeko. Oso dinamikoa da; orain, Alpeetan gaude, gero Veneziara goaz eta gero Afrikara...", esan du Otxoak.

**Elgetara, Pikupek eroanda**

Lagun batek gomendatuta jo zuen Karlos Etxanizek (Pikupe Produkzioak) laukotearengana. Elgetara etortzeko proposamena egin eta aurrerantzean taldearen manager lanak egitea adostu zuten gero: "Oso jator hartu gintuzten, eta, taldearen manager bakarrak ez garen arren, gure eskaintzakarteran ditugu orain. Telebistan ikusita ezagutzen nituen eta 2001. urtean Bergarako Orkestra Sinfonikoarekin egin zuten kontzertuan ikusi nituen lehenengoz. Miresgarria da ahotsekin *jolasteko* eta barre eragiteko duten trebezia; edonork ondo pasatzeko ikuskizuna da", dio Etxanizek.

Urte amaieran erakutsi gura dute labean dutena; oraindik ere soka luzea dute, bada.

**ESANAK**

**"Elgeta musika eta umorez betetzeko asmoz goaz"**

**KIKE OTXOA** | GOLDEN APPLE Q.

## Zea Mays eta Anai-arrebak gaur eta 'Herrixa dantzan' Xutekin domekan

Asteburuko egitaraua lepo beteta dute Espaloian. Zea Mays eta Anai-arreba taldeek kontzertua egingo dute gaur, egubakoitza, 22:30ean. Sarrerak 10 eurotan leihatilan erosita, eta 8 eurotan, berriz, aurrez eskuratuta.

Aiora (ahotsa), Piti (gitarra) Asier (bateria) eta Ruben (baxua) dira Zea Mays. Iaz Dave M. Allen ekoizle ezagunarekin (besteak beste, The Cure eta Depeche Mode taldeen ekoizlea) kaleratutako *Da* lana aurkeztuko dute. Melodia eta indarra batuta, intentsitatez betetako emanaldiak egiten ditu Bilboko taldeak.

Anai-arrebak boskotea, berriz, Jousilouli, NaizRoxa, Trigger Travis eta bestelako taldeetan ibilitakoek osatzen dute. Askotariko estiloak:



Zea Mays taldeko kideak. | ZEA MAYS

post-punka, elektronika, soula, rocka, funka, popa eta latindarra nahastuta, kontzertu dibertigarriak egiten dituzte. Disko musika errebindikatu, zuri-beltzezko garaiei kolorea eman, ezintasuna arrakasta bihur daitekeela sinistu eta berezkoa duten indarra dantzara bideratzen dutela diote adituek.

**Zuzeneko musikaz dantzan**

Sarritan erabili izan dituzte Patxi Monterok gidatutako *Herrixa dantzan* saioetan Iruñeko Xut taldearen doinuak. Domekan, bada, Espaloian diskoko doinuekin beharrean, Xuten zuzenekoarekin dantzatuko dute zaleek. Batez ere, *Gara 2012* euren azken laneko piezak joko dituzte, baina izango dira aurreko lanetako piezak ere: balsak, txotisak, soltekoak, jauziak, kontradantzak eta beste hainbat. Iruñekoek emanaldi gutxi egiten dituztela kontuan hartuta, bada, domekan 18:00etan Espaloira joatea da proposamena. Parte hartzea librea da eta sarrera, berriz, borondatezkoa.



2011n Oñatin ospatutako Debagoieneko musika eskolen topaketako kontzertu bat. | GOIENA

# Bailarako musika eskolen topaketa gaur Eskoriatzan

Kiroldegian egingo da kontzertua, 18:30ean, eta sarrera doan izango da.

JON MOÑUX | ESKORIATZA

Oñatiko, Bergarako, Arrasateko, Aretxabaletako, Eskoriatzako eta Soraluzeko musika eskolek hartuko dute parte Eskoriatzako musika eskolen topaketan. Arratsaldeko sei eta erdietan hasi eta ordu eta erdi inguru iraungo du kontzertuak. Musika saioaz gain, bestalde, merienda emango diete ikasleei, eta luntxa egongo da irakasleentzat.

Guztira, ehun ikasle inguruk hartuko dute parte. Adin tarte zabaleko ikasleak izango dira; gehienbat, 5 urtetik aurrerako haur eta gazteak izango diren arren, helduen talderen bat ere egongo da tartean.

Musika eskola bakoitzetik hainbat talde egin ohi dira ekitaldi horretarako. Zentro bakoitzak hamar minutu izango ditu, eta, eskain dezaketenaren arabera, eskolek beraien programazioa antolatzen dute. Hala ere, bizpahiru pieza joko ditu musika eskola bakoitzak.

Hamaikagarren urtea da topaketa horiek antolatzen direla. Aurten eskoriatzarrek antolatu dutenez, azkenak joten izango direla jakinarazi du Araceli Telletxeak, Eskoriatzako Musika Eskolako zuzendariak: "Anfitrioiak garenez, bestalde, ikasleen bi emanaldiez gain, irakasleok ere obra bat joko dugu".

**Antolakuntza**

Debagoieneko musika eskolen topaketa antolatzeko orduan hainbat laguntza izan dituzte. Gurasoen laguntza handia izan dutela dio Araceli Telletxeak: "Ekitaldia antolatzeko orduan, batez ere". Eskoriatzako Musika Eskolako zuzendariaren esanetan, bestalde, "topaketa hauen gastuak ez dira oso handiak izango; izan ere, lokala eta materia batzuk Udalak utzi dizkigu". Era berean, Udala arduratuko da soinu ekipoaz eta material handienak kiroldegira eramateaz.

Ekitaldiaren aurretik nekatuta eta urduri amaitzen dutela dio Araceli Telletxeak, "obrak prestatzeak eta entseguak egiteak lan handia eta denbora luzea" eskatzen du-eta. Hala ere, egun polita izan ohi dela dio, eta dena ondo irtetea espero du.

# Eskolarteko Bertsolari Txapelketako finalera joango da Maider Arregi oñatiarra

Ane Zuazubiskarrek eta Urko Arregik apirilaren 4an jokatuko dute kanporaketa

JON MOÑUX | OÑATI

Martxoaren 21ean, Eskolarteko Bertsolari Txapelketaren barruan, 15 eta 18 urte arteko bertsolari gipuzkoarren kanporaketa egin zen Zumarragan. Bertan parte hartu zuten zazpi bertsolarien artean onena izan zenez, Maider Arregi zuzenean pasatu da maiatzaren 11n Arrasaten jokatuko den finalera.

Saio hartan beste bi debagoiendar ere egon ziren, Marixe Ruiz de Austri arrasatearra eta Gontzal Belategi oñatiarra. Kanporaketako bigarren eta hirugarren postuak, baina, Goierriko bi bertsolarik lortu zituzten.

Amalur elkartean egin zen bertso-saioa eta 60 bertsozale inguru elkartu ziren Gipuzkoako bertsolari gazteak kantuan entzuteko. Ofizioak, bakarkako lanak eta trikitiarekin lagundutako kopla saioa osatu behar izan zituzten bertsolariek lan puntuagarrietan. Agurrean, saioarekin gozatu izana aitortu zuten zazpiek.

**Mutrikuko kanporaketa**

Gaur iluntzean, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren beste kanporaketa fase bat jokatuko da Mutrikun. 15 eta 18 urte arteko zazpi bertsolari egongo dira, eta bi debagoiendar izango dira tartean, Ane Zuazubizkar arrasatearra eta Urko Arregi oñatiarra, hain zuzen ere.

Kanporaketa Mutrikuko gaztetxean egingo dute, eta arratsaldeko zazpietan hasiko den merienda baten ostean hasiko da bertso -saioa. Afarirako sarrerak *bertsosarrerak.eu* webgunean daude salgai hamabi eurotan. Bertso ekitaldia, hala ere, debalde izango da.

# 'Bertsofrikia' film laburrak 2. postua lortu du 'Bertso movie da!' lehiaketan

Oñatiko 'Gero Pentzauku Produkxions' taldeak produzitutako umorezko film laburra da

JON MOÑUX | OÑATI

Beasainen egindako lehiaketako epaimahaiak helduen taldeko bigarren saria eman dio oñatiarren *Bertsofrikia* film laburrari. Saria 350 eurokoa izango da eta sari banaketa hilaren 11n egingo da, Beasaingo Igartza jauregian, arratsaldeko zazpietan. Aretxabaletako Lekaixoka eta Eskoriatzako Hankamotx bertso eskoletako ikasleek, berriz, ez dute lortu irabazleen artean sartzea.

Aurtengo lehiaketan 24 lan jaso dituzte antolatzaileek, eta horietatik sei izan dira sarituak. *Paradisua lurpean* film laburrak jaso du lehenengo saria helduen taldean. Gazteen lehenengo saria *Handitan bertsolari izan nahi dut* filmak lortu du, eta *Sar dadila kalabazan* lanak bertsorik onenaren saria eta publikoaren saria irabazi ditu.

*Bertso movie da!* lehiaketa antolatzen duten hirugarren aldia da, eta Beasaingo Arrano kultura elkartea da antolatzailea. Bertsolaritza oinarri duten filmak jasotzen ditu txapelketa horrek eta urtetik urtera geroz eta parte-hartzaile gehiago dituzte. Antolatzaileak oso pozik daude jasotako lanen aniztasun eta kalitatearekin eta sare sozialetan izan duen jarraipen eta oihartzunarekin.

**Gero Pentzauku Produkxions**

Bigarren aldia da aurtengoa *Gero Pentzauku Produkxions* talde oñatiarrak *Bertso movie da!* lehiaketan parte hartzen duena. Publikoaren saria irabazi zuten joan den urtean, eta bigarren saria aurten. Iñaki Olalde talde horretako kidea da eta *Bertsofriki* film laburrean protagonista ere izan da. Oso pozik azaldu da hura jasotako sariarekin, eta orokorrean jaso izan dituzten sari guztiekin. Izan ere, azken hori produzitu duten hamargarren ikus-entzunezko lana da.

Sortzen dituzten lan guztiak zaletasun moduan egiten dituztela dio Iñaki Olaldek: "Ondo pasatzea da gure interes bakarra". Film laburra aurkeztu zutenean taldekoek ez zuten pentsatzen irabazi egingo zutenik: "Izan ere, aurkezten diren lanak oso desberdinak izaten dira eta oso gutxitan jakin ohi da norberarena irabazlea izango den edo ez", dio Iñaki Olaldek. Hala ere, egin zuten lanarekin oso gustura gelditu zirela argi dauka *Gero Pentzauku Produkxions* taldeko kideak.

Taldea orain dela hiru urte sortu zuten oñatiarrek. Lauzpabost kidek osatutako "lagunarteko talde bat" dela dio Iñaki Olaldek. Lehiaketa batean aurkezteko egin zuten lehenengo film laburra, eta, harrezkero, lehiaketaz lehiaketa dabiltza. Gainera, txapelketetara ahal duten guztietan aurkezten direla dio oñatiarrak: "Beti gabiltza bata besteari abisatzen datozen ekitaldien inguruan". Bada, sariak jasotzeak jarraitzera animatzen duela dio Iñaki Olaldek. Hain zuzen ere, gaur-gaurkoz, lagun taldearekin lanean jarraitzeko asmoz azaldu da oñatiarra.

**ESANAK**

**"Ondo pasatzea da gure interes bakarra"**

IÑAKI OLALDE | PROTAGONISTA



*Bertsofrikia* film laburraren fotograma bat.

# Kultura plangintza estrategikoan herritarren ekarpenak nahi dituzte

## Kultura Auzolanean 2014–2015 dokumentua egin du Eusko Jaurlaritzak

**LEIRE KORTABARRIA** | ARRASATE

Apirilaren 28ra arte dago zabalik Kultura Sailaren plangintza estrategikoaren gainean iritzia edo komentarioak uzteko epea. Plangintza hori Kultura Auzolanean 2014-2015 dokumentua da, eta egunotan aurkeztu du Joxean Muñoz Kultura sailburuordeak. Erakundeen arteko akordioaren fruitua da plangintza, eta kultura arloko erakundeekin harremanetan dago orain Saila, plangintzan sakontzeko.

Herritarrek ekarpenak uzteko aukera dute *Kulturaauzolanean.net* webgunean. Bertan, proiektuaren nondik norako guztien gaineko informazio zehatza jaso daiteke. Dagoeneko hasi da jendea iruzkinak uzten. Jasotako ekarpenekin, 2014-2015 aldiko Kultura Auzolanean proposamen berria Kulturaren Euskal Kontseilura eramango da han kontrastatzeko eta onartzeko.

**20 proiektu**

Kultura Auzolanean programaren helburuak hauek dira: erakundeen arteko harremanak indartzea; sinergiak sortzeko, sektore-arteko ekimenak eta zeharkako ekimenak dinamizatzea; euskarazko edukiak eta zerbitzuak hobestea; krisiari aurre egitea kultura-sektoreak babestuz; sexu-berdintasunaren, giza-integrazioaren eta kultura-barietatearen alde egitea; eta kultura-eskaintza hobetzea. Izaera praktikoa du plangintzak eta, horregatik, dagoeneko aurten bistaratu nahi dira bertan definitutako helburu batzuk. Hala, 20 proiektu definitzen dira 2014 -2015 eperako, eta erdiek behintzat aurten izan beharko lukete emaitzaren bat.

### Aurten lortu nahi diren emaitzak

**EUSKAL BEHATOKIA** Jarraipen Batzordea abian ipini eta kulturaren egoerari buruzko txostena egingo da.

**SORKUNTZA FABRIKAK PROGRAMA** Berriz definituko dute.

**KULTURKLIK ATARI INTERAKTIBOA GARATZEA** Sektoreko agenteen katalogo ireki bat landuko dira aurten.

**FINANTZABIDEAK** Dirulaguntzen mapa egingo da.

**OHITURAK ETA KONTSUMOA SUSTATZEA** Erakundeen artean jarduteko proposamena egingo dute.

**DOKUMENTU PUBLIKOEN ETA ARTXIBOEN LEGEA** Txostenak eta entzunaldi publikoa egin beharko dira.

**LIBURUTEGI DIGITALA, 'ON-LINE'** Plataforma publiko autonomoa sortu eta lizentzia mugagabeak erosteko proposamena egingo dute.

**IRAKURKETA PUBLIKO SAREA** Barruan ez dauden hiriak integratuko dituzte.

**MUSIKAREN BULEGOA** Aurten ipiniko da martxan.

**ANTZERKIRAKO DIRULAGUNTZAK** Mapa berria proposatuko dute.

# 'Indar bat dabil hor' diskoa Bergaran aurkeztuko du Mikel Markez bakarlariak

**L.K.** | BERGARA



Mikel Markez. | JOSETXO ARANTZABAL

Mikel Markez bakarlariak *Indar bat dabil hor* diskoa aurkeztuko du kontzertuan, domekan, hilak 6, Bergarako Zabalotegi aretoan, 19:00etan. Sarrerak 8 eurotan salduko dituzte. Musikari horrek 2012an egin zuen orain azkeneko kontzertua Debagoienean; Eskoriatzan izan zen ordukoa, Erramun Martikorenarekin.

Aldez aurreko salmentarik ez da egongo; leihatila ordu bete lehenago irekiko dute.

**Kolaboratzaile ezagunak**

Errenteriako bakarlariaren 10. diskoa da, eta Elkarrek argitaratu zuen joan den urrian. Markezez beraz gain, lehen mailakoak dira diskoan kolaboratzen duten lagunak ere: Xabier Amuritza bertsolaria, Josu Zabala akordeoi-jotzailea, Arkaitz Miner musikaria (gitarra akustikoa, mandolina eta biolina), Satxa Soriatzu (pianoa eta teklatuak), Amaiaur Cajaraville (kontrabaxu-jotzailea), Alaitz Telletxea (trikitia eta ahotsa), Andrea Bidart eta Gotzon Barandiaran (ahotsak) eta Aire Ahizpak hirukote baxenafarra, Xalbador bertsolariaren ilobak. Benito Lertxundik *Gauza xumeak* abestian ere parte hartzen du.

# Ostegun Bidaiariak bidaia-laburpenen lehiaketa deitu dute Aretxabaletan, debagoiendarrei irekia

Ostegun Bidaiariak lehiaketa deitu du Aretxabaletako Udalak. 20 eta 40 urte arteko debagoiendarrek parte har dezakete apirilaren 7a ezkero, azken bost urteotan egindako bidaien laburpena eta argazkiak bidalita *gazteria@aretxabaleta.net* helbidera. Bidaia praktikoak eta merkeak hobetsiko dira. 100 euroko bi sari emango dira, eta biak ere jendearen botoen bidez erabakiko dira.



**Amets Ormaetxea** | Pandero-jotzailea eta irakaslea

# "Agertokian bertan sentitzen denaren arabera, publikoa modu batera edo bestera ikusten da"



Amets Ormaetxea, Arrasaten, panderoa eskuan duela.

JULEN APERRIBAI

**JULEN APERRIBAI** | ARRASATE

Lagun batzuek panderoa jotzen ikusteak atentzioa emanda hasi zen Amets Ormaetxea (Arrasate, 1997) instrumentu hori astintzen. Ordutik hona, hainbat plazatan aritu da eta zenbait lehiaketatan hartu du parte. Egun, umeei eskolak ematen dabil Arizmendi Ikastolan. Trikitia ikasten ere badabil azkenaldian. Kafe baten bueltan elkartu gara bere esperientziak jasotzeko.

**Euskal Herriko hainbat plazatan jo duzu. Zelan hasi zinen jendaurrean jotzen?**

Parte hartu nuen lehenengo txapelketa Mungian izan zen, leku txiki eta itxi batean. Nahiko urduri nengoen. Ondo egon zen arren, ez zen gaur egungo txapelketen modukoa izan. Azkenaldian, txapelketak leku irekietan izaten dira eta publikoa ere gehiago animatzen da.

**Nabaritu duzu desberdintasunik leku batetik bestera publikoari dagokionez?**

Ez dut aldaketarik igarri. Agertokian izaten diren sentsazioen arabera, publikoa modu batera edo bestera ikusten da. Egunetik gauera bai, orduan igartzen da desberdintasuna. Nik arratsalde partean jotzen dut, normalean, baina gau aldera jendea lasaiago egoten dela esango nuke, dantzatzeko gogo handiagoarekin.

**Oholtza gainera igo aurretik urduritasuna kentzeko ariketaren bat egiten duzu?**

Urduritasuna nik, behintzat, ezin dut kendu gora igo aurretik. Behin agertokian nagoenean, lasaiago egotea lortzen dut. Nerbioak arintzeko ariketa ez dakit den, baina jo aurretik ez entseatzea komeni izaten da.

**Trikitilari lehiaketetan ere hartu duzu parte. Baita sariren bat lortu ere, ezta?**

Txapela behin lortu nuen, Hernaniko Trikitilari Gazteen Txapelketan, Beñat Ganboa trikitilari aretxabaletarrarekin. Jende askorik ez zegoen arren, gustura geratu ginen lortutakoarekin. Aurrera jarraitzeko animoak ematen ditu horrelako sari bat irabazteak.

**Umeei pandero eskolak ematen ere bazabiltza. Zer moduzko ikasleak dituzu?**

Ume guztiak dira desberdinak, baina esperientzia oso ona da. Badaramatzat hiru urte inguru Arizmenditik eskolak ematen, eta, ume gazteenak gobernatzen jakin egin behar bada ere, oso gustura nabil.

**Zer-nolako sentsazioa da zure ikasleak astetik astera hobetzen ari direla ikustea?**

Poza eragiten du norberak erakutsitakoak zerbaiterako balio duela konturatzeak, haurrak hutsetik hasten dira-eta. Nire eskoletan bakarrik ezin zaie askorik erakutsi, euren esku ere badago-eta hobetzen joatea. Agian, pozgarriena da umeak horrelako kontuetan sartuta ikustea.

**Panderoa jotzen ikasteko solfeoa jakin behar da?**

Ez, ez, ez dago solfeorik jakin beharrik. Izan ere, kolpeko jotzen da eta erritmoa eta teknika dira ikasi beharrekoak. Trikitia, aldiz, zenbakiekin edo notekin jo daiteke. Eta, azken teknika hori erabiliz gero, harmonia kontrolatzeak asko lagun dezake. Dena den, bi instrumentu horien kasuan, norberak praktikatzea da garrantzitsuena.

**Trikitia zaharkitua geratu dela diote askok. Jendearengana lehen bezala heltzeko formatuz aldatu beharra duela uste duzu?**

Trikitia den modukoa da eta hala izaten jarraitu behar du. Urteak daramatzat mundu honetan eta hala pentsatzen dut. Gainera, gazteen artean trikitiak igoera izango duen sentsazioa daukat. Trikitia proposamen eta estilo berrietara egokitzea oso ondo ikusten dut, baina trikiti tradizionala inoiz alboratu edo ahaztu gabe. Betidanik izan dugun zerbait da eta hala izaten jarraitzea nahiko nuke.

**Aukera izanez gero zure lanbidea trikitiari lotuta egotea gustatuko litzaizuke?**

Ez dakit etorkizuna nolakoa izango den, goiz da hori esateko, baina argi dut mundu honekin lotuta jarraitu nahi dudala. Modu profesionalean ezin bada ere, trikitiarekin segi nahi dut.

### MARRA AZKARREZ

**Trikitilari bat:** Maixa Lizarribar.

**Musika talde gogokoena:** Eñaut Elorrieta.

**Jotzeko plaza on bat:** Getaria.

**Ikusitako azkenengo filma:** *Ocho apellidos vascos.*

**Postre gustukoena:** Kafe-flana.

**Oporretara joateko leku bat:** L'Estartit (Katalunia).

**Kirol bat:** Patinajea.

**Asteburuko plan perfektua:** Lagunekin kanpinera joatea.

## 1. ETXEBIZITZAK

### 103. ERRENTAN EMAN

**Aretxabaleta.** Etxebizitza ematen da errentan. Bi logela, sukaldea eta bainugela. Deitu 639 28 53 50 telefonora.

**Arrasate.** San Andres auzoan etxebizitza errentan ematen da. Bi logela eta egongela. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 639 00 44 45

### 104. ERRENTAN HARTU

**Antzuola.** Antzuolako bikote bat gara, eta Eusko Jaurlaritzaren Bizigune programaren bitartez etxea hartuko genuke errentan Antzuolan bertan. Etxe huts bat duen oro animatzen dut programa ezagutu eta bertan izena eman dezan.Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 676 61 15 47

**Arrasate.** Etxebizitza behar dut errentan, bi logelakoa. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 603 14 59 17

**Arrasate.** Etxebizitza behar dut errentan, hiru logelakoa. Interesatuok deitu telefono honetara: 691 16 96 43

**Arrasate.** Etxebizitza behar dut errentan, merke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 648 46 90 51

**Arrasate.** Etxebizitza behar dut errentan, prezio ekonomikoan. 629 80 77 73

**Arrasate.** Pertsona bakarrarendako etxebizitza behar dut errentan. Mutil arduratsua naiz. 722 45 33 59

**Bergara.** Gutxienez bi gelako etxebizitza hartuko nuke errentan. Mila esker. Interesatuok deitu zenbaki honetara: .602 03 33 56

**Bergara.** Bi edo hiru logelako etxebizitza hartuko nuke errentan. 654 24 13 27

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Erdialdean logela bat ematen da errentan. Prezio ekonomikoa. 678 82 69 77

**Arrasate.** Logela ematen da errentan erdigunean. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 629 80 77 73

**Bergara.** Erdigunean dagoen etxebizitza bat osatzeko bi gela dauzkat libre eta jende bila nabil. Hilean 270 euro dira pertsonako, gastuak barne. Deitu telefono honetara: 672 68 57 77

**Bergara.** Logela ematen da errentan, sukaldea eta komuna erabilita. Leku lasai da. Hilean 260 euro. Kontraturik ez. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 637 18 07 23

**Oñati.** Logela alokatzen da duplex berri batean, plazatik oso gertu. Wifi konexioarekin. 656 74 29 49

## 4. LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Elgeta.** Pertsona behar dugu, etxean bertan bizi izaten, nagusiak zaintzeko. Autoa beharrezkoa. 626 78 33 67 edo 686 30 09 29

### 402. ESKAERAK

**Arrasate.** Emakume euskalduna plantxa eta etxeko lanak egiteko gertu. 699 54 17 27

**Arrasate.** Emakumea gertu etxeko lanak egiteko, nagusiak zaintzeko zein ospitalean gauak egiteko. 943 25 05 72 edo 658 70 56 94

**Arrasate.** Emakumea gertu nagusi edo umeak zaintzeko eta garbitasun lanak egiteko. Fatima. 696 81 09 32

**Arrasate.** Emakumea gertu nagusiak zaindu eta garbiketak egiteko. Mari Karmen. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 617 10 33 51

**Arrasate.** Emakumezko arduratsua gertu haurrrak edo nagusiak zaintzeko, orduka, edo baita etxean bertan bizi izateko ere. Aukeran, Arrasaten nahiago. Interesatuok deitu telefono zenbaki hauetara: 943 04 45 38 edo 652 58 41 99

**Arrasate.** Neska euskalduna bulegoak, elkarteak, tabernak eta abar garbitzeko gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 686 27 45 81

**Bergara.** 49 urteko emakumea lanerako gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 688 89 82 39

**Bergara.** Adin ertaineko emakumea, informeak dituena, goizetan umeak eta nagusiak zaindu zein etxeko lanak egiteko gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 610 34 97 88

**Bergara.** Emakumea gertu adinekoak zaintzeko. Bertakoa. Deitu 696 84 19 51 edo 943 53 29 18 telefonoetara

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

**TURISMO TEKNIKARIEN LAN POLTSA**

Debagoieneko Mankomunitateak TURISMO TEKNIKARIEN LAN POLTSA BAT sortu nahi du.

**Beharrezko titulazioa:**

- Unibertsitate-titulazioa (diplomatua, lizentziatua edo graduatua)
- Ingeleseko “First Certificate”, Hizkuntza Eskola Ofizialeko oinarrizko zikloa edo baliokide dena edo frantseseko “delf B2”, Hizkuntza Eskola Ofizialeko oinarrizko zikloa edo baliokide dena.

**Eskaerak:** Apirilaren 16aren 14:00ak baino lehen aurkeztu behar dira Mankomunitatearen Erregistro Orokorrean. Bertan eta Mankomunitatearen web orrian dauzkazue oinarriak eta eskaera ereduak.

Nafarroa Etorbidea, 17 - ARRASATE
943 79 33 99
www.debagoiena.com

# ZURE IRAGARKIAK

**IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:**

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:** **PREZIO BEREZIA** GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

**- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.**
Egubakoitzean + Astelehenean: 22 € (BEZ barne).
Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
**- Profesionalen moduluak.**
Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).
Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

**Bergara.** Prest adineko pertsonak edo umeak zaintzeko. Eskarmendua daukat. Tel.: 665 75 41 32

**Debagoiena.** Bergarako neska lanerako gertu, orduka zein etxean bertan bizi izaten. 658 31 06 20

**Debagoiena.** Emakume arduratsua, informeekin, garbiketa lanetarako gertu. 696 27 25 34

**Debagoiena.** Emakume euskalduna lanerako gertu. Tel.: 606 50 25 67

**Debagoiena.** Emakumea gertu nagusiak zaindu, garbitasun lanak egin edo etxeko lanak egiteko. Orduka edo egun osoz. 639 02 00 81

**Debagoiena.** Emakumea gertu pertsonak zaintzen edo bestelako lanetan jarduteko. Sonia. 632 84 02 30

**Debagoiena.** Emakumea lanerako gertu. Eskarmentua daukat nagusiak eta umeak zaintzen. 673 78 08 99 edo 698 39 83 62

**Debagoiena.** Eraikuntza lanak egingo nituzke. Bigarren mailako enkofratzaile edo peoi. 632 83 49 90

**Debagoiena.** Erizain laguntzaile lanak egingo nituzke, nagusia eta gaisoak zaindu edo etxean laguntzen. Opor garaian ere bai. 602 51 67 28

**Debagoiena.** Esperietziadun emakumea sukaldean lan egiteko gertu. 619 18 81 86

**Debagoiena.** Garbiketa lanak egiten ditut eta haurrak zaindu ere bai. 631 47 81 87

**Debagoiena.** Gertu nago nagusiak zaindu, garbitasun lanak egin edo etxeko lanak egiteko. Orduka edo egun osoz. 632 98 17 79

**Debagoiena.** Gizona gertu nagusiak zaintzeko, etxean bertan bizi izaten edo egunez edo orduka. Garbiketan edo peoi lanetan ere bai. Erabateko prestutasuna. 602 07 12 06

**Debagoiena.** Gizona lanerako gertu, etxean bertan bizi izaten, egun osoz edota orduka. Gauez ere bai. Garbiketak, nagusiak zaintzen eta abar. 620 12 78 46

**Debagoiena.** Lan bila nabil umeak zaindu, atariak garbitu edo etxeak garbitzen. Esperientziaduna. Egunez disponibilitate osoa. 943 79 96 25 edo 647 10 58 72

**Debagoiena.** Lan bila nabil, etxean bertan bizi izaten, egun osoz edo orduka. Lege agiriak eguneratuta dauzkat. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 662 23 13 01

**Debagoiena.** Lorazain eta kofratzaile lanetan lan egingo nuke. Tituluduna, esperientziaduna eta gidabaimena. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 633 84 65 30

**Debagoiena.** Mutil arduratsu eta langilea nagusiak zaintzeko gertu. Sukalde laguntzaile eta baso, baserri eta abarrekin lotutako lanak ere egingo nituzke. Deitu 658 74 94 63 edo 632 26 01 84 zenbakietara.

**Debagoiena.** Mutil arduratsua eta esperientziaduna lan bila: nagusiak zaintzen, etxeko lanak egiten, etxean bertan bizi izaten zein bestela, ospitalean, egoitzatan eta abar. Orduka eta asteburutan ere bai. Bestelako lanak ere egingo nituzke. Berehala hasteko moduan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 685 42 72 80

**Debagoiena.** Mutil arduratsua orduka lan egiteko gertu: garbiketan, sukalde laguntzaile, zerbitzari edo nagusi eta umeak zaintzen. 631 05 34 15

**Debagoiena.** Mutila gartu lanerako: gidari, zerbitzari, sukalde laguntzaile, margoketa lanetan edota nagusiak zaintzen. 636 60 48 51

**Debagoiena.** Mutila gertu garbitasunak egiteko taberna, elkarte, bulego eta abarretan. Esperientziaduna. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 722 45 33 59

**Debagoiena.** Mutila lanerako gertu. Esperientzia daukat nagusiak zaintzen, garbiketan, zerbitzari, banatzaile eta abarrean. 691 16 96 43

**Debagoiena.** Mutila nagusiak zaintzeko gertu. Esperientziaduna. 603 14 59 17

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen edo garbitasunean lan egingo nuke. Elkarteak garbitzen esperientzia dut. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 648 46 90 51

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen lan egingo nuke, etxean bertan bizi izaten edo orduka. Garbitasun lanak ere egingo nituzke eta baita umeak zaindu ere. Astelehenetik ostiralera. Interesatuok deitu 682 31 97 37 edo 603 22 53 66 telefono zenbakietara

**Debagoiena.** Neska arduratsua eta esperientziaduna umeak zaintzeko, orduka garbiketak egiteko, zein nagusiak lagundu edo paseoan ateratzeko gertu. 695 73 87 95

**Debagoiena.** Neska arduratsua nagusiak zaindu edota atari, elkarte eta abarren garbiketak egiteko gertu. Baita etxeko lanak egiteko ere. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 943 08 14 33

**Debagoiena.** Neska arduratsua, sukaldaritza eta geriatria oinarrizko ikasketaduna, lanerako gertu. Nagusiak zaindu eta garbiketak egingo nituzke, etxean bertan bizi izanda, egun osoz edo orduka. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 615 06 28 04

**Debagoiena.** Neska Boliviarra, esperientziaduna, garbitasunak egingo lituzke orduka. Baita nagusiak zaindu ere, asteburuetan. 618 14 71 34

**Debagoiena.** Neska espainiarra gertu nagusiak zaindu eta etxeak garbitzeko. Esperientziaduna. 633 84 65 30

**Debagoiena.** Neska gertu nagusi eta umeak zaitzeko edo garbiketa lanetan jarduteko. Orduka, egun osoz edo etxean bertan bizi izaten. 688 48 47 76

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu: egun osoz, orduka edo etxean bertan bizi izaten. 619 18 81 86

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu: sukalde laguntzaile, pertsonen zaintzan, garbitasunean eta abar. Autoa daukat. Eskoriatzan bizi naiz baina Debagoiena guztian lan egingo nuke. 636 11 23 40

**Debagoiena.** Neska prest gauetan lan egiteko, ospitaletan edo etxeetan. Geriatria laguntzaile tituluduna. Autoarekin. 600 00 51 60

**Debagoiena.** Pertsonen zaintzan lan egingo nuke orduka, etxean bertan bizi izaten edo egun osoz. Tabernak garbitzen ere arituko nintzateke. 602 64 68 17

**Debagoiena.** Pertsonen zaintzan lan egingo nuke. Geriatria, etxe etxeko laguntza eta profesional ziurtagiria dauzkat. 659 17 81 01

**Garbitasuna.** Atari, elkarte, taberna eta abarrak garbitzen lan egingo nuke. Lege paperak eguneratuta dauzkat. Miguel. 722 45 33 59

**Klinika laguntzailea.** Esperientziadun klinika laguntzailea prest nagusiak, bai etxean eta bai ospitalean zaintzeko. Orduka edo gauez. 609 98 02 52

**Nekazaritza arloan lan egingo nuke.** Ganaduak zaindu, ortuko lanak egin, baserria txukundu eta abar. Edozein lan egingo nuke. 632 17 45 11

**Oñati.** Emakume gaztea haurrak zaintzeko prest. Esperientziaduna. 662 17 10 15

**Pertsona nagusiak zaindukonituzke.** Pertsona nagusiak zaintzeko prest nago, orduka edota egun osoz. 632 17 45 11

**Sukaldaria.** Esperientziadun sukaldaria lanerako prest. 632 17 45 11

**Zaintza lanak.** Geriatria ikasketak eta eskarmentua duen emakumea nagusiak zaintzeko gertu. Mari Carmen. Deitu 697 41 13 86 telefonora

Aretxabaletako Udala

**HERRITARREN PARTAIDETZARAKO TEKNIKARIA**

Aretxabaletako Udala herritarren partaidetzarako teknikaria heren bateko jardunaldiarekin kontratatzera doa.

**Eskatzailearen titulazioa:** Erdi mailako titulazioa, unibertsitate diploma edo baliokidea.
**Hizkuntza eskakizuna:** 4a.
**Izena emateko epea:** Maiatzak 5.
**Oinarriak:** *www.aretxabaleta.com*

Aretxabaletan 2014ko apirilaren 4an.

KOROSTI INMOBILIARIA

Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA:**
- Zabalotegi 82 m², 3 logela. Igogailua. Oso prezio ona. 125.000 €.
- Iraburu 82 m², 3 logela, berogailua. 120.000 €.
- Bidekurutzeta 58 m², 2 logela. 35.000 €.
- San Pedro 70 m², 4 logela. Erabat berriztua. Garajea aukeran. 138.000 €. AUKERA.
- Bolu 66 m². 2 logela. Trastelekua. Garajea aukeran. Oso ondo. 150.250 €.
- Bidekurutzeta 65 m². 2 logela. Trastelekua. 100.000 € PREZIO JEITSIERAREKIN.
- San Antonio 86 m². 3 logela, trastelekua eta garajearekin. Igogailua. 210.000 €.
- Matxiategi 65 m², 3 logela. Berogailua, igogailua eta trastelekua. 150.000 €.
- Koldo Eleizalde 74 m². 3 logela. Trastelekua. 160.000 €. Aukera ona.
- Azkarruntz 75 m². 3 logela. Berrituta. Oso ondo. 144.243 €.
- Zubieta 60 m², 3 logela. 126.213 €. Berrituta.
- Zubieta 70 m², 2 logela. 150.253 €. Berrituta.
- Ibarra 65 m². 3 logela. Berriztua. 114.192 €.
- Zubiaurre 82 m². Igogailu eta berogailuarekin. Egoera onean. 132.223 €.
- Zabalotegi 54 m². 2 logela. 96.000 €.
- Matxiategi 60 m². 2 logela. Igogailua. Erabat berriztua.
- Fraizkozuri 78 m². 3 logela. Balkoia, trastelekua eta garajearekin. 205.000 €.
- Martoko 140 m², 4 logela. Berria.Oso ondo. 225.000 €.
- Koldo Eleizalde 78 m², 3 logela. Berriztua. AUKERA BIKAINA. 200.000€
- San Antonio 70 m², 2 logela, igogailua. Garajea. Berria. 157.000 €.
- San Lorenzo, 87 m², duplex, 3 logela. Berritua. Oso ondo. 159.000 €. PREZIO JAITSIERA
- Ibargarai, 60 m², 2 logela. Berria. Oso ondo. 229.000 €.
- Matxiategi, 115 m², 3 logela, trastelekua eta balkoia. Berritua. Oso ondo.

**ANTZUOLA:**
- Beheko Auzoa 60 m². 2 logela. Oso ondo. Prezio jeitsierarekin.
- Errekalde 94 m². 3 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 120.202 €.
- Zurrategi 83 m². Oso ondo. Prezio ona.
- Sagasti 90 m². 3 logela. Oso ondo. Prezio jaitsierarekin.
- Aiherra 83 m². 3 logela. Igogailua eta balkoia.Oso ondo. Prezio ona.
- Kale Goi. Oso ondo. AUKERA BIKAINA. 125.000 €.

**SORALUZE:**
- Sagar Erreka, Rabal, Atxuri, Loralde eta Rekalde. Etxe onak.

**ELGETA:**
- Domingo Iturbe 90 m², 4 logela. 126.212 €. Prezio jeitsierarekin.
- Torrealdea 77 m². 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Domingo Iturbe, adosatua 150 m2 + 45 m² garajea + 90 m² lursaila.
- San Roque, 2 edo 3 logela. Prezio onean.

**OSINTXU:**
- Osintxu 85 m². 3 logela. Igogailua. Berriztua. 130.000 €. AUKERA BIKAINA.
- Osintxu 80 m². 3 logela. Balkoia. Oso ondo. 160.000 €.

## 5. IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Automatak.** Siemens 1 automaten eskola partikularrak emango dizkidan norbait behar dut, Bergaran edo inguruan. 660 46 34 93 edo 943 76 15 76 .

**Eskola partikularrak.** DBHko laugarren mailako neskatila bati matematika eta fisika eskola partikularrak emango dizkion norbait behar dut Oñatin. 627 91 23 21

## 7. ANIMALIAK

### 703. EMAN

**Cockerra.** Cockerra ematen da opari. Zazpi urte dauzka. Txipa eta osasun agiriak dauzka. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 671 45 96 01

## 8. DENETARIK

### 802. EROSI

**Bizikleta estatikoa.** Bigarren eskuko bizikleta estatikoa erosi edo hartuko nuke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 649 38 14 00

**Kutxa-izozkailua** erosiko nuke. 656 75 76 98

**Trangia erregailua.** Alkoholarekin dabilen bigarren eskuko Trangia erregailu kita erosiko nuke. 660 43 64 29

### 804. HARTU

**Bizikletak.** Erabiltzen ez dituzun edo botatzeko dauzkazun bizikletak jasoko nituzke. Berdin da zein egoeratan dauden. Bila joango nintzateke. Inaki. 699 06 23 95

### 806. GALDU

**Jaka beltza Bergaran.** Larunbat gauean, martxoaren 8an, Bergarako Usoa edo Ariznoa tabernetan, norbaitek nire larruzko jaka beltza eraman eta berea utzi zuen. Nirea emakumeendakoa da eta utzitakoa gizonendakoa. Nirekin harremanetan jar zedila eskertuko nuke. Naiara. 606 82 45 52

**Lepoko zintzilikarioa.** Harri bitxi zuri handi bat eta 3 txikiekin gorri, berde eta txurirekin atondutako zilarrezko zintzilikarioa galdu nuen martxoaren 18an ospitale inguruan. Balio sentimental handia du. Aurkitu baduzu deitu zenbaki honetara mesedez. Mila esker. 660 82 61 81

**GARAJE ITXIAK SALGAI URIBARRI AUZOAN (ARRASATE)**

- **Aireztatuak** eta **4 metro baino gehiagoko** altuera.
- **Camper** estiloko **furgonetentzat** edota **kirol materiala** gordetzeko egokia.
- Garajeen sarrera-atearen altuera 2,7 m.



**INFORMA ZAITEZ!**
943 31 68 68

# ASTEA GOIENAN


GOIENA

## Aramaioko alkatea 'Harira' saioan

Aramaioko alkate Ramon Ajuria elkarrizketatuko du Eneko Azkarate aurkezleak *Harira* saioan martitzenean. Herriko kontuak izango dituzte hizpide eta herritarrek euren galderak bidali ahal izango dituzte saiora alkateak erantzunak emateko.

**'Harira'**
Martitzena, 22:00


GOIENA

## 'Azken egunak Gurian' lana ikusgai

Larraitz Zeberiok aurkeztutako tertulia saioan Oñatiko Guria taberna enblematikoari buruz jardungo dute. Aitor Arregi oñatiarrak zuzendutako *Azken egunak Gurian* ikus-entzunezkoa ere eskainiko dizuegu eta protagonistekin tertulia egingo dute.

**'Tertulia'**
Egubakoitza, 19:00

## GOIENA TELEBISTA

### EGUBAKOITZA, 4
**12:00** Ikusmira
**12:20** Sagarrondotik
**13:05** Bertso saioa
**13:30** Kantari
**14:00** Debagoiena zuzenean
**14:30** Berriak
**15:00** Amaia DJ
**15:30** Onein
**16:00** Debagoiena zuzenean
**16:30** Berriak
**17:00** Klaketa
**17:45** Ur eta lur
**18:30** Berriak
**19:00** Tertulia
**20:00** Debagoiena zuzenean
**20:30** Berriak
**21:00** Debagoiena zuzenean
**21:30** Berriak
**22:00** Tertulia
**23:00** Berriak
**23:30** Gurean gaur

### ZAPATUA, 5
**10:00** Kantari
**11:00** Debagoiena zuzenean
**12:00** Amaia DJ
**12:30** Zorion Agurrak
**12:35** Onein
**13:10** Bertso saioa
**13:40** Tertulia
**14:45** Zorion Agurrak
**14:55** Berriak
**15:00** Debagoiena zuzenean
**16:00** Atik Zra
**16:50** Harira
**17:50** Pedalka
**18:20** Zorion Agurrak
**18:25** Amaia DJ
**19:00** Debagoiena zuzenean
**19:55** Berriak
**20:00** Harira
**21:00** Debagoiena zuzenean
**22:00** Tertulia
**23:00** Berriak
**23:10** Atik Zra
**00:00** Pedalka
**00:30** Debagoiena zuzenean

### DOMEKA, 6
**10:00** Kantari
**11:00** Zorion Agurrak
**11:05** Atik Zra
**12:00** Sagarrondotik
**12:55** Berriak
**13:00** Debagoiena zuzenean
**14:00** Zorion Agurrak
**14:05** Tertulia
**15:05** Kantari
**16:00** Ikusmira
**16:30** Ikusmira
**17:00** Debagoiena zuzenean
**18:00** Berriak
**18:05** Pedalka
**18:35** Tripa-zorri
**19:05** Harira
**20:10** Amaia DJ
**20:40** Zorion Agurrak
**20:50** Berriak
**21:00** Debagoiena zuzenean
**22:00** Pedalka
**22:30** Tertulia
**23:30** Harira
**00:30** Debagoiena zuzenean

### ASTELEHENA, 7
**12:00** Debagoiena zuzenean
**13:00** Aniztasunean bizi
**13:30** Debagoiena zuzenean
**14:30** Berriak
**15:00** Tertulia
**16:00** Debagoiena zuzenean
**16:30** Berriak
**17:00** Kantari
**17:30** Sagarrondotik
**18:25** Zorion Agurrak
**18:30** Berriak
**19:00** Amaia DJ
**19:30** Harmailatik
**20:00** Debagoiena zuzenean
**20:30** Berriak
**21:00** Debagoiena zuzenean
**21:30** Berriak
**22:00** Harmailatik
**22:30** Debagoiena zuzenean
**23:00** Berriak
**23:30** Gurean gaur
**23:50** Debagoiena zuzenean
**00:20** Harmailatik

### MARTITZENA, 8
**12:00** Ikusi irratia
**12:55** Tripa-zorri
**13:25** Amaia DJ
**14:00** Debagoiena zuzenean
**14:30** Berriak
**15:00** Harmailatik
**15:30** Onein
**15:55** Zorion Agurrak
**16:00** Debagoiena zuzenean
**16:30** Berriak
**17:00** Aniztasunean bizi
**17:30** Sagarrondotik
**18:25** Zorion Agurrak
**18:30** Berriak
**19:00** Pedalka
**19:30** Kantari
**20:00** Debagoiena zuzenean
**20:30** Berriak
**21:00** Debagoiena zuzenean
**21:30** Berriak
**22:00** Harira
**23:00** Berriak
**23:30** Gurean gaur
**23:50** Debagoiena zuzenean
**00:20** Harira

### EGUENA, 9
**12:00** Tripa-zorri
**12:30** Klaketa
**13:15** Ikusmira
**13:30** Kantari
**14:00** Debagoiena zuzenean
**14:30** Berriak
**15:00** Harira
**16:00** Debagoiena zuzenean
**16:30** Berriak
**17:00** Kantari
**17:30** Klaketa
**18:15** Ikusmira
**18:30** Berriak
**19:00** Harira
**20:00** Debagoiena zuzenean
**20:30** Berriak
**21:00** Debagoiena zuzenean
**21:30** Berriak
**22:00** Pedalka
**22:30** Debagoiena zuzenean
**23:00** Berriak
**23:30** Gurean gaur
**23:50** Debagoiena zuzenean
**00:20** Amaia DJ

### EGUBAKOITZA, 10
**12:00** Aniztasunean bizi
**12:30** Sagarrondotik
**13:25** Bertso saioa
**13:55** Zorion Agurrak
**14:00** Debagoiena zuzenean
**14:30** Berriak
**15:00** Pedalka
**15:30** Onein
**16:00** Debagoiena zuzenean
**16:30** Berriak
**17:00** Ur eta lur
**17:30** Tertulia
**18:30** Berriak
**19:00** Pedalka
**19:30** Amaia DJ
**20:00** Debagoiena zuzenean
**20:30** Berriak
**21:00** Debagoiena zuzenean
**21:30** Berriak
**22:00** Amaia DJ
**22:30** Debagoiena zuzenean
**23:00** Berriak
**23:30** Gurean gaur
**23:50** Debagoiena zuzenean
**00:00** Gurean gaur
**00:20** Tertulia

## ARRASATE IRRATIA

### Astelehenean itzuliko da 'Igo autobusera!' saioa

Astelehenean bueltatuko da 107.7ko uhinetara astean zehar 10:00etan zuzenean eskaintzen dizuegun *Igo autobusera!* irratsaioa. Arratsaldeetan errepikapenak entzun ahal izango dituzue, 14:00etan, 17:00etan eta 19:00etan. Beraz, irratiko obrak bukatuta, ohiko programazioa izango da.

### 'Zazpi aldiz elur' ikusteko sarrerak zozketatuko ditugu

Mikel Laboa oinarri duen *Zazpi aldiz elur* lana ikusi ahal izango da hilaren 13an Amaia antzokian, 19:30ean. Bertara joan nahi baduzue, hartu parte irratiko zozketan eta irabazi sarrerak. Zoketan parte hartzeko deitu 943 25 05 05 telefonora edo idatzi *irratia@goiena.com* helbidera.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

| | | | |
|---|---|---|---|
| **ARRASATE** | | | |
| **Egubakoitza, 4** | IRIZAR | Erguin, 11 | 943 79 12 39 |
| **Zapatua, 5** | AMEZUA | Sta. Marina, 32 | 943 79 09 74 |
| **Domeka, 6** | ESPAÑOL MORALES | Araba Etorb., 14 | 943 79 18 65 |
| **Astelehena, 7** | RUIZ | Nafarroa Etorbidea 1 | 943 79 14 09 |
| **Martitzena, 8** | ETXEBERRIA | Zarugalde kalea 38 | 943 77 16 30 |
| **Eguaztena, 9** | ALBERTO AZKOAGA | Ferrerias kalea 1 | 943 79 15 15 |
| **Eguena, 10** | M.FCA. AZKOAGA | Iturriotz 17 | 943 79 79 99 |
| **BERGARA** | | | |
| **Egubakoitza, 4** | URRUTIKOETXEA | Orixondo plaza 4 | 943 76 11 74 |
| **Zapatua, 5** | ZABALA | Barrenkale 25 | 943 76 16 87 |
| **Domeka, 6** | ZABALA | Barrenkale, 25 | 943 76 16 87 |
| **Astelehena, 7** | GUALLAR | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| **Martitzena, 8** | ESTELLA | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |
| **Eguaztena, 9** | MOZOS | Iparragirre 2 | 943 76 12 15 |
| **Eguena, 10** | URRUTIKOETXEA | Orixondo plaza 4 | 943 76 11 74 |
| **OÑATI** | | | |
| **Egubakoitza, 4** | ANDUAGA | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |
| **Zapatua, 5** | ANDUAGA | San Lorentzo, 3 | 943 78 21 16 |
| **Domeka, 6** | ANDUAGA | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |
| **Astelehena, 7** | IGARTUA | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| **Martitzena, 8** | IGARTUA | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| **Eguaztena, 9** | GARATE | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| **Eguena, 10** | GARATE | Kale Barria 42 | 943 78 05 58 |

**Farmazien eskuko telefonoetarako 2014 egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 25600 zenbakira.**
Gehienezko kostua 1,9 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, Altiria TICek kudeatuta (www.altiria.es).

## EGURALDIA ASTEBURUAN

### DEBAGOIENA



**Max. 20º**
**Min. 9º**

**ZAPATUA, 5**
Zapatuan eguraldiak hobera egingo du orokorrean eta litekeena da hurrengo egunetan ere joera horri eustea.



**Max. 22º**
**Min. 11º**

**DOMEKA, 6**
Goizean hodeiak izan arren, gainerako orduetan hodeiak eta urdinguneak tartekatuko dira. Tenperaturak gora egingo du.

### EUSKAL HERRIA




## GAZTE INFORMAZIOA

### AUZOLANDEGIAK

**Eusko Jaurlaritzak antolatutako auzolandegiak.** Euskal Herrian, estatuan edo atzerrian. Baldintzak: 18-30 urte. Zozketan parte hartzeko izena emateko epea: urtarrilaren 7tik 11ra. *www.gazteaukera.euskadi.net.*

### GAZTE OPORRALDIAK

**Foru Aldundiak antolatutako oporraldiak.** Foru Aldundiak 14-17 urte arteko gazteei zuzendutako egonaldiak, EHn edo estatuan. Zozketarako izena emateko epea: apirilaren 4tik 11ra. *www.gipuzkoagazteria.net/oporraldiak.* Informazioa eta izen-emateak gazte informazio bulegoetan edo gazteria departamentuetan.

### LANA

**Begiraleak.** Lezoko Udala. Orratx! Kultur Elkartea. Baldintzak: begirale titulua, EGA edo baliokidea, haurrekin zerikusia duten ikasketak, lan-eskarmentua. Epea: apirilak 11.

**Irakasleak atzerrian.** Estatuko Hezkuntza, eta Kirol Ministerioa. Atzerriko ikastetxeetan gaztelania sail elebidunetan aritzeko 135 plaza. Irakasgaiak: Gaztelania atzerriko hizkuntza gisa, Geografia eta Historia, Matematikak, Fisika, Kimika, Biologia. Baldintzak: lizentzia edo gradua. Epea: apirilak 15.

**Teknikaria.** Euskadiko Gaztериaren Kontseilua. Bake eta bizikidetza teknikaria, egun erdiz eta 8 hilabeterako (luzatzeko aukerarekin). Baldintzak: 30 urte baino gutxiago, arlo sozialean goi ikasketak (soziologia, antropologia, zuzenbidea, Giza Eskubideetan formazioa). Epea: apirilak 8.

**INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO:**
**Arrasateko Gazte bulegoa:** Biteri etorbidea 3 | 943 25 20 65 | gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net
**Oñatiko Gazteendako Informazio Gunea:** Foruen plaza 4 | 943 71 82 57 | gazteinformazioa@oinati.net

## EZKONTZAK



### Vicente eta Elena

Vicente Zurbano eta Elena Landa 1964ko apirilaren 5ean ezkondu ziren; Vicenteren urtebetetze egunean. Elur galanta bota zuen euren ezkontzan! Mexikotik eta Aretxabaletatik zoriondu gura izan dituzte; batez ere, Garazik, Itzelek, Kaietek eta Manexek. "Munduko aitaita-amama onenak! Asko maite zaituztegu!".



### Manuel eta Isabel

Manuel Moreno eta Isabel Martin orain dela 56 urte ezkondu ziren. Hala, domekan, apirilaren 6an, Zumelagan elkartuko dira familiarekin batera egun berezi hori ospatzeko.



### Jon eta Edurne

Apirilaren 5ean Jon Albes eta Edurne Unzueta ezkonduko dira Arrasateko udaletxean. Arteaga jatetxean bazkalduko dute eta eztei bidaian Argentinara joango dira. Familiakoen partetik, "ondo pasatu, bikote!".



### Karmen eta Aitor

Bilboko Karmen eta Oñatiko Aitor gaur, egubakoitza, ezkonduko dira Oñatiko udaletxean. Lagunen eta familiaren partetik, "zorionak eta ondo ibili eztei bidaian".

## HILDAKOAK

**Teresa Gabilondo Garitano.** Bergaran, martxoaren 26an. 77 urte.

**Migel Aransaez Soto.** Bergaran, martxoaren 27an. 67 urte.

**Felisa Zurutuza Aperribai.** Bergaran, martxoaren 29an. 89 urte.

**Frantzisko Lizarraga Gartziandia.** Arrasaten, martxoaren 29an. 87 urte.

**Maria Fernandez Perez.** Bergaran, martxoaren 30ean. 82 urte.

**Karmen Uribarri Iraeta.** Bergaran, martxoaren 30ean. 83 urte.

**Joxe Mari Aranburu Basurto.** Arrasaten, apirilaren 1ean. 91 urte.

**Melquiades Anpudia Diez.** Eskoriatzan, apirilaren 2an. 71 urte.

---

OROIGARRIA

## Joxe Mari Aranburu Basurto



2014ko apirilaren 1ean hil zen, 91 urte zituela.

*Maite zaitugu, aitaita.*

**Zure bilobak.**
**Arrasaten, 2014ko apirilaren 4an.**

---

OROIGARRIA

## Koldo Mitxelena Zumaran

Eibarko '...eta kitto!' euskara elkarteko eta aldizkariko koordinatzailea.



Eibarren hil zen 2014ko apirilaren 1ean, 39 urte zituela.

Goienak bat egiten du familiarekin, lagunekin eta '...eta kitto!'-ko euskaltzale guztiekin.

goiena

**Goiena Komunikazio Taldea.**
**Eibarren, 2014ko apirilaren 4an.**

---

URTEURRENA

## Felisa Guridi Guridi

Angel Milikuaren alarguna



2013ko apirilaren 3an hil zen, 88 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza zapatuan izango da, apirilaren 5ean, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

—

*Maite banauzu, ez niri negarrik.*
*Heriotza, berez, ezereza da: aldatze bat besterik ez.*
*Ez nago urrun, beste ertzean baina bide berean.*
(S. Agustin)

**Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.**
**Oñatin, 2014ko apirilaren 4an.**

---

URTEURRENA

## Eugenio Urizabel Murguzur



Oñatin hil zen 2013ko apirilaren 3an, 89 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza zapatuan izango da, apirilaren 5ean, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

**Aurrez esker on bertaratzen zareten guztioi.**
**Oñatin, 2014ko apirialren 4an.**

---

URTEURRENA

## Esteban Eguren Beitialarringoitia

'Usetxe'



Arrasaten hil zen 2013ko apirilaren 5ean, 75 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, apirilaren 6an, 11:00etan, Arrasateko Uribarri auzoko Itxaropenaren amaren elizan.

**Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.**
**Arrasaten, 2014ko apirilaren 4an.**

---

ESKER ONA

## Teresa Gabilondo Garitano



Bergaran hil zen 2014ko martxoaren 26an, 77 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana familiaren izenean.

**Bergaran, 2014ko apirilaren 4an.**

---



### ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05

**Egubakoitzean nahiz astelehenean argitaratzeko.**

Eskelaren prezioa: 130 euro.
Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 175 euro.
**Goiena: irakurriena Debagoienean.**

**ASTE BARRUAN, BAITA ERE:**
**ARRASATE** Goiena: Otalora Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.
**BERGARA** Jardun elkartea: Errotalde (kultura etxean). 943 76 08 19.
**OÑATI** Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.
**ARETXABALETA** Goiena: Basabe poligonoa E05. 943 25 05 05.
**ARAMAIO** Kintelena janari-denda: Nardeaga 11. 945 44 50 22.
**ELGETA** Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98.
**ANTZUOLA** Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

---


# OROILORE

Maitasunez bizi,
maitasunez agurtu

*Hain une delikatu batek*
*eskatzen duen errespetu,*
*arreta eta ardura handienarekin,*
*nire asmoa da familiari ahalik eta*
*traturik beroena eta hurbilekoena ematea*

*Heriotza-asegurua baduzu:*
*Ez onartu besterik gabe*
*zure aseguru-konpainiak*
*esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu:*

*NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua*
*AUKERA DEZAKEZULA BETI.*



*maribi 617 44 21 55*
*BERGARA*

## ZINEMA

### ARRASATE

**AMAIA ANTZOKIA**

**El lobo de Wall Street**
Zapatua eta domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

**El pequeño angel**
Zapatua eta domeka: 17:00.

### OÑATI

**KULTURA ETXEA**

**8 apellidos vascos**
Egubakoitza: 17:00, 19:30.

**Nebraska**
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

**Las aventuras de Peabody y Sherman**
Zapatua eta domeka: 17:00.

### ARETXABALETA

**ARKUPE**

**8 apellidos vascos**
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua: 19:30, 22:00.
Domeka: 19:30, 21:30.
Astelehena: 16:00.

**Lego**
Zapatua eta domeka: 17:00.

### EIBAR

**COLISEO**

**Nebraska**
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20.00.
Astelehena: 20:30.

**Joven y bonita**
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20.00.
Astelehena: 20:30.

**ANTZOKIA**

**Capitan America**
Zapatua: 19:45.
Domeka: 20:00.

**8 apellidos vascos**
Zapatua: 22.30.
Domeka: 17:00.
Astelehena: 20:30.

### GASTEIZ

**BOULEVARD**

**Noe**
Egubakoitzetik domekara: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 16:45.
Egubakoitza eta zapatua: 22:45.
Domeka: 21:00.
Astelehena, martitzena eta eguena: 17:45, 19:30, 22:15.
Eguaztena: 19:30, 21:00, 22:15.

**Need for speed**
Egubakoitza eta zapatua: 00:25.
Zapatua eta domeka: 16:15.
Egubakoitzetik domekara: 19:00.
Astelehena, martitzena eta eguena: 19:00, 21:45.
Eguaztena: 19:00, 21:45.

**Need for speed 3D**
Egubakoitzetik eguenera: 20:30.
Eguaztena: 20:30.

**Rio 2**
Zapatua eta domeka: 15:30.
Egubakoitzetik domekara: 17:45, 20:00.
Astelehenetik eguenera: 18:00, 20:00, 22:00.

**Rio 2 3D**
Zapatua eta domeka: 16:00.
Egubakoitzetik domekara, eta eguaztena: 18:15.

**Opera Met: La Boheme**
Zapatua: 19:00.

**8 apellidos vascos**
Egubakoitza eta zapatua: 23:45, 00:15, 00:45.
Zapatua eta domeka: 15:45, 16:45, 16:15.
Egubakoitzetik eguenera: 17:45, 18:15, 18:45, 19:45, 20:15, 20:45, 21:45, 22:15, 22:45.
Zapatua: 16:15, 18:15, 20:15, 22:15.

**Capitan America**
Zapatua eta domeka: 16:30.
Egubakoitzetik domekara: 19:15, 20:00.
Astelehena, martitzena eta eguena: 19:15, 22:00.
Eguaztena: 19:15, 22:00.

**Capitan America 3D**
Egubakoitzetik domekara: 17:30.
Astelehenetik eguenera: 17:40.

**El origen de un imperio**
Egubakoitza eta zapatua: 00:00.
Egubakoitza: 22:15.
Astelehena, martitzena eta eguena: 22:20.

**Las aventuras de Peabody y Sherman**
Egubakoitza eta domeka: 16:00, 18:00.
Astelehenetik eguenera: 18:15.

**El Gran Hotel Budapest**
Egubakoitza eta zapatua: 20:10.
Domeka: 20:00.
Astelehena, martitzena eta eguena: 20:20.
Eguaztena: 20:15.

**Kamikaze**
Egubakoitza eta zapatua: 00:15.
Egubakoitza: 20:00, 22:15.
Zapatua eta domeka: 22:15.
Astelehena, martitzena eta eguena: 20:15, 22:30.
Eguaztena: 22:30.

**Lego, la pelicula**
Zapatua eta domeka: 15:30.

**FLORIDA**

**8 apellidos vascos**
Egubakoitza: 16:35, 18:35, 20:35, 22:35.
Zapatua eta domeka: 12:00, 16:35, 18:35, 20:35, 22:35.
Astelehena eta martitzena: 17:00, 19:00, 21:00.
Eguaztena: 17:00, 20:00, 21:00, 22:30.
Eguena: 17:00, 20:00, 22:30.

**Ida**
Egubakoitzetik domekara: 16:45, 20:45, 22:35.
Astelehenetik eguenera: 16:45, 20:45 (jatorrizko bertsioan).

**Las aventuras de Peabody y Sherman**
Zapatua eta domeka: 12:00, 16:30.

**Enemy**
Egubakoitzetik domekara: 18:45.
Astelehena eta martitzena: 18:45, 20:45.
Eguaztena eta eguena: 18:45.

**Cronica diplomaticas**
Egubakoitza: 18:00, 20:15, 22:35.
Zapatua eta domeka: 18:15, 20:30, 22:45.
Astelehenetik eguenera: 18:00, 20:15.

**Rio 2**
Egubakoitza: 16:35,

## KRITIKA

# Ezkutatutako zaborra

Herrialde eta garai guztietan sortzen dira ezkutatu nahi ditugun gertaerak. Ez da inor libratzen. Gizakiaren historia itzalez beterik dago. Eta batzuetan, gertatutakoa horren lotsagarria izan denez, kontua ezkutatzea erabakitzen dugu. Baina beti izaten da norbait gertatutakoa argitu edo ezagutzera eman gura duena. *Ida* filmak halako kasu bat azaltzen digu. II. Mundu Gerran, Polonian gertatutako juduen hilketetan naziak ez ziren hiltzaile bakarrak izan, Poloniako biztanle batzuek ere parte hartu zuten. Kontatzen zaigun istorioa 60ko hamarkadan kokatzen da. Ida nobizia gazte bat. Moja izateko botoak egin aurretik, ezagutzen ez duen izeba ikustera joango da. Biek bidaia bat egingo dute eta han ezagutuko du Idak bere jatorria eta bere gurasoei gertatutakoa. Bi pertsonaiak oso desberdinak dira: izeba iraganaren pisuarekin bizi da, eta gertatutakoak bere kontzientzia astintzen du; eta neskak ez zekien komentutik kanpoko bizitza nolakoa zen. Bidaiak aldatuko du Idaren bizitza ulertzeko modua.

**IDA** ★★★☆☆
**Zuzendaria:** Pawel Pawlikowski.
**Herrialdea:** Polonia.
**Aktoreak:** Agata Kulesza, Joanna Kulig.

Pawel Pawlikowski istoriora oso modu minimalistan hurbilduko da: irudiak zuri-beltzean filmatuta daude. Ia ez dago kamera-mugimendurik (mugimendu nabarmenena filmaren azkeneko eszenan gertatzen da). Egun ia erabiltzen ez den 1:33 formatuaz baliatzen da, planoetan pertsonaien gainetik espazio handia utzeko. Ez dute askorik berba egiten eta denborazko eta tokizko elipsiek garrantzi handia dute. Gertatzen diren gauza eta elkarrizketa batzuk kameratik kanpo izaten dira. Ikusleak lotu behar du kasu askotan ukatu zaizkigun eszena edo momentu horietan geratutakoa. Zuzendariak ez ditu gauzak gehiegi azpimarratzen, eszenak bat-batean mozten ditu momentu bakoitzeko muinera joateko. Eta, hain zuzen ere, laztasun horrek *Ida* filmari berezko ukitua ematen dio.

**ANTONIO ZABALA**



MIKELMARKEZ.COM

**BERGARA Mikel Markez, zuzenean**
Mikel Markez bakarlari errenteriarrak zuzenekoa egingo du Zabalotegin. *Indar bat dabil hor* diskoa aurkeztuko du. Besteak beste, Xabier Amuritza, Josu Zabala eta Arkaitz Miner izan zituen bidelagun grabaketan. Sarrerak, zortzi euro.
Etzi, domeka, Zabalotegin, 19:00etan.



**ELGETA 'Herrixa dantzan', Xut taldearekin**
Iruñeko Xut taldearekin egingo dute *Herrixa dantzan* saioa. Taldeak zuzenean joko ditu kantuak, batez ere, 2012an grabatutako *Gara 2012* diskokoak: balsak, txotisak, pasodobleak, kontradantza, Baztango zortzikoa, fandangoa, arin-arina... Patxi Monterok gidatuko du saioa.
Etzi, domeka, Espaloian, 19:00etan.

# NON-ZER

APIRILA **4**
APIRILA **10**

**Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.**
Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

## MUSIKA

**ESKORIATZA Debagoieneko musika eskolen kontzertua**
Debagoieneko sei musika eskolek emanaldia egingo dute.
Gaur, egubakoitza, kiroldegian, 18:30ean.

**ARRASATE Udaberriko X. Musikaldia**
Aste bukeran hiru ekitaldi egingo dira Musikaldia hasteko: hilaren 4an, *Bi arreba*, Xabier Lizaso eta Andoni Egañarekin (20:00, Kulturate); hilaren 5ean, Orquesta Ricercare (20:00, parrokian); eta, hilaren 6an Landarbaso abesbatza (20:00, parrokian). Ekitaldi gehiago egongo dira hilaren 11tik 13rako aste bukaeran .
Asteburuan, Kulturaten eta parrokian, 20:00etan.

**BERGARA Riffs & Chips taldea**
Berri samarra izan arren, eskarmentu handiko musikariek osatzen dute Gasteizko taldea. Blues, rock eta soul soinuetan murgiltzen diren ingelesez abestutako kantuak joko dituzte.
Gaur, egubakoitza, Laino Skaten, 22:30ean.

**ARRASATE 'Hip-hop party'**
Hainbat DJk emanaldia egingo dute. Hain zuzen ere, Itsua, DJ Jackie, Omzo MF, Ademas eta Gunflow igoko dira oholtzara. Sarrera, doan.
Gaur, egubakoitza, Iluntz tabernan, 22:30ean.

**BERGARA 'United Punk' jaialdia**
BC Bombs (Bilbo), Las Tuercas (Bergara eta Zumarraga) eta Bladders (Madril) taldeek zuzenekoa egingo dute. Sarrera, bost euro.
Gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:00etan.

**OÑATI Abesbatza guztiak kalean**
Ganbara Txikiren hamargarren urteurrenean, *Kantua kalean* jaialdia. Herriko haur eta helduen abesbatza guztiak kantuan ariko dira egun berean eta kalean. Goizean kalejira egingo dute haur abesbatzek.
Bihar, zapatua, Oñatiko kaleetan, 12:00etan.

**ESKORIATZA Musika Eskolako bandaren kontzertua**
Musika Eskolako bandak Udaberriko Kontzertua egingo du.
Bihar, zapatua, San Pedro parrokian, 20:00etan.

**ESKORIATZA Luis Vil eta La Mala Crianza**
Biek ala biek kontzertua egingo dute, 23:00etan. Aurretik, 20:00etan, Luis Vil zuzendariaren hiru film labur emango dituzte: *Flores de papel*, *Paranoicos* eta *Extraño*.
Bihar, zapatua, Azkoaga Enea Hotelean, 20:00etan eta 23:00etan.

**OÑATI Las Tuercas eta Discipulos de Dionisos**
Bi taldeek kontzertua egingo dute Antixenan. Sarrerak salgai egongo dira, emanaldia hasi aurretik, hiru eurotan.
Bihar, zapatua, gaztetxean, 22:00etan.

**ELGETA Golden Apple Quartet, Espaloian**
*Bazen behin... Golden* ikuskizuna. Sarrerak salgai, *on line* eta Espaloian. Prezioa: 15 euro (bazkideendako 10 euro).
Bihar, zapatua, Espaloian, 22:30ean.

**OÑATI Mursegoren lan berria**
Mursegoren atzean Maite Arroitajauregi artista eibartarra dago. Urte luzez hainbat artistarekin elkarlanean ibili ondoren, bakarkako hirugarren diskoa aurkezten dihardu.
Etzi, domeka, Antixenan, 19:30ean.

## DEIA

**OÑATI Odol-ateratzea**
Txantxiku Ikastolan egingo dute. Udako oporren aurreko beste bi ateratzeak maiatzaren 9an eta ekainaren 13an egingo dituzte.
Gaur, egubakoitza, ikastolan, 17:30ean.

**ARRASATE Emakumeak eta artea**
Emakumea ardatz izanik, askotariko arte formen eszenaratzea antolatu nahi du Ekin Emakumeak Elkarteak. Oraindik labean dagoen proiektu horri forma emateko, hainbat diziplinatako artisten ekarpenak behar dituzte.
Gaur, egubakoitza, Ekin Emakumeak Elkartean, 18:00etan.

**ANTZUOLA Uzarragako iturria konpontzeko deialdia**
Uzarragako iturria konponduko dute auzolanean. Herritarrei dei berezia egin diete Udaletik.
Bihar, zapatua, Herriko Plazan, 09:00etan.

**ELGETA Informazio batzarra hondakinen kontsultari buruz**
Hondakinen kontsultari buruzko informazioa emango diete




**Arrasateko Udalari esker**
"Zazpi aldiz elur" antzezlana ikusteko bina sarrera zozketatuko ditugu
**Arrasateko Amaia Antzokia**
**Apirilaren 13an, domeka, 19:30ean.**

**PARTE HARTZEKO:**
**SMS:** KLUBA [Sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira
**Telefonoz:** 943 25 05 05 **E-postaz:** kluba@goiena.com **WhatsApp:** KLUBA [Sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea.
Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

goienakluba


GOIENA

herritarrei. Bilera gazteleraz egingo dute.
Apirilaren 5ean, Espaloian, 10:30ean.

**OÑATI Txirrinkaren bilera**
Oñatiko bizikleta-zaleen elkarteak bilera egingo du.
Apirilaren 7an, Zubikoa kiroldegian, 19:15ean.

**ELGETA Odol-ateratzeak**
Mediku taldea Elgetako udaletxean egongo da.
Apirilaren 8an, udaletxean, 18:00etan.

**ARETXABALETA Laburbira: film laburren zirkuitua**
Film laburren zirkuituko filmak emango dituzte Arkupen, Loramendi Elkartearen eskutik.
Apirilaren 8an, Arkupen, 18:30ean.

## ANTZERKIA

**ARETXABALETA 'Zapatariak eta prakagorriak' antzezlana**
Itzal Antzerkia taldearen eskutik, Grimm anaien ipuin klasikoa itzalen bitartez ikusiko dute neska-mutikoek. Sarrera, doan.
Bihar, zapatua, Arkupen, 11:30ean.

**BERGARA 'Litus' antzezlana**
Ipintza institutuko Batxilergoko bigarren mailako ikasleen antzezlana. Sarrera, lau euro.
Bihar, zapatua, Zabalotegin, 19:00etan.

## IKUS-ENTZUNEZKOA

**ARRASATE AGAKOren 23. urteurrena: film laburren bira**
23. urteurrena ospatzeko, Zart Produkzioak antolatutako film laburren bira egongo da: *Gosea*, *33 rpm*, *Bosgarren segmentua*, *Buruko bidaia* eta *Ama ona* film laburrak emango dituzte.
Gaur, egubakoitza, gaztetxean, 19:00etan.

**BERGARA 'Malawi bizikletaz' diaporama**
Jardun Euskara Elkartearen eskutik, Ainhoa Bikuñak eta Mikel Bayerrek ia bi hilabetez Malawin (Afrika) zehar egindako bidaia erakutsiko dute diapositiba bidez: hango bizimodua, elikadura eta ohiturak ezagutzeko aukera emango dute, besteak beste. Ainhoa Bikuñak ikus-entzuleen galderak erantzungo ditu.
Apirilaren 8an, Irizar Jauregian, 19:00etan.


ANAIARREBAK.COM

**ELGETA Zea Mays eta Anai Arrebak**
Zea Mays eta Anai Arrebak taldeak izango dira protagonista Elgetako Espaloian. Aiora Renteriaren taldeak *Da* diskoko kantuak joko ditu. Anai Arrebak taldeak, aldiz, 2012an grabatutako diskoarekin dihardu. Sarrerak, hamar euro.
Gaur, egubakoitza, Espaloian, 22:30ean.

## UMEAK

**ELGETA Ipuinen ordua, liburutegian**
Apirilaren 2ko Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna aitzakia hartuta, ipuinen ordu berezia egingo dute liburutegian.
Gaur, egubakoitza, liburutegian, 17:20ean.

## HITZALDIAK

**OÑATI Arauei eta mugei buruz berbetan**
Seme-alaben heziketa prozesuan arau eta mugen gaia korapilatsua da askotan. Gai horren gainean sortzen diren zalantzak argitzeko berbaldia egingo du Garbiñe Arrizabalagak.
Apirilaren 9an, Bidebarrietako gelan, 18:15ean.

## OSPAKIZUNA

**ARRASATE 'Aldatu kataia' ikuskizuna**
Arizmendi Ikastolako Batxilergoko lehen mailako ikasleek *Aldatu kataia* ikuskizuna egingo dute, datorren urteko ikas bidairako dirua batzeko. Sarrerak, bost euro.
Gaur, egubakoitza, Amaia antzokian, 18:00etan.

## ERAKUSKETAK

**BERGARA Argazki erakusketa**
Koldo Etxeberriaren, Julio Mendikuteren eta Jon Azofraren argazkiekin *Ezberdintasuna eta batasuna* erakusketa osatu dute.
Apirilaren 13ra arte, Aroztegin, arratsaldez.

**ARETXABALETA 'Visiones geométricas' erakusketa**
Iñaki Ruiz de Eginoren eskulturak ikusgai: astelehenetik egubakoitzera 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara; eta zapatuetan 11:00etatik 13:00etara.
Apirilaren 31ra arte, Arkupen.

## BIDAIA

**ARETXABALETA Karrantzara irteera**
Bizkai eta Kantabria aldera joango dira, Pozalagua eta Karrantza inguruetara: Karpin parkea, Pozalagua kobazuloa eta Laredo herria. Bazkaria Karrantzako Garras jatetxean egingo dute.
Apirilaren 8an, Basotxo elkartean, 08:00etan.

**ESKORIATZA Algarvera bidaia**
Olazarrek Algarvera bidaia egingo du maiatzaren 4tik 12ra. Bazkide ez direnendako izen-ematea epea, martxoaren 27tik apirilaren 10era, martitzen eta eguen goizetan. Bidaiak 490 euro balio du.
Apirilaren 10era arte, Olazarren, 11:00etan.

## KIROLA

**OÑATI Spinning maratoia**
Hiru orduko maratoia egingo dute 130 bat lagunek. 40 minutuko lau saio egingo dituzte. Batetik bestera, bost minutuko atsedena, eta jatekoa eta edateko egongo dira.
Bihar, zapatua, Zubikoan, 16:00etan.

**BERGARA Kirol Kontseiluaren batzarra**
Herritarren partaidetza sustatzeko asmoz egingo dute Kirol Kontseiluaren batzarra. Batzar irekia egingo dute, gai bakarra lantzeko: *Bergarako bide motorizatu gabeen sarea*.
Apirilaren 7an, Irizar jauregian, 19:00etan.

## BERTSOLARITZA

**BERGARA Pazkoetako bertso saioa**
Bertso jaialdirako sarrerak salgai daude, *www.bergara.net* helbidean eta Bergarako kultura etxean, zortzi eurotan. Emanaldi egunean, hilaren 11n, leihatilan ere salduko dituzte. Andoni Egaña, Nerea Elustondo, Amaia Agirre, Iker Zubeldia, Maialen Lujanbio eta Jon Maia bertsotan.
Apirilaren 11n, pilotalekuan, 22:30ean.

## IKASTAROAK

**DEBAGOIENA Oinarrizko sukaldaritza ikastaroa**
Bizikasik eguneroko bizimoduan prestatzeko jakiak sukaldatzen ikasteko ikastaroa egingo du: martitzen eta eguaztenetan, 15:00etatik 17:00etara arte. Izen-ematea: 943 76 70 49 telefonoan edo *info@bizikasi.com* helbidean.
Apirilaren 8tik aurrera, Bizikasin.

**DEBAGOIENA Oinarrizko joskintza ikastaroa**
Bizikasik josteko makina erabiltzen ikasi eta arropen konponketak (galtza-barrenak hartu, kremailerak aldatu...). Martitzen eta eguenetan egingo dute, 18:00etatik 20:00etara. Izen-ematea 943 76 93 94 telefonoan edo *info@bizikasi.com* helbidean.
Bihar, zapatua Zabalotegin, 11:00etan.


ZALDIEKIN JOLASTEN



ZU BEHAR ZAITUT eta GAILUR
zaldiketa eta aisialdi elkartearen arteko proiektua.




NORI ZUZENDUA DAGO?
Aniztasun funtzionalaren munduan dauden 0 eta 20 urte bitarteko ume zein gazteentzat.

HILEROKO KUOTA
85€
Astean ordu eta erdi.

NOIZ ETA NON?
Maiatzean eta ekainean.
Gailur Zaldiketa Eskolan.

HARREMANETARAKO:

GAILUR
Tel.: 649 84 67 27
gailurzaldiketa@gmail.com
www.gailurzaldiketa.com

ZU BEHAR ZAITUT
Tel.: 616 76 88 35
zubeharzaitut@gmail.com

## TIRABIRAKA






## BUKATZEKO

# Boccia txapelketa egin dute GSRn

▶ Arizmendin, Tafyd egiten ari diren gazteek antolatuta, lehiaren xarma bizi izan dute egoiliarrek

▶ Kirol egokitua probatu eta hainbat dominaren jabe diren Dortoka klubekoekin jokatu ahal izan dute

**JULEN IRIONDO** | ARETXABALETA

Tafyd-en praktiketan ari diren hiru gazte –Garazi Larrea antzuolarra tartean– izan dira Aretxabaletako GSR egoitzara boccia eraman dutenak. Arizmendiren zikloan kirol egokitua ematen ari zirela, GSRko langile batzuek horren berri izan eta erabaki zuten egoitzan boccia lantzea.

Egoiliarrek jokoa ezagutzen jardun zuten otsailean: "Asko gustatu zitzaien, eta txapelketa egitea pentsatu genuen", dio GSRko fisioterapeuta Maria Gardokik. Mugikortasun arazoak dituzten baina kognitiboki ondo dauden lagunez osatutako bost bikote ibili dira lehian bost jardunalditan. Eta lehiatze hori gustatu egin zaie nagusiei: "Euren arteko pikeak sortu dira, eta, batera bizi direnez, giroa sortu du horrek. Bestela, gimnasiarekin-eta ez dute lehia-aliziente hori".

Horrez gain, txapelketa ofizialetan lehiatzea zer den badakiten Dortoka klubeko Agustin Toledo eta Aritz Bikuña bergararren bisita jaso zuten jardunaldietako batean, eta haiekin ere jokatu ahal izan zuten.

Eta lehia lehia denez, final handia ere izan du GSRko txapelketak; astelehenean izan zen, Ibarra kiroldegian –aurreko jardunaldiak egoitzan bertan izan ziren–, eta, azkenean, Mercedes Espejo arrasatearrak eta Jose Luis Iñarra soraluzetarrak osatutako bikoteak irabazi zuen.

"Oso esperientzia ona izan da: egoiliarrei ondo etortzen zaie kanpoko jendearekin, jende berriarekin, gazteekin harremana izatea". Errepikatzeko asmoa agertu dute egoitzan.



Tafyd-eko gazteak, zenbait boluntario eta GSRko egoiliarrak eta langileak, txapelketa amaieran. | GSR DEBAGOIENA



Boccian, petankaren antzerako jokoan, lehian. | GSR DEBAGOIENA

## AZKEN BERBA



AINTZANE OIARBIDE

## Donostia 2016 nora ezean

Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburuaren proiektua jota utzi du Itziar Nogeresen dimisioak. Aukera aproposa gure sormena, edukiak eta proposamenak zabaltzeko, baina erakundeetan proiektu batzuk badira alderdi guztien adostasuna behar dutenak, legealdi bat baino gehiago iraun behar dutenean. Proiektuaren norabidea aldatu beharra dago eta gauzak beste modu batera egin behar dira. Donostiako alkateak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, batez ere, gehiengo politikoa baitute, ez dute kudeaketa onik egin eta ez dute lidergorik erakutsi. Gipuzkoan izan dugun proiekturik handienetakoan lidergo falta eta proiektuaren nora eza ez dira bidelagun onak izan. Gure udaletan ere gertatzen ari dira horrelakoak azken 3 urte hauetan, eta luzerako proiektuetan adostasun politikorik ez bada, jai daukagu. Inposaketak, lidergo faltak, alderdi interesak, kudeaketa txarrak ez dira onargarriak. Inbidia pixka bat ematen didate bilbotarrek. Azken hamarkadan Bilbok izan duen arrakasta lidergo garbiari esker, guztion arteko adostasunari esker eta kudeaketa onari esker lortu da. Bilbo Europako kulturaren hiriburu izendatu izan balute, ziur naiz ez zela Donostian gertatzen ari dena gertatuko.


